

## BECCATVTAN EGON GOGO DVENAZ 203

## § 2.

**A** Re guchi ago , gaitz içanen da heriot-  
ceco orenean, behar den bidean , peni-  
tencia eguita. Ceren penitenciac , eta edo  
cein bertee obra on batec ere , eguiazco , eta  
valios içaitecoiz , behar du , gogotic , amo-  
rioiz , vorondate onez era librequi eguna içan  
eta ez bortchaz , ez ecin bertcez , edo veldur-  
tez. Era azquen oreneco penitencia harc, ba-  
dirudi , bortchazcoa , ecin bertcezcoa , edo  
veldurrezcoa dela , eta ez behar beçalacoa, eta  
ez behar beçain librea eta vorondatezcoa.

Halatan erraiten du San Agustinec. *Peni-  
tentia que ab infirmo peritur, infirma est, panitentia  
que à moriente etenim peritur, times ne ipsa moria-  
tur.* Eriaren penitencia , penitencia eria da,  
veldur naiz hil dadin, hiltceracoan baicen , e-  
guiten eztena. Ichen behar da lehen eguin.

*Quoniam non est in morte qui memor sit sui.*  
Ceron Propheta Dauitet dioen beçala. Ezta  
nehor heriotcean Iaincoaz orhoitzen. Ordea  
cer erran nahi du, minçarçe, molde hunec, ez-  
tela nehor heriotcean , Iaincoaz orhoitzen?  
Ceren gu orduco esperantçac bici gaitur;  
eta esperantça barequin ez zugu an arteraino-  
coan gaixra queriaric baicen eguiten; Ez cara  
eppe hartarañio Iaincoaz eta orhoitzen.

August 1  
57 de te  
tom. 10.

Psalm. 4

## O 2

## 304 HERIOTCECO ORENERAINO

Bainia orduan diren gaixto enac ere , hasten dira , bere concientcien iratiqtcen eta iraultcen , batari eta bertceati barccamendu escatcen , eta bertce eguiteco guztiac vtciric , abalez Iaincoa bera baithan pensatcen

Nolatanahal dateque beraz eguaia , errengue Dauitec dioena , eztela txchor heriotcean Iaincoaz orhoitcen ? Ezta gaitz ihardesten . Ceren bataz , lehen erran den beçala , orduan , eritasunac berac , bere gorputzeco gitzac , emaiten baitio bat bederari , eguitecorik alfo : eta berria bertcea ceren peril baita , orduco orhoitcea , orhoitcen bada ere , ez orhoitcea beçala , yeldurrezcoa , edo borrazcoa içanen den , eta ez behar beçalacoa . Ceren San agu ferm Aguistinec dioen beçala . *Quis etiam bac anima de sancte aduersione percusser peccator , ut moriens obliuissimo tunc esset , qui dum visueret oblitus est Dei .* Bici deiño Iaincoaz ahantciric egon denac , merceri du , berari ere hilceracoan , ahantz daquion bere buruz , eta orhoitcen bada ere , orhoitce hura , ezaquion deus valia . Era iduti ere badu erçaicala deus valiacen Ceren comuzqui halacos , eritasunetic escapascen denean , iehenezo beccatuetara bihurteen ohi da .

Halaco az eta Halacoez mintço dela , errai al. 65. te du errengue Dauitec . *In multitudine virtutis sue menierunt tibi inimici tui .* Ceure verchutearen multçurasuuean , gueçur eguinuen deratçure ceure etaice . Cer erran nahi du mingatce mol-

BECOCATVTAN EGON GOGO DVENAZ 205  
 de hunezko paracino batez edo biaz adituco  
 duçue. Bi aitonen Semee, edo çaldunec el-  
 caren artean etsaigoa dutenea, eta elccardichi,  
 daturic, desfaturic, combatera eta gudura  
 deituric, colpeca haften direuean, comunz-  
 qui sendo enac, edo ançatsuenac garaitsen du  
 bericea, bere meneratzen du, azpiratzen du  
 lurrera egorzte du, ezpatatz itagaitera darama.  
 Orduan lurrean datçanac, herstura handian  
 baitago, erralten dio bere etsaiari. Ha iauna  
 orhoi barcca iaça daçu, bicia indaçu.

Eçagutzen dut orainokoan, çure alderacot-  
 çat, faltatu dudala, gaizqui egun dudala, bai-  
 na prometazten deratçut ecen, hemendic aic-  
 cina çure cerbitçari içanen naiçela. Hunela  
 minçatzen çaina, hunela orhoitz eguiten dio.  
 Eta othoitz hauc gogoan harturic, bihotza  
 hautsten çaina, vrticalteen çaina, barccatzen  
 dio, vrtzen du iaiquitcera. Ordea iaiqui den  
 beçain fire, bere eman duen promelaz, eta  
 egun çaicen garaciaz contu guti eguinic, be-  
 re leheneco tornura, eta etsaigoara bihurcen  
 da. Halacoari bere etsaiaren indarrac, bothe-  
 reac, eta garaitsiac guegutra erran araci derauca  
 eta prometa araci complitzen eztunena. *In  
 multitudine virtutis tua mentientur tibi inimici mi.*

Hala eriec ere bere eritasunetan, eta mari-  
 nel tormentauec bere tormentetan, anhitz  
 promes eder eguiten dute, saindutceco gogo  
 hartzen dute debocino bat eracustendute.

## 206 HERIOTCECO OREN ERAINO

Ordea nola hora guztria veldurrez eguiten bai-  
tute, eritasuna eta tormenta iragan ditenean  
iragan dareque hequen debocinoa ere, eta han  
die harat lehen beçain gaixto, edo gaixto ago  
eguiten dira. Halacoey eritasunaren eta tor-  
mentaré indarrac gueçurra erran araci deraue,  
eta prometa araci compliciten eziutena.

<sup>eo</sup> Garcelean dagoenac eguiten duen ordena-  
<sup>merus</sup> se eta testamentac, ezuela deus valio dio le-  
<sup>l. qui</sup> gueac. Ez eta beraz eztu deus valioeo, eri-  
retec. taizunaren eta heriotcearen garcelean eta her-  
sturan dagoenac eguiten duen promesac eta  
penitenciac ere. Ceren hec guztiak dirudite,  
direla, boitzaz eguinac, eta ez amorioz, eta  
ez vorondatez.

## § 3

**E**raiten du escritura sainduse. Antioco  
erregue gaixto harc, heriotceco orenera  
cnean, urriquimendu handi bat eracutsi çu-  
ela anhitz promes eder egün çuela, hanbat  
ecen baitcirudien, bere hitz etan saindu bat  
cela, eta saindu bat beçala mintxo cela, er-  
raiten çuela bertece anhitz gaugaren artean.  
*Iustum est subdiuum esse Deo, & mortalem non pa-  
ria Deo sentire.* Iustu da eta aracoin, Iainco-  
ari errendaturic egoitea, eta guiconac Iain-  
coaren bérdin, bere buruaren ez eduquitces.

Eta guztia equin-ere, hunela mintxo bácen  
ere, eraiten du escritura sainduac beras, leccu

## B E C C A T V T A N B G O N G O G O D V E N A Z 207

beiean Orabat amem hic scelestus Dominum a quo  
non esset misericordiam consequaturus. Gaixto  
hura othoitzez cegocan Iaincoati, baiña al-  
ferric, etçuen barccamendu erdiesteco perili.  
Ceren othoitz hec, eta Iaincoaz othoitce  
hec, bortchac, heriotcearen veldurraç eragui-  
ten baitcerautçan. Pontu hunen gaïnean era-  
iten du Soto doctor handi harc. *Antiochus pro-*  
*pterea non est veniam consequens, quod penitentiam*  
*non habuit, sed ob id nobis exemplo propositus est, ut*  
*admonemur dolorem peccatarum, qui ex cruciatu-*  
*bis mortis enascitur fallaceum esse sepiissime.*

Soto i  
sent di  
q 3. ar.

Etçuen erregue Antiococ barccamendu-  
ric erdiesthi, ceren ezpaïtquen behar cen bi-  
dean penitenciaric eguiñ. Ordea harc bere  
azquen finean, eguiñ çuen enseina, eta peni-  
tencia itchurapena, ibentcen çaiçu gueure be-  
guion aitciuean exemplotçat era mirall beçaz-  
la: Iaquin deçagun, critsalvaren era heriot-  
cearen oñihacetaric eta hersturetaric sortcen  
den penitencia, maiz dela alfer, faun, falso  
gueçurti, era guti valio. Iccusten duçunean,  
bere mende guztiā gaixto içatu den bat, eritu  
denean, eta ia hiltcera, eritu dvencan, hastē  
dela batari eta bertceari barccamendu escat-  
çē beharrey bere haciédañ partitçē, eta hats-  
beherapen hâdi batçequin, beguiac cerura i-  
ravlitric, Iaincoari gomédatcen, ezteçaçula ez  
hargatic pêla, segur duela halacoac bere salba-  
mêdua. Aitcinetic, aitcinetic eritu baiño lehê

## 208 HERIOTCECO ORENERATNO

gisteran, eta heriotceco hersturā iartī baiño lehē, behar da, beccatuavtei eta debocinoa hatiū. Ceren bercela erituz guerozco debocinoan ezta cer fidaturic ezta legurañçaric. Eritasuneco debocinoa, comunzqui, heriotcearen veldur tasunetic helduda, eta ez lainco ganaco amo- riotic. Eritu ezpacina, lehen begala, ceure leheneco beccatuen chisteran, etçautçan eta toquian egouen cinen.

Baldin aitcinetic, eritu baiño lehen, beccatu vizten baduçu, intencione ona harten baduçu, eta ahalez ceure leheneco falten, erremediatcen, hari çarela, ceure azquen eritasunac attrapaceen baçaitu, iaquiqu ecen orduan, mundoço beccatoreric habdiens içan baçara ere, salbatceen bidean çarela, eta talbarceco esperantça, habdi bat ahal duque çua.

Baiña bercela, laincoac begitura çairçala, beccatutan eta beccatu eguteco gogoan, eta votor datean çaudela, ceure azquen eritasunac edireitetic. Ceren baldin hala edirciten baçaitu, peril da, ceure eritasun hattaco confessarceac, vrriquiméduac, debocinoac, eta egüiten diruçun bertce ensefu guztiec ece, deus guti valioco duten, indar guti içanen duten.

*vgn̄ de  
ct̄ & falsa  
caitenti,  
lom. 41.* Eznaiz neure burutic mintçö. Hala er- raiten du San Agustinec. *Agens penitentiam  
O'ueconciatus cum sanus est & postea bene visuens  
securus hinc exit. Agens penitentiam ad vitium,*

## BECCATVTAN ECON COCO DVENAZ. 209

Et reconciliatus , si securus hinc exis , ego non  
 sum securus. Unde sum secucus dico , Et do securi-  
 tatem. Unde non sum securus , paumentiam dare  
 possum , securitatem dare non possum. Nunquid  
 dico damnabitur ? Non dico. ed dico etiam libe-  
 rebetur ? Non. Sed quid dicistibi ? Nescio , non  
 praesano , non promuo , reficio. Ofasuna ducla,  
 bere beccatu en cofessa , eta penitencia egui-  
 ten duena , era guero handicharat , ongui bi-  
 citten dena. ongui , eta legur ilquitcen da he-  
 mendic. Baiña bere azquen fineraño , eta az-  
 quen erita suneraño , gauça hauquen eguitera  
 iguriquitcen duena , eznaiz segur , ongui , eta  
 segur ilquitcen denz. Segur naicencen errai-  
 ten dui segur naicela , eta eznaicencen , ez-  
 naicela. Ahalderraquet , orduan ere ba-  
 daidiqueyela penitencia , ez ordea eman se-  
 guraniçaric. Ez tut erraiten condenat uco de-  
 la , eta ez salbatuco de la ere. Eznaiz fida , ez-  
 naiz segur , eztaquit. Hunela dio san Augusti-  
 nec. Era erraité du oratió guehi ago ere. Vis  
 te de dubio liberare ? Vis quod incertam est euadere ?  
 Age paumentiam cum sanus es. Si sic agis securus es.  
 Quia egisti paumentiam , eo tempore quo peccare  
 potuisti. Si autem vis agere paumentiam runc , quan-  
 do peccare non potes , peccata te dimisserunt , non tu  
 illa. Nahi duçu duda taric i ltqui ? Nahi duçu  
 segurecan iocatu ? Eguiçu penitencia fendo  
 çareño , beccatu ere ahal dai di çuño. Ceren  
 bertcela , baldinçuc eguin nahi baduçu penie.

**310 HERIOTCECO OKEN ERAÑO**

tencia eri çarenean, hiltceracoan, beccaturic ere ecin daidiqueçun demboran : eztituruç orduan çuc vitzten beccatuac, bainia becca-  
tuec çu vitzcen çaituzte.

Ceresquer edo merecimendu, yste duçu, içanen duçula, ia ecin guehi ago daidiqunean, eta hiltcerac elsiu duçunean tratu gaixtoea vitzteaz, eta batari, eta bertceari, cegre onen hutzeaz, eta partitceaz ? Ceren berdin ecin eraman cinitçaqueyen ceurequin. Baldin obra on horiec eguiñ baciniñu, olsasuna cenduenean, eta ceure burua, halá oneco, nola gaixtoco, ceure escuco cenduenean, badirudi ñindar guehiago içanen çutela, valios ago içanen circela, segurantça handi bat emanen ceratçutela, eta çutçaz ongi ioanen cela. Bainia ceure azqué finean, ia ecin guehiago iraun deça queçula iccuñsiric, eta eztituriç eguiten duçun obra onean, eta penitencian, ezta cer sobera fidaturic. Ceren peril baita, ezten orduco obra on hura, eta penitencia behar beçain fin, eta eguiñazco içanen.

Eztagoela beraz nehor penitenciaric eguiñ gabe, eta beccatuac vtcí gabe, beccaturic ecin daidiqueyen dembora rañio, eztagoela bortcharen beguire : begui bete eguiñ bidea libreki, eta vorondatez : begui mugaz, eta goiz. Ceren san Agustinec dioen beçala, *Mulcia tos soles ferotina panitentia decipere.* Anhitz en-  
ganatecen ohi du arratz aldeco vrtiquim-

## SECCATVTAN,EGON COCO, DVENAZ, 21.

duac, penirencia berant corrac.

Badira çuhaltz barçuc, vdaren finean, sasoinetic campoan hasten baitira loratcen, edo bir-loratoen. Baiña lore hetaric guti lorcen, eta itchatchequitcen ohi da : hequen fruiteric guti vmoecen, eta ontcen da; norc nola eztaquieja, iharteen, eta iraunguitcen ohi dira. Hala dira bada, bere adinaren finean, eritasunean, era hiltceracoan, desira onez bethatcen hasten direnac ere. Orduco desira on hec, nahicunde hec, neguko loreac dira, dembora gaitzeacoac, sasoinetic campocoac, itchatchequi gabe, fruituric eccari gabe, desircundetan iharteen, eta iraunguitcen direnac.

## §. 4.

**E**regue Pharaonec Israeleco semen ondotic, hequen hil nahiz, cihoanean, iccusifric ecen vrac hartcera ceramala, erran çuen. *Fugiamus Israel, Dominus enim pugnat pro eis.* Exod.14. contra nos. Daguigun ihes, bihurgaitecin guibelat, eztaidiquegu nahi dugunic. Ceren Iaincoa bere alde dute iende hauc. Abiatu cen bada guibelat, eman cioen ihefari, baiña alferric, probetchu gutitan, berant orhoitu cen : hora laster, baiña vira laster, ago, han bere lagun guztiequin itho, eta hondatu cen. Hala guer-

**ETI HERIOTCECO OREN ERAÍÓ,**

thatcen çaye bada comunzqui, heriotceco orenean, bere gaixta querietaric, guibelat bi-hurtu, eta ihes eguin nahi duteney erci. Abiatzen dira, eguiten duie cenbait enseiu, baina ez asko, flaco dira, eta halatan atcemaiten, eta atrapatzen dira.

Ioab, eta Abner, bi capitain hec, guerlahádia erabili guren elccaren artean.. Eta azque-nean, icussitic Abnerrec, gaizqui ciohacola, vençetu hurran cela erran cioen Ioab bere contralari. *Nun usque ad intermissionem macro tuus defecisti?* Cer da haur Ioab capitán fainazua? Cer eguin gogo duçu? Accabatu nahi oithe gaitucu? Asko eguin duçu, garaitia baduçu vitztu bicia. Orduan ibardeisi cioen loabec. *Vixi Dominus, si loquuntur frustes manus recessisse populus.* Promes emaitetü deratçue ecin, baldin goizean mintçatu bacina, iendea barraiatuso cela, eta ençuna içanen cinela. Etran baillio beçala. Eta nola? egun guztian, orai arteinö, ene contra ibili çara, har-tan ceure ahal guztiaz permatu, eta emple-gatu çara, eta guero orai, arratseon, atrapatu çareneon, guehi ago ecin daidigunean, nahi-duçu baquetu, eta adisquidetu? Bada ez ez verandu duçu, alfer mintçö çara, orai ene al-dia da, lehen gurea cen beçala. Huna non duçun clarqui pintaturic, beccatore bat, bere mende guzelian, beccatutan, Iaincoaren coacra, guerlanibiliric, heriotceco ore-

## BECCATVTAN EGON GOGO DVENAZ. 313

nean, ia atrapatu denean, Iaincoarequin guer, thatcen çaicana. Halacoari, eta halacoey erranen deraue Iaincoac, Abimelec erregueari, eta harequin ciren laguney Isac Patriarcac erran cerauena. *Ouid venisti ad me hominem, quem odisti, & expulisti à vobis?* Certara ethorxi çarete orai ene gana, lehen gaitz etisia, alfer-etisia, eta ceuen ganic egotcia, erabili du-  
euñguiçon baten gana? Erranen deraue halabeç halacoey, Euangelioco borz virginia er-  
guel hey erran cerauena. *Amen dico vobis nef-  
cio vos.* Coazte hortic, etçaiturtet eçagutcen.  
*Clausa est iama.* Hertsi da athea, ezia ide-  
quit-teric, verandu duçue. Erranen deraue halacoey. Quec ahala cendutenean, etcendu-  
ten ontafunic eguin nahi, cergatic bada orai,  
ahalic eztruquenean, eguin behar deratçuet  
nic quey? Finean erranen deraue. Non dira  
oraifioocoan cerbitçatu ditutçuen Iaunac, eta  
nabusiac. Erabilí ditutçuen beccatuac, eta  
gaixtaqueriac? *Surgant & opiesentur vobis.* Co-  
azte hetera, eta hec lagun bequizquitçue: eta  
vtz naçaque ni orai ere, oraifioocoan vici  
nauquen beçala. Quec lehen eguiten cendu-  
ten: nitzaz irri, eta escarnio, hala bada aldiz,  
nic ere orai eguinien dut çuetçaz. *Ego quoq; in  
interita vestro ridebo.*

Hunela erranen deraue, heriotecco ore-  
neraiño, beccaturan ibiliric, oren hartan vere  
beccatuac érremediatu nahi dituztency. Eta

Genes. 3:6

Matth. 25:

Deut. 32:

**214 HERIOTCECO OREN ERAÍNO,**

arraçoisnequin erranen deraue hunela. Ceren  
orduan bortchaz , eta ecin bertcez hartarat-  
cen baitira , eta borchazco ongi eguiteac,  
deus guti valio baitu.

Halacoec nahi dute bici direíno, Deabrua-  
ren cerbitçuan egon, eta guero hiltceracoan  
Iaincoa gana aldatu. Ordea hura da, leguea-  
ren contra. Ceren erraiten du legueac. Cu-  
haitz bat, bere dembora guztian, ondoz , eta  
erroz,çure baratcecan,edo lurrean egon dena,  
azquenean bertceren baratcera edo lurrera  
maccurtuagatic : eta ebaquitcen durenean,  
bertceren lur hartara , eroriagatic , çure iça-  
nen dela, eta ez eroritic datçaneco , lurraren  
iabearen. Hala comunzqui içanen da bada  
halaber,bici deíno Deabruare cerbitçuan er-  
roac eguinic egon dena ere , hiltcen denean,  
Deabruaren,eta ez orduan laincoa gana mac-  
curtu agatic,Iaincoaren.

Eta nola çuhaitza çutic dagoenean, mac-  
curtu dagoen aldera , erortcon ohi baita co-  
munzqui ebaquitcen denean:hala çu ere bici  
çareíno , norat baitçauda maccurtua , harat  
erorico çara hiltcen çarenéan. Ezceçaçula  
penfa,ezraqiçula iduri,baldin bici çareíno,  
sendo,eta ofasunarequin çabilçaiño,ezquer-  
rerat maccurtua,eta alderditua bac'aude, eri-  
tasunean, eta heriotcean , escuñerat iarrico,  
eta chutchenduco çarela. Bicitceari darraica  
heriotcea,nola bici halahil.

lege. Si  
piures in ff.  
nouo lib. 5.

Jugenduco

## BECCATUTAN EGON GOGO DVENAZ. 215

Vrguztiac ilquitcen dira itsasotic. Ordea guztiarequin ere vr hetaric batçuc dira gaci, eta bertceac gueça : batçuc gogor, bertceac bera. Era arraçoinia. Cercn nolaco baita lurra, ceinetatic iragaiten baita vra, halaco guer-thatcen baita vra ere. Vrac lurraren goçoaz, eta çappotea hartcen du. Vra, lurrac ontzen, edo gaixtacen du. Halabada heriotcea ere, nola bicitetic iragaiten baita, bicitceac ont-cen edo gaixtacen du. Nolaco baita ehaiten den ehuna, eta oihala, halaco içanen da oihalaren albenia, era bazterra ere. Beraz hunelatan, nolaco baita bicitcea, halaco içanen da halaber, bicitcearen bazterra, eta acabatcea ere, cein baita heriotcea. Ongui bici, ongui hil, gaizqui bici, gaizqui hil.

## 5. 5.

**G**Vertha diteque Iaincoaren cenbait sei queretuz, eta ordenamendu estaliz, ongi, eta prestuqui bici içatudena gaizqui hiltcera, azquenéa behaztopatcera, eta galtcera; vntci an arteraistio ongui ibiliric portuá sartean, galtcen dena beçala. Nola halaber bere mendean gaizqui bici içatu dena, azqué finea erremedia baititeque, ohoin ona eguin cen beçala, Baiñi hunelacoric oraiñocoangutitan guerthatu da, eta venturaz ez feculan guehi ago eguinen. Comúzqui ongui bicitce

## 216 HERIOTCECO ORENTERAINO,

dena, ongi hiltcen da; eta gaizqui bicitcen  
dena, gaizqui hiltcen da. Haur da bide gabala,  
erreala, plauna, eta segura. Bertce guztiac di-

Gidortae  
August de  
disciplina  
Christianæ  
libro vñito  
Tom. 9.

ra bidexcac, bide chidorrac, herriac, mehar-  
rac, malccoriac, eta perilez betheac. *Male  
mori times, & male vivere non times.* *Non posse  
male mori qui bene vixeris.* Gaizqui hiltcearen  
çara veldur, eta ez gaizqui bicitcearen. Bada  
ecin hilditeque gaizqui, ongi bici içatu de-  
na. Eta iaquiteco, duda guti dela, eguitaco  
hunetan, bada sefiale bat han lia. Ceren bat  
bederac fendo ceinio certan baitceducan go-  
goa, hartan ohi daduca, eta hartçaz minçat-  
cen ohi da eritafunean, eta hiltceracoan ere:  
hartan edireiten da ametselan, eta eldarnio-  
etan ere; asco baita aditcera emaiteco, bicit-  
cen beçala hiltcen ere dela. *Que feminaueris  
homo, hoc & metet.* Dio Iondone Pauloc. Gui-  
çonac cer ere ereiten haitu, hora viltcen ere  
du. Era galdeguité du S Matheo Euâgelistac,  
czejco contuan beçala. *Nunquid colligunt de  
spinis ubas, aut de tribulis fisus?* Orte da nehor,  
elhorti-arantcetaric mahars, edo sappar-la-  
har etaric fico viltcen duenac? Biei deinio  
gaixtaqueria banatcen, eta ereitê ibili denac,  
eta guero bere ažquen finean, saindu batec  
beçala, hil vste duenac, elhorri arantcetaric,  
mahats: sappar-lahar etaric fico, gaixtaque-  
rietaric ontasun vildu nahidu; ecin date-  
queyengauça desiratcen du.

Ad Gal. 6.

Matth. 7.

Bere

**BECCATUTAN EGON GOGO DVENAZ. 217**

Bere mēdē guzian errebelatua ibiliric, heriotceco orenean, ilhuntcen hasteracoan, bide onera, eta arthecera bihurtuko dela vste duenach huts eguiten dū. Lehen behar da lehen. Ceren heriotceco, orenhura, oren ilhuna, nahafia, eta tormentatua da. Ezta tormenta capitainic hanbat eguiteco emaiten dueñic. Orduan, lehen erraz cena ere, gaitz bihurtzen da. Vntzia itsas-çabalean, dembora ederarequin aise erabiltzen da, alde batera, eta bercera errazqui lemasitzen eta gobernatzentzen da. Bainā baztereraz guero, costa ioz guero, ezta gouernatceric, eta ez nahi beçala manaiatceric. Dembora clar deñño, adin onean, eta osasunarequin, vntzia itsas çabalean, dembora eder arequin beçala, ceuregogara, çabilts çaiño, escuey eraguię, orduan perma çaiteci. Ceren dembora gaitzac, eritasunaren oihaceac, eta heriotcearen torinenetac hartuz guero, costaraz guero, bicitcearen bazterra, heriotceaç vquituz guero, eguin da, miracullu içanen dasalbatcea.

Vtçaç beraz burutie, buruan databillaçun erhoqueria hori, egunetic egunera, heriotce-riñō lucatuz eta eppe hartuz, orduan erremediatuco çafelaco esperantçarequin, an artetariñō beccatutan egoite hori. Ceren badakiçu tormenta handiarequin, costan iotera, dohan vntci cargatua, eztela peril gabe, aitcitic galduçat daduçağ halaco vntzia.

**218 HERIOTCECO OREN ERAÍÑO**

Hala eduçaçu bada halaber, çuc ere galduçat ceure burua, beccatuz betheric, eta cargo, turic, heriotcearen costilla ioité duçunean: bethi ere guero onduco çarela erraiten duçula: eta beccatu eguitceco gogoan, eta vorondatean çaudela, ceure azquen eritasunac edireiien çaituenean. Ceren hartaraz guero, gutiac dira ongui librartzen direnac, galdu gaua escapacen direnac?

Beraz hunei atan, orai baituçu oſaluna, indar, antce, adimendu, eta ceure burua, ceure eskuco: orai ezpaitçara oraíño eri, eta ez heriotceco herfluran iarri: orai baitçara libre, eta nahi baduçu ongui, eta gaizqui ere, daidi queçun demboran. Orai bada orai, men meñeñan iarri gabe, succarrac nahasi gabe, eta eritasuna i aundugabe, eguintçatçu, guero eguiñ gogo ditutçun onguiac, eta descarguac. Eta orai dior. Ceren nola orai eguiten duçun guztia, eritu gabe, heriotceco herfluran iarri gabe, eta nehorc bortchatu gabe, librequi, eta vorondatez eguiten baituçu: hora içanen da gauça handia, estimatua indartua, boheretsua, valioffa, Iaincoari eder içanen çaicana, eta merecient azquen finean ceruco loriaren erdiesteco.

219

*Erremusina equiteaz, eta handic forcen  
den probeibizua.*

C A P. XVI.

**R**raiten du espiritu sainduac. *Ig-* Eccles. 3.  
*nem ardente exunguit aqua, & ele-*  
*mosyna resistit peccatis.* Vrac iraun-  
guacen du sua, eta erremusinac  
eguiten deraue beccatuey contra. Vrac sua  
beçaiá, erremusinac iraunguitcen du becca-  
tua. Halaber erraiten du san Matheoc. Beatis Matth. 5.  
*misericordae, quoniam ipsi misericordiam conse-*  
*quentur. Dohatsu dira misericordiosac, ceren*  
*hec erdiesfico dute misericordia.* Hunen ara-  
uaz erraiten du erregue Dauitec etc. Beatus Psal. 49  
*qui intelligit, super egenum & pauperem, in die mala*  
*liberabit eum Dominus.* Dohatsu da, beharraren,  
eta probearen gañean emplegarcen dena.  
Cerenhura, egun gaitzean, heriotceco ore-  
nean, beguiratuco, eta libratuco du Iain-  
ecac? Eta badio oraño spiritu sainduac. Timu  
*Conclude elemosynam in corde pauperis, & hac* Eccles. 13.  
*pro te exorabit, ab omni malo.* Gordeçacu erre-  
musiua probearen golecoan, eta harc egui-  
nen dio Iaincoari othoitz, gaitz gustietaric,  
beguita çaitçala, Finean hanbat gauça errai-

O 2

## 220 ERREMUSINAREN ONTASVNAZ

tenda erremusinaz, non baititudiecen, bat bederaren sal batceco', eta arimaren seguratceço, asco içanen dela, bertce gauçaric gabe, bihotz bera, eta erremusina lari içaitea. Ceren handia baita, erremusinaren indarra, eta botherea.

**Glosa** *y-*  
*rana in ca-*  
*39. Eccles.*

Eguia da hala da, handia da, eta Glosac dioen beçala, san Agustiñ ganic atheraric. *Sola misericordia comes est defunctorum.* Misericordia bera da, eta ez bertceric, defunctuac compainiatcen dituena, arima ioaney laguntzen çayena, erremusinac eduquitcen du be-thiere on.

**Vide S.**  
**Thom. 2<sup>20</sup>**  
**qu. 154. art.**  
**3. ad 7.<sup>o</sup>**

Ordea eztuçu ez pensatu behar, erremusinac berac, sacramendu batec beçala. *Ex opere operato*, bere indarrez eta botherez, beccatua iraunguitcen, eta barccatcen duela. Eztu berac, hartaracotçat indarrie asco.

**1. Cor. 13.**

Alde batetic duçun guztia probey eman agatic, baldin bertcetic, beccaturan baçade, eta heran finatcen baçara, deus guti valiatuco çaituçu ceure erremusina, eta misericordios içaitea. Hala erraiten du iondone Pauloc. *Et si distribuero, in cibos pauperum, omnes facultates meas, & tradidero corpus meum, ita ut ardeam charitatem autem non habuero, nihil nibi prodest.* Duden guztia probey eman badiacet ere, eta neure burua erratcera viz badecat ere, etçazquit hec guztiac deus valiatuco, baldin caritateric

## ETA INDARRAZ.

221

ezpadut. Erran nahidu. Erremusinac, eta berte  
te obra misericordiazcoac ere, deus guzi  
probetchatzen çaitçala, beccatutan dagoe-  
nari

Ordea guztiarequin ere anhitz, etahan-  
diac dira, erremusinari emaiten çairçan,  
ohoreac, laudorioac, eta abantaillac. Eta  
arraçoiñiequin, eta merecituric emaiten  
çaitça. Ceren erremusinac berac, indarric  
asco ezpadu ere, beccatutic atheratceco, hai-  
ordea badu athera aracitceco. Ceren badi-  
rudi ecen Iaincoac bere ontasuna gatic, hart-  
ceco duela occasino, misericordios denari,  
ceren misericordios den misericordia egui-  
ceco. Çure erremusinae, çure bi hotz-bera tasu-  
nas, beratzen, eta hautsten dio Iaincoati bi-  
hotza, eta emaiten occasino çure faborat-  
ceco. Qu misericordios içaiteaz, gaitezen çä-  
ra, disposicionean iartzen, eta prestatzent  
Iaincoaganic misericordia erdiekceco, eta er-  
recibitceco : eta Iaincoa ere hartçaz irat-  
çartzen, eta ernatzent bezala da, çuri ongi  
eguiteco, eta bere garaciaren emaiteco. Hu-  
netacotçat, egua hunen frogatceco, anhitz  
exemplo ediren ahal diteque, hainan nic orai  
presentecon, ez tut bat baicen eccatrico. Bo-  
nifacio martira dembora batez ibili cen  
emazte eder noble aberatz batequin galdua,  
eta haraguizco beccatuan barrena sarthua.  
Eta baquen Bonifacio harc, bertceric ere an-

## 222 ERREMVSINAREN ONTASVNAZ

hitz beccatu ; edale cen , iocari cen , arnegari cen , halacoac ohi diren beçala. Gauça, bat quen ona. Bihotz-bera cen , erremusinasaricen. Alde batetik beccatu anhitz eguitenbaquen, bertcetic probeac faboratcē cituen. Eta halatan bera ere Iaincoac faboratu çuen , bihorzean viquitu çuen , inspiracion saindu batçuc , gogoeta on batçuc eman cerautçan. Eta guero hequin batean conuertit u cen , aitcinerat obra onetan emplegatu cen , era azquenean martir hiltzen. Iccussaçu cer eguiten edo eraguiten duen erremusinac, misericordios , eta vrricalmendusu içaitear. Hain çaida eder Iaincoari vrricalmendua , etabeharrari ongui eguitea , non berari ere handic vrricaltzen baitçaina ongui eguiile huta , eta lehen edo guero eraçusten baitio , eta emaitzen bide onean iartceco bidea. Bonifaciori eman , eta eracutfi cioen beçala.

Espoitça gaitecin beraz , eta enseia misericordios , eta erremusinalari içaitera : Ceren anhitz baitira ; eta handiac , handic , eta hartaçc fortcen diten proberchuac , ontasunac , eta irabaciac.

**Eletmosy.** Eta bertce anhitzen artean hirur dira erremusinaren proberchu principalac. Lehenbitoria sa. ticoa. *Eleemosyna est meritoria gloria & augmenti tisfactoria gratia, si fiat ab homine existente in gratia & propter Deum.* Beccaturik gabe dagoela, Iaincoa gatic eguiten den erremusinac , merecitzen du

## ETA INDARRAZ.

223

ceruko loria, eta berretcen Iaincoaren gara-  
cia, Bi garren probetchua da. *Eleemosyna est  
satisfactoria pro paenit peccatorum dimissorum.* Er-  
remusinac satisfatcen, eta pagatcen ditu, bec-  
catu barccatuen pena, temporalac, guztiac  
edo parte bat, hemen edo purga torioetan pa-  
gatu behar cirenat. Eta haur da escritura fain-  
duac erraiten duena. *Peccata tua eleemosiniis re-  
dime.* Hirurgarrena. *Eleemosyna est impetratoria.*  
Erremusinac anhitz ontasun erdiestendu  
Iaincoaganic. *Beati misericordes, quoniam ipsi* Match. 5.  
*misericordiam consequentur.* Dohatsu dira mise-  
ricordiosac. Ceten hec erdiestico dute mise-  
ricordia. Eta hala çure errenusinac berret-  
cen du ceruko loria, eta handitcen loaincoa-  
ren garacia; gutitcen du purgatorioetaco pe-  
na: eta erdiesten du Iaincoaganic anhitz fa-  
bore, eta ontasun. Iaquin deçagun ecen erre-  
musina-guilleari, bihotz bera, eta misericor-  
dios denari egunen çaiçala misericordia. Eta  
cer ere einaiten baitiogu orai hemen probea-  
ri, edo bertce obra onetan emplegatcen bai-  
tugu, hora guero editerenen dugula bertce  
munduan, eta ez bertceric.

## §. I.

**I**Aquin deçagun, eztio gula probeari liscar-  
tic edo eräguteric egun behar, eta ez gaiz  
quiric errá. Baldin emaitecó gaietan bagara,

## 224. ERREMVSINAREN ONTASVNAZ

edo debocinoric badugu, eman diaçogun, eta gaiñeracōan vtz deçagun. Ceren probea, onguien dena ere, on beharda, eta viricalquigun. Biluz da : orthuz da : eztu aldat ceco a thorriaric, eta ez etçateco oheric : eztaqui othuruntça on baten berriric. Asco du bere laceria, escasia, eta miseria. Beraz erçaina ha-lacoari liscarric, eräçuteric, edo mehatechu-ric eguiñ behar. Ceren hala eguiteaz, batcan ezpada bertcean, periletan iar cindezque huts eguiteco : eta probearen, bere probetasunaren gaiñera, bere gogoan, eta bi-horzean çaurtua, gaizcoatua eta tristetua igorteeço. Ezcur vste, galdeguinen dera-cula Iaincoac, ea probe onari, ala gaixto-ari eman diogunz, eman diogunz baicen. Dagujun ongui, eta ezteçagula beha-nori.

Aberatsac beçala, probeac ere Iaincoac eguinac dira. Aberatsa hain biluz-gorri for-thu cen, nola probea. Eta Iaincoac nahii içan balu, eguiñ çuqueyen probea aberats, eta bai aberatsa ere probe. Eta hala orai ere anhitze-tan hequen çorthea, eta fortuna trucatcendu, probeac aberasten, eta aberatsac probetzen baititu.

Probeac pairatuz, paciencia icanez, eta bere ongui egüilez othoitx eguiñez, behar du sal-batu; eta bai aberatsac ere, bere onetaric pro-

## ONTASVNAZ ETA INDARRAZ 225

beari emanez eta partituez. Eta ongi guehi ego eguiten deracu probeac guri, escatceaz, eta gure ganic errecibitceaz, guc harri emaitiaz eguiten diogun baiño. Ceren guc harri labore pochin bat, cornadubat, edo hunelaco cenbait bertce gauça appur emaiten diogu, baiña gue handic ceruco loria irabazten dugu

Are guehi ago, probeati emaitceaz, gueure descarga eguiten dugu. Ceren Iaincoac orai guri emaiten derauzquigun onac eta onhasunac, heraric, gueure maiziadaren mantenatceco, eta estatuaren eduquitceco behar duguna harru, eta ethorqui çuneco casuetaco ero cerbait guelditu eta gaifirracoac probe behar renac dira.

Ezu ez Iaincoac veci probeac mundu huncitan haberic eca sostenguric gabe, aberatsen gomendioan vticitu. Eta halatan emaiten dezaue aberratsey beretçat behar duten baiño guehiago, guehi agoco hora, probetara par- t <sup>permisio-</sup>  
ti deçaten amoreac gatic. Eta handic errati-  
cen du San Crisostomoc. *Nam si pauperes esse, Chrysostom  
etiam hoc divitium gratia factum est, ut per elemo- 77 u cap.  
synam peccata possint abluerem.* Permititcen du 15. tom.  
Iaincoac, munduan diren probeac, heyo ongi  
eguinez, salba ditecin aberatsac. Eta Iain-  
coaren ñtasuna eta liberaltasuna hain da bandi  
non orai çuc ditutçun on horiec Iaincoarenac  
berarenac, eta Iaincoac emanac dituçularic,  
guztiarequin ere, çuc horietaric probeari ema

226

## ERREMVSINAREN

Prof. 19.

iten diogunean, ceuretaric emaiten baitcinio  
beçan bat, estimatcen baitu Iaincoac, Eta  
are handicbere burua çure alderacorçat çor-  
dun eracullen du; hain çordun ecen erraiteen  
baitu spiritu sainduac. *Feneratur Domino qui  
misericordia pauperis.* Probeari emaiten dioenac,  
Iaincoari emaiten dio. Eta emaiten ere, no-  
ja? *Feneratur.* Censuan, interesean iraba-  
cian, obliga araciric beçala, principala ira-  
baciarequin bihurtuko dioela. Eta hemengo  
irabacia tipi da, ezta seguraturic ehuneco  
bat ere, baiña Iaincoarena handi da, guehi  
ago da, ehuneco ehun baiño.

Cer nahiçu guehi ago? probeari emaiten  
diogunean Iaincoaren icenecan, berari emai-  
ten baitcinio beçåbat estimatcen du Iaincoac  
hain ecertan eduquitcen du:

Eta haur ezta miresteco, ceren orai hemen  
gure artean ere, iccuisten duguncan, ecen,  
guiçon batec, gure ahaide edo adisquide batı,  
eguiten dioela, gure amoreac gatic, cenbaic  
ongui guc ere lehen bicico occafinoan, erren-  
datcen derautçagu esquerrac guiçon hari, bi-  
tartean eztugu onic, an arteraino gueute bu-  
ruac çordun dadutçagu.

Cer egünen deraue bada Iaincoac, haren  
amoreac gatic probeac faboratcen dituztency  
cer esquer? cer pagamendu emanen deraue?

Iondone Marthièc bere caparen erdia pro-  
beari eman ciocenean, abiatu cen Iaincoa, gau-

## ONTASVNAZ ETA INDARRAZ. 227

hartan berean , capa hartçaz estaliric, erraiten çuela sendagaillaz. *Martinus hac me vesto contexit.* Iccussaçue , iccussaçue , cer valentia egun duen Martinec; nola capa hunez estali nauen ,cer eman derautan.

Bada Martinec capa hura probeari eman cioen eta ez Iaincoari. Ordea guziarequin ere Iaincoac,ceren haren icenean eman cioen, erraiten du berari emancioela.

Halatan erranen deraue azquen iudicioco egunean ere , escuinocoey dohacilla seculaco loriara ezquerrecoey seculaco penetara. Ceren escuinocoec gosetu ceneá eman baitcioten iatera eta egarritu cenean edatera. Bañia ez ezquerrecoec.

Eta iauna, galdeguinen diote orduan guztiel : noiz ediren cinitugun gue çu gosse edo egarri? Ihardetfico deraue. Probeac athera ethorri ceizquitxuenean. Orduan hequen lecuan , ni nintcen han.

Eta hala probea escatcen çaitçuanean contu eguiçu ecen probe hura dela Iaincoa bera, ceren haren igeneá escatcé çaitęu, haren icenean emaiten dioçu ,eta Iaincoac ere berari emaiten baitcinio beçan bat estimatcen du. Hala erraiten du San Crisostomoc. *Nihil nempe interest siue huic pauperi, siue ipsi Christo dederis.* Ezta antsia, ala probeari , ala Iesu Cristo berari emaneztu batec baño bertceac guehi ago monta , eta ez valio , guztia da orobat.

Chyf hom.  
89in capite  
27. Mqth.  
tom. 2

## 228

## ERREMVS INAREN

Cryf. vbi  
supra.

Eta are San Crisostomoc berac, aitcinetic auifaturic, ezta dilla nehor hargatic affaldat erraiten du. *Nemesis verbis turbatur. Non est aquale, ipsum Dominum praesentem alere, cuius praesentia vel lapidem ad se animum astraberet, & proprias eius verba dumtaxat, pauperes, mendicos, agrotos alere atque curare.* Ezta berdin bainia aldez guehiago da eta meritu ago, probeari Iaincoaren icenean emaitea, Iaincoari berati bere presunau bainio. Ceren presunac berac eta presunaren presentiac hobequi uquitzen du bat bedera, presuna haren beraren presentean eztenecò erranac eta manuac bainio. Eta hala, aldez guehi ago da, ceren Iaincoac manatzen duen, probeari emaitea Iaincoari berari emaitea bainio.

## §. 2.

**B**Eratz hunelatá ezta probearen gabe egotz teric, eta ez athean oihuz eduquitcerie ere. Ceren probearen oihuec, eta anhitz etan ere beraziaz bere buruaren hebain, mangu, herba eta ezi eguiteat, gure bihotzaren gogortasuna eta hotzetasuna accusatzen dute.

Gu baguina emaitera prest, erne eta volondres, ezleceaque probeac halaco pensuric egutu eta ez arterie bilha. Baldin probea bada maliciati, bere beharrez eta gure faltaz da maliciati: Harta bainio, gure hartan faltu guehi ago dugu, bere bicitzen atheratceco

## ONTASVNAZ ETA INDARRAZ 229

hanbat enseiuren eguitera behartzen baitugu.

Hala erraiten du San Crisostomoc. *Nam si similes ex necessitate simulacrum egoistare, propter suavitatem et inhumanitatem suam, que calibus personis supplicansibus ad misericordiam non flectitur.*

Chrys hom  
37 ad popu  
lum Antii.  
de clemo  
syna & mi  
seticordia,  
tom. 5

Probeari emanen dioçuna, guti edo anhitz, emoçu bere hala. Baldin doiez baçara, guti baduçu, emoçu guti; eta baldin aberatz baçara, gañez eguna baçaudé, emoçu anhitz.

Ierusalemco temploaren egurtean, eta egunez guero ere, bacebillan obraren esqueat eta bacen athearen aldean ere curchabat, errusinaren edoquiteco vntci bat; hartan bat bederac debocino çuenaren emaiteco: Orai ere gure elicetan, crucificaren aldean, dagoen beçala.

Bada temploko cutcha, vntci edo copa harren, cein Iuduec deitzen baitçuten, Gazophis latium, aberatzsec emaiten çuten anhitz, batzak hamar berceac hogoy, bat bederac bere içandaré atalaren eta debocinoaren arauaz. Era hequin artean edirenen emazte probetto bat era harc eman ciuken bi cornadu.

Eta guero haren gañean erran çuen gure salbarçailleac, guchi ago eman çuela emazte probe harc, aberatz guztiac bainio. Ceren emazte harc beretçat behar çuenetic emá baitçuen, bainha aberatzsey, emanac emanic ere, franco guelditu baitcuyen. Emaçu beraz duçu naren arauaz. Ceren hartçaz contentatzen da

230

## ERREMUSINAREN

Iaincoa baldin ezpaduçu emaittecoric, etçudamu, ceren eztuçun : eta daimu harequin batetx, etçu vorondate, baldin bacendu emaitteco.

Ceren Iaincoac behatzen badu ere emaitçara, ordea are ago vorondateera. Eztuñac vorondateaz complitzen du, baiña duenac, vorondatearequin batean behar du complitu, eta obratu,

Eta obratu ere nola ? ez eder gaillu, ez valoriaz, eta ez mundua gatic, baiña Iaincoa gatic.

Eta halaric ere, sequeretuqui, ahalic eta i-chilquien, escuinac emaiten duena (Euangelioac dioen begala) ezquerrac iaquiten eztuela

Eta are albaliz, erremusina errecibitzen duenac ere, ezluque iaquin behar, nondic heldu çaicán ontafun hora. Ceren halatan Iaincoac berac, azquen egunean guztiac, çure o-hore handitan, mundu guztiaren aitcincian agertuco eta campatucoitu.

Eta çuc ere orduan, orai duçun desira, nahi baitzen duque. çure erremusinac, eta eguiten ditutçun bertze obra onac, munduac iaquin lirçan, complituco duçu.

Ceren orduan guztiac iaquinen eta agertuco baitira.

Eta ezta ez asco, esque ethorecen çaitçun probeari emaitza eta ez berrceri.

Baiña Iaincoac emanic guchiagoren ere ahala

Igilquy.  
enaz.

## ONTASVNAZ ETA INDARRAZ 231

duçunaz gueroz, behar duçu informatu, ga -  
detu, eta jaquin, ea nor den herrian probebe-  
harric gosez denic, sabel-vzcurdabillanic, a-  
halquez escatcera ausarcen eztenic.

Eta guztien buruan eduqui behar duçu  
contu, ea badenz probe-eritic,

Ceren probetaluna eta eritasuna, bi erita-  
sun dira.

Halacoac dira alde guztiz on behar, ondi-  
cozco, eta vrticalquiçun: Hequeñ faborat-  
cea da meritu handia, eta ceruco loriaren er-  
diesteceo, eta are mundu hunetan ditutçun  
onen ere segurareceo, berreiceco eta tien-  
datceco bide ona, çabala eta segura.

## 5 3

**B**Atçuec vste dute, ecen probeari emaitaz  
probetuko direla; eta halatan erraiten de-  
rauega esque éthortcen çazteney, Euange-  
lioco bortz Virginec bere laguney beçala. *No*  
*farte non sufficiat nobis & vobis iste potius ad ien-* Math. 17  
*dentes. çazte hortic, Iaincoa lagun daquiçu-*  
*ela emaitear guticceintu gauçac, eztugu gueu-*  
*retçat ere sobera.*

Eztute consideratzen, probeari emaitear, *ez probetean, baiña aberatsten, ez guticceen*  
*balna berretcen ducla.*

132

## ERREMUSTAREN

Prou. 18.

Hala emaiten du aditcera Spiritu sainduac.  
*Qui das pauperi non indigebit, qui despicit de-  
precantem sustinebit penuriam.*

Beharrari emaillea, ezta beharrean iarrico  
 emaille eztena, azquenean behar içanen da.

Prou. 12.

Guehi ago dio Spiritu sainduac. *Aly diui-  
 dunt propria & ditiiores fiunt, aly rapium aliena &  
 semper sunt in egestate.* Batçuec bere onac  
 partitcen eta emaiten dituzte, eta guztiare-  
 quin ere, bethi dira aberatz, eta berriz bertice  
 batçuec, nola bereac emanen dituzten ecen  
 bertcerenac ebarsten dituzte, eta halaric ere  
 bethi dira errumez, noharroin, eta on-behar:  
 Baitirudi ecen hec hartuz probet cen, eta berr-  
 ceac emanez aberatsten direla.

Psal. 115,

Amac haurrari dithiaren emaitea beçala da  
 probeari emaitea ere. Ama haurrari dithia-  
 ren emaitearaz, cismacen da, ez emaitearaz an-  
 çutcen da. Halaber ereitea beçala da probeari  
 emaitea. *Euntes ibant & flebant mittentes semina  
 sua, venientes autem venient cum exultatione por-  
 tantes manipulos suos.* Bihica ereiten çuten, eta  
 escumencia viltcen.

Ereiten bihi baccotchac, eta vileyen buru  
 betheac, botean hitur laurac cituztenac.  
 Halaber badira vputçuac, berariaz eguinac,  
 cimenduan ithurria baitute. Eada gauça fro-  
 gatuada, purçu hecaric vric ez athera agatic  
 ere, ezcela erraitecoric, vra handitcen agos  
 eta ez athera agatic ere, ongui atheratcera,

## ONTASVNAZ ETA INDARRAZ 232

etipitcē ago. Ceren atheratcen began bat, sort-  
cen baita. Hala dira bāda beharrey emalle-  
ac ere : emaiten duten beganbaç emaiten çaye  
Eta emaiten ezpadute, bihotz gogor badira  
eztira hargatic aberatzten ago , probetzen  
ago baicen. Ceren hasserretcen da Iaincoa  
berac emanetaric , eman nahi eztio çuncan.

Hala hasserretu cen aceratz abaricioaren  
contra. Ceren aberatz hartçaz erraiten badu  
ere Euangilioac, *Induebatur purpura & byssus,*  
*& opulabatur quotidie splendide.* Beztitcea  
cela ongi eta othuruntçatcen hobequi , ecin  
erran diteque ordea , hargatin ioan cela , i-  
fernura. Ceren ederqui beztituric ibiltcea , eta  
mahai onaren ere eduquitcea , baditudi ezrela  
beccatu bandi , behintçat munduac ezraduca  
hala. Bada Euangilioac eztu erraiten , berce  
faltaric çuela aberats hare.

Cergatic bāda condenatu cen? Aditcen da,  
condenatu cela. Ceren etchathera esque et-  
horricecan probe gosse premian cegoenari,  
ezpaitcioen bere mahay asletic , asletcecoric  
eman eta ez arc elicitcecoric ere.

Handic bere butua eta onac ere gañdu cituen  
Handic probetu cen, eta hain probetu non az-  
quenean,bere mihiaren heçarceco eta frescat-  
ceco , vr-chorta bat ere, ecin içanezco probe-  
tafunera ethori baitcen.

Nola egiten, baitu galtçapen eta beherat-  
çapen handia , probeari guibela emaiten dio-



234

## ERREMUSINAREN

enac : hala eguiten du goratçapen mira garris  
probe beharrari , bere beharraren estaltceco  
emaiten dioenac.

Eta goratçapen hura , eta handic heldu den  
irabacia galtzen du bihotz gogorrac , erremu-  
fina eguiteco gogoric eztuenac.

Eta eguiteco gogo duenac ere , baldin berac  
bere elcuz bici deino , eguiten ezpadu , segur  
da , irabaci haren parte handi bat , edo parte-  
ric guehiena galtzen duela , hunen ondoko ca-  
pitulan aguerico den beçala.

*Nola errremusinac , eta bertce obra on , voronda-  
tez coacere , cerorrec ceure eszuñ , edo bert-  
cereneñ , ceroribici garela , ondocoetara vici  
gabe eguin behar dituzun.*

## C A P. XVII.



Auça segura da , eta bat ere duda-  
tic eztuena , probetchu ago , eta  
meritu ago içanen duçula , orai  
cerorec , bici çarela , eta oſa-  
funa duçula , ceure escuz probeari emaiten  
dioçunaz ecen ez guero hiltceracoan orde-  
narcen dioçunaz . Ordea çuc oraico eta gue-  
roco , franco duçularic , orai ez bat ere , bainā  
guero biciaz etſitu duçunean , eguin gogoi-

**COAC ONDO COSTARA VTCI BEHAR 235**

turçu liberaltasun handiac. Abesatž çara on handiac diurçu , eta baduçu bai vorondate , on horietaric proberara partitceco.

Ordea noiz? Guero, hiltceracoan. Bittarrean erraiten duçu. Neure onac neurc nah ditut góçatu era manaiatu, eztut oraino gabetu nahi; eztut ohera gabe biluci nahi. Bainha guero neure azquen ordenuan era testamentean , manatuco dut neure ondocoaz , neure onequin vticico dudana, eguin díñala ene descargu guztiac. Eta ate guchi ago , avisatuco dut suma bat seinalatuco baitiot , suma hora proberara parti deçala. Eta venturan purgatorio etaratzen banaiz ere (ceren gaixtoeneco kontuan guztioc purgatorio etara vste dugu) bere hala handic atheratceco,hunenbat meza eta trentena eman araci diaçada la , eta berteric ere anhitz obra on ene icenean, ene onetaric daguiela.

Hunela dioçu eguienen duçula. Çure ongi guztiac bertceec , çure ondocoac , eta ceurc ez bat ere.

Bada eiçatequeyen hobe obra on horion guztiion cerorrec bici cinelaceure escuz eguitea , eta horien bidez , purgatorio etara joan gabegoitea , ecen ez guero haratzen çareneco erremedioen eguitea? Preso çareneco erre medioac bilhat ceintucu eta ez preso fartcetic beguiratcecoac.

Are guchi ago, erremusinen eta bertce obra

**236 EZTIRELA OBRA ON VORONDATEZ**

onen ondocoetara urzteaz , emaiten duçu a<sup>z</sup> ditcera guibeletic eta vrruititic naht duçula argui diaçaçuten. Cer cenerraque , baldin gau ilhunean, pausu hertsi, gaitz perilos batean iragan behar duenac, erran baitaice bere mu thiley , daudela guibeler, eta guibeletic eta vrruititicdaguiotela argui? Haladira bada bere erremusina eta bertce obra misericordiaz coac bereec bere escuz egun ahal ditçaquetelaric, bere ondotic , vrruititic , eta hiliez gueto, bertceren escuz , bertceri eraguiteco gogo dutenac ere. Hura da, hurtan hurran erran comuna den beçala. Vloac ioan sareac hedea.

Eta badio San Basilioc ere. *Nemo post vitam, pietatis landem, primum ue capiet.* Eztu

nehorc , hil ondoco erremusinaz , erremusinalari içan delaco, laudorioric içanen. Hobequi ceneidique , eta segurqui ago ioca cindezquel baldin guero , bertceren escuz egun gogo duçuna , oraiceutez , ceure iccusten duçula egun baceneça. Ceren otaifio San Basilioc ididen beçala. *Quis exitus tui tempus inveniatur?* *Quis der mortis genere sponsor?*

Basil. orat.  
14. de mor.  
& Homi. 7  
in diuinis  
suaros.

*Quot uedes repenitino , ac vi casuue extinguis , qui pra doloris & spiritus angustia , ne vocem quidem emissore potuerunt?* *Quot etiam febris à sensu alienor fecit?* *Quid igitur expeditas tempus , in quo separassonis tua compos non eris.*

Cuc baitioçu , ecen hilceracoan , ceure on guziac , edo parteibat , probey ordenazu.

## ONDOCOETARA VTCT BEHAR 237

derazeeçula, orduan ongui handiac eguin en dicütçula. Erradaçu, nondic iaquinen duçu edo norc auisatoco çaitu, noiz edo cer moldez hillen çaren? Nor duçu hartaco fiadore? Cenbat iccusten ditngu vtstecabea, laburzqui colpez edo estropuz; mintçatu ere gabe, finatcen direla? Eta bai halaber succarrac nahaſieic, bere testamenzac hasi, era accabatu gabe, guelditeen direla? Cergatic bada nahi duçu çuc ere, venturaz ceute adimen duan egenen etçaren demboraco, eta astiric ere içanen ezruçuneco, ceure eguitcoa eduqui eta luçatu?

## § 3.

**G**ocin aitcin ago-Oraifio orduan, hiltce. Graco aitcinean adimendu, memorio eta alti bacendu ere erran neçaque çure orduco eremusinac deus guti valio duela. Ceren baitirudi ecen botchazcoa dela, era ez vorondatezcoa: guztiz etc, lehen ahäl Ceneydiqueielaric, berariaz, an arteraino luçatu duçunean. Ceren orai ceure onac eztitutçu gutitu nahi, ecin delibera deçaqueçu hartara bada badirudi ecé guero ere, hil vtste ezpacédu etceneçaqueyela delibera, eto ez hetatic emá.

Are guehi ago, çure orduco, azquen oreñeco, onen emaita eta errepartitce harc, badi-tudi, deus guti valio duela çuretçat.

**238 EZTI RELA OBRA ON VORONDATEZ**

Ceren çure onetaric, eta çure icenean eguiten bâda ere errepabitce hura, ordea anhitz etan ere, ezpaituçu ceurc eguiten. Herrioa hurbiltzen çartçinean, nola ahaça hertfian, eta pausu gaitzean iragan behar baituğuz; eta bitarteko doloreac ere handiac baitira, orduan ceure onez contu guti eguiten duçuz. Ceren handi agoac ahanitz aracitzen baiterazquitçu. Orduan ceure ondocoey, eta han presentean edireiten dirency, cer ere nahi baitute, eta nola behar dela içcussico baitute, hala daguitela vîzten deraueçu. Hain nequez eta penaz vîldu cinituen onac eta onhasunac, eta hain çuhurtqui era maitequi beguiratzen cinituenac guero, hain lachoqui, eta antifa bequi largatceintuçu: lehen cein hertsi eta iñchequin baitcinen, guero hain franco eta liberal eguiten çara. Orduan norc cer erraiten baiteratçu hura laudatzen duçu: era anhitz etan ere, ces erraiten duçun eztaquicula, baietz erraiten duçu. Neure mendean anhitz içcussi dut halacoric. Eta hala badirudi ecen, ordnâ eguiten duçû guztia bertcec eguitê dueila, eta ez çuc. Iccuslaçu bâda ea cer probetchu eta merecimendu ahal duqueçû, bertcec eguiten duen onguiaz. Arraçoiñequin erraiten du Spiritu Sainduac. *A me mortem bene fac amico tuo & secundum vires suas exporrigens da pauperi.*

Heriotcera baino lehen eguiçoú ongui ceure adisquideari, eta duçun indarraren arauaz

## ONDOKO ETARA VTCI BEHAR 339

heda iaçoğu ceure escua probeari

Egun batez eguin cioen othoitz Santa Luci-  
ac bere amari , guero eguin gogo çuena , gue-  
roco beguira egon gabe , egun beretic eguin  
ceçala , eritasunaren , eta heriotcearen , her-  
ituran iarri gabe , sendo cela berac bere escuz  
bere onac probey particiat cela.

Baiña ihardetsi cioen amac , orañ vñarcen  
den beçala.

Ene alaba iguricaçu oraño appurbat , ni  
çahartu naiz , farri hilenoiaiz , eta orduan guz-  
tiac cerorti gueldituco bairçaiz quitçu , ceror-  
rec eguiñen duçu placer duçuna . Errepuesta  
haur bere amac eman ceraucanean , lehiacu  
ceican bertiz alaba , erraiten ciocla .

*Non est admodum gratum o mater , Deo munus ,  
quod qui offert , ideo offert , quia illius usum suprema  
interdit dies .* Ene ama maitea , badirudi ecen  
erçäicala laincoari eder eta-ez placent , presu-  
nac , berac ecin goça deçaqueyen gauçaren e-  
maitea eta presentacea .

*Da domini sanas es , ne si moriens dederis , innita de-  
disse arguaris .* Emaçu beraz ama sendo çare-  
la eztiaguçuten erançute , edo erran eztiaga  
çuten , hiltceracoan emaiten duçuna , bort-  
chaz emaiten duçula .

Atraçoin hauc aditu cituencan amac , eguin  
quen alabaç nabi çuen guztia : eta bere hala ,  
gueroco beguira egon gabe , berac bere escuz  
partitu cituen bere onac probetara .

Suri. tom.  
to dia 33.  
septem. ia  
vita Sta. Lu-  
cis.

## 240 EZTI RELA OBRA ON VORONDATEZ

Orai hemen venturaz erranen du cenbaitec Beraz hunelatan, eriec bere eritasunetan, eta azquen ordenuetan eguiten diturzten legatec emaitzec, ezquentzec, erreminfinez eta bertzea obra misericordiazcoec eztute deus valio.

Bada ordea, orducoec ere valio dute. Ordea lehenecoa guehi ago. Hala erraiten du San Chritostomoc.

*Melius quidem fueris, multumque afferens fiducia, dum adhuc viniſ pau- pertati egenitum succurrere. Si vero iſtud nolueris ma tom 4. vel moriendo genero, um quid facies, id enim licet non multum habeat dilectionis, aliqua tamen est di- lectaio. Hobe ago, meritu ago eta bihotz ez-*

*portza garri ago baçatequeyen ere, cerotrec ceure escoz bici cinela eta fendo cinela probe aren faboratcea. Ordea guztiarequin ere, le- hen faltatu baduçu ere, ezteçaçula hiltceracoan bedere falta eguiçu, orduan cenbait-liberalitasun. Ceren orduan eguiten denac- ere, ez anhitz. bainā cerbait valiocodu, Iaincoaz orhoitzen çarela aditcera emanen du Guehienic osasuna duguiño, eta gueure escuz bainā guero ondotic ere, eta bertceren escuz ere daguigun ahai daguiguna. Mundn haur bideazeoen ostattua da, iragaitçaz gare hemen*

Gure seculaco ostattua, herria eta etchea, bertze munduan da. Eta nehorc bere herrira, eta bethiereco behar duen etchera igortzen ohidu aitcinetic ahal da-guiena, etabai guero deus guelditzen baçaica, bera dohanean, berquin ere eramaiten.

## COAC ONDOCOETARA VTCI BEHAR. 242

Hala eguin behar dugu bada guc ere. Orai sendo gareisio guehienic, bainha guero eritafunean, eta hilceracoan ere, eguin behar dugu ahal daguiguna. Igor deçagun aitcinetic, eta darainagungueurequin ere.

Bainha erremusinac, eta bertce obra on misericordiazcoac, eta vorondatezcoac vtciric, çeren espatia hetan hanbat peril, mintça gaitecin hurreneco capituluau obra iusticiazcoez, eta obligacionoz coez, eta dacusagun nola guztien gainetic hequen gueure escuz eguitera ondocoetara vtci gabe, garen obligatu?

*Nola obra obligacionoz coac, concientiaz gor ditugunac ondocoetara vtci gabe, cerorrec eguin behar dituguun.*

## Cap. XVIII.



Aldin obra misericordiazcoac, nola baitira probeen faboratea; bilucen beztitcea, gosse, eta egarri denari, iatera, eta edatera emaitea, bat bederac berac bere escuz, bici dela, irabaci handiric eguitecorz, eguin behar baditu: cenbarenaz berac bere escuz. Ondocoetara vtci gabe, eguin behar coitu obra obligaci nozcoac, iusticiazcoac,

**242 EZTIRELA OBRA OBLIGACION.**

eta concientciasz çor dituenac? Nolaz baitira ebatsien bihurtcea, çorten pagatcea, erauci dituen falso testimonioen satisfatcea, eta eraguin dituen caltén, etagaixtaquerien erremediatcea?

Baldin obra misericordiazcoac cerorrec ceure escuz eguiten ezpadituçu, eta ez bertceri ere eraguiten, eguiada, eztuçu orduan merecimenduric içanen, baiña ez beccatu mortalic ere. Ceren obra misericordiazcoac, hargatic deitcen dira misericordiazcoac, eta ez iusticiazcoac, ceren cenhaiit behar orduturstan, eta premiazcotan baice, ezpaicara obligatu hequen eguitera. Baiña obra iusticazcoetan, differentqui mintçatu behar dugu. Ceren hequen complitcera obligatu gara beccatu mortalen penan.

Eta eztuçu ez pensatu behar, ondoocoetara vtzteaz complitzen duçula. Ez eta ondooc heym, certçaz paga esleituric, bercciric: eta seinalaturic vtzten baderaeğen ere. Ceren nola erran comuna den beçala, otsoac ian baiteçaque ardi contatuetaric: hala çure ondoocoac ere gueldi deçaque beretçat, gue bertcerentçat seifialatuetaric. Eta certaco ibili behar çara seifialatce quetan, eta bertceri cargu eman quetan? Paga eçaku cerorrec, ceure çor duçunaz geroztic.

Errauen duçu, eztut ordea certçaz paga.

## COAC ONDOCOETARA VTCI BEHAR. 243

Baldin ezpaduę, ecinac eztu legueric. Onduan erçara obligatu pagatcera, pagatceco ahala duqueçun arteño. Ez eta erçara obligatu pagatcera, baldin hartceco dunac berac quitatcen baçaitu edo barccaten baderatçu. Are guehi ago, hartceco dunac, ez ecin bertcez edo bottchaz, bainha bere nahiz, eta vorondatez, iguriquitcen deratçunean, eta emaiten eppe, orduan luça deçaqueçu pagamendua eppe hartaraifio, bainha ez guehi ago. Paga ahal deçaqueçula, pagatu gabc, iabearen vorondatearen contra, onareneduquitcea, beccatu da.

Eta haur hain ongi aditzen da çor iaquinaz, eta aithortuaz, nola gauça ebatsiaz, eta ichilic eramanaz. Hain ongi pagatu behar da bata nola bertcea.

Eta, ezta ez asco aithorraren emaitea, eta ez guero ceure ordenuan, eta hiltceracoan, bihurtceco, eta pagatceco, gogo, eta vorondate içaita ere. Baldin ahal badeçäçü, cerorec bici çarela, eta ahalic, eta fitetz ena pagatu behar duçu ceure çorra, eta bai bihurtu ere gauça ebatsia, eta gaizqui eramanza. Ezta asco ondocoey cargu vtztea. Hala emaiten du aditcera doestor Nauarroc. *Decedentes e vita, cum possint & non restituant, sed legant in testamento, non securè decedunt.*

Hiltceracoan, beret paga ahaldeçä, queçclaric, pagatcen eziutenc, bainha

Nauar. in  
Manualis de  
restitutione,  
cap. 17.  
num 6.

**244. EZTIRELA OBRA OBLIGACINOZ-**

bere testamenteretara, ordeneretara, eta on-docoetara yezten dutenec, eztute ongi eguiten, eztira halacoac bere concientcietan mundu hunetaric segur partitzen, Guchi ago dio Doctor Nauarroc leccu berean.

*Qui alienum iniuste reinet, & scit, illud se debere, si expellat donec condemnetur per iniuriam, peccat mortaliter. Quidcum dela daquienac, eta iusticiaz condena deçaquerten arteficio, pagatu nahi eztuenac, beccatu mortal eguiten du.*

Batçuec beccatu badaritçate ere, gauça ebatxien pagatu gabe eduquitzea, ez ordea eztaritçate beccatu, çori aquinari, eta aithortuari luçatzea.

Erraiten dute. Badaquit, eta badaqui çot dudala, aithortzen diot, eztior yccatzen, eta badut pagarceco gogo, eta vorondate. Iduritzen çaitçu ecen baldin aithorra emaiten baduçu, eta pagarceco gogo baduçu, hain berizcez complitzen duçula.

Baiña enganatzcen çara. Ceren bataz go-goa bera ezta asco, eta ez aithorra ere. Ceren gure gogoaz, eta aithorraz ere probetchu güridu hartceco duenac, pagamenduric ezte-nean. Eta berriz bertcea, fendo dela pagamendua eguin ahal deçaqueyelaric, eri arteficio eguin nahi eztuenac, emaiten du aditcera, baldin eritasunicezpaliz, eta eritasunaconndoreric ezpalu, contu guri leidiqueyela. Eta:

## COAC ONDOCORTARA VICI BEHAR. 245

hala frogatcen da halacoetan : ceren eritasu-  
netic escapatcen direncan , iduritcen çaye  
ecen aldi hartaçotz , berriz eti arteño segur  
direla, eta quito.

## §. I.

**N**Ahiduçu çuc ecen çuc eguin behar cen-  
duen descargua , eta eguin eztuçuna  
çure ondocoac eguin deçan. Bada yste  
duçu, çure dirua edo hacienda, çuc ceure on-  
doocoari,ceure çorraren , eta obligacionearen  
pagatceco vtzten dioçuna,etçaicala çure on-  
doco hari ere , çuri beçain on , goço eta eder  
idurituco ? Eztuçu yste ? Eztuçu pensatcen .  
çuc beçala, harc ere bere demboran goçatu  
nahico duela ? Eta erranen ere bai bere  
baithan ? | Niri neure aitcinecoac vtcí de-  
rautan hacienda haur , nabasqui,gaizqui, eta  
bide gabequi beretacotua çuen , eta guztia-  
requin ere etçuen satisfatu , eta ezbihurtu,  
bethi berequin eduqui çuen. Bada eznaiz ni,  
hura baino obligatu ago. Eguia da, harc, nola  
haren ondocoaa bainaiz , manatcen nau bi-  
hurdeçadala; hala bada manatucodut nic ere  
neure ondocoaa.Baino bitartean ene aitcine-  
coac beçala,goçatu nahi dut nic ere, eta edu-  
qui neure demboran. Iccussaçu nola batac  
bertcea gana vtciz , ezten descarguric egui-  
ten. Eta nola halaber handic , eta halatan

### 146 EZTI RELA OBRA OBLIGACINOZ.

que e ure burua galteen duçun, eta ceure ondoco a ere galtececo periletan ibenteen duçun. Ceren peril baita, que baino que hiago eztu en harc ere descarguric eguien. Ha cenbat trentena, cenbat arima-cari, cenbat descargu dagoen eguien gabe, batac bertcea gana vtciz, eta guztiak vtciz.

Petrus D.  
ep. 5 cap. 8.  
& 1 feru  
à S. Anto-  
nino 2 p.  
sum. cap. 1.  
S. 5.

Ezta poneu hunetara gaizqui heldu Pierres Damiano daritzen Doctor batec contatzen duena. Dio doctor hunec ezen behin guion faindu batec iccussi quela bere espiritu anametsetan beçala, ifernuco swaren erdian escalera bat : eta escalera haren lehen pausuan, eta maillean cegoela Conde bat, iau handi bat. Eta gueto iccussi ci-tuela halaber çazpi Conde, ethorqui berrecoac, bata bertcearen ondoan, escalera hartan berean ceudecilla. Ceren bata bertcearen heredero, ondoco, eta elccarren onen primu, eta iabe içan baitciren. Eta lehen bicicoac gaizqui : eta bide gabequi beretacotu çuena, eta satisfatu gabe vtc : hala bigarrenac, hirur garrenac, eta çaspi garrenac ere vici baitçuen ezpaitçuen batec ere descarguric eguien : eta halatan guzeiac bata bertceari cerraitçala condenatu circen. Hala guerthatzen da bada egungo egunean ere iende batçuen artean. Eguiten diturçu ohoinqueriac, goraturic, eta borthaturic da-

## COAC ONDOCOETARA VTCI BEHAR. 247

dutçatçu bertceren onac : eta çuc , edo eztetu-  
 çu casuric eguiten , edo vtztendituç-çu  
 pagatu gabe ceure ondocoaren esperantçan ,  
 eta bai harc ere bercerenean , eta hala hala  
 bertceac ere : eta handic , eta halatan , batac  
 bertcea ganavtciz , eta guzti ec vtciz , vtzten  
 dira descarguac eguin gabe. Etçuen hala  
 eguiten Zaquo aberats harc erraiten que-  
 nean. *Ecce dimidium bonorum meorum do Lue 15:8*  
*pauperibus , & si aliquem defraudans reddo*  
*quadruplum.* Neure onen erdiac emaiten  
 derauzter probey , eta baldin nehor enga-  
 natu badut , bihurtcen dut laur doble.  
 Eztu erraiten , *dabo* , emanen dut , eztague-  
 roco mintçö , presentean erraiten du , *do* ,  
 emaiten dut. Eta baldin deus gaizqui era-  
 maitera guerthatu baçait , hura ere neure  
 escuz , bici naicela , eritu baiño lehen ,  
 neure ordeneretara , eta ondocoetara vt-  
 ci gabe , *reddo* , neure bihurtcen dut. Ha-  
 ja vorondatezco óbrac nola obliga-  
 cinozcoac berac bere escuz eguiten ci-  
 tuen. Eta hala eguin beharditu , norc ere  
 nahi baitu merecimendu handiric erdi-  
 eisi , eta bere concientia segurqui segu-  
 ratu.

Iracurtu içatu dut , ecen behin guiçon  
 batec cituela hirur aztore onac , eta fama-  
 tuac. Eta bere azquen finean , hetaric bata vt-  
 ci çuela çorbat baitçuen haren pagatceco

## BECCATUTAN EGON GOGODUNAZ 348

bigarrena seme bat baitzen, harendaco : eta hirurgarrena, arima-cari, meçatan emplegat- ceco. Eta guero handic fitz, aztore hetaric ba- ta, ioan baitzen airaturic, eta ez guehiago bi- hurtu; erran çuen semeac, ioancen aztore hu- racela, haren aitac arima-cari vtcí çuena. Etçuen erran, berarentcat vtcí çuena cela. Etçaitecilla ceure ondocoaren esperançan, eta barc eguiñen duen descarguan fida. Ceren baldin cerorrec bici çarela, ceure arimaz orai conturic eguiten ezpaduçu, eta ceure eguiñindun falta, ceure erremediatzen ezpa- duçu, ezteçaula pensa, eztaquicula iduri, guero çure ondotic çure ondocoac, çuc ce- torrec baño hobe qui eguiñen duela.

Guztioc nahi dugu salbatu, guztioc nahi dugu ioan parabisura, eta guztioc dugu espe- rantça, vanoa, alferra, eta iduriz probet- chu gutitacoa du, descarguac eguiteco di- tuelaric, eta berac eguiñ ahal ditça queye- laric, eguiñ gabe, ondocoetara vtzten di- tuenac.

Bat dugunean, bia nahiditugu; bia di- tugunean, hirur. Ongui edo gaizqui, çucen edo maccur, placer çaicu hartcea, eta ber- recea, bainha gaitz, eta gaitci gutitcea, etabihurtcea:hartan min hartzen du.

Bada min hartuko bada ere, bihurtu behar- da, satisfatu behar da. Eta hobe da batequin çoacin parabisura, hamarrequin ifernurz baino. Eta

**COAC, ONDOOCOETARA VTCI BEHAR. 249**

Eta hobe da halaber vtzdiacoçun ceure vmeati edo ondocoariguti, eta on, ecen ez anhitz, eta gaixto. Guti hec, ongui irabaci hec, descarguac eguiñic, eta nori berea errendaturic gueldituko çaitçan appur hec, sumatuco dira, berretuco dira, gurenduco dira; bainha bertce guztiec fin gaitz eguiñen dute: hetaric, hitur garren belhauneccoci guti goçatuko dute.

Iccuslaçu bada, eguiçu gogoeta, ea, çornic, edo bertceren onic, gaiçqui eramanic, baduçunz : eta hec obligacionzcoac baitira, eta ez vorondatezcoac, hec guztien gaiñetic, cerorrec bici çarela, ceure escuz, bertceren pefquiçan, eta esperantçan vtcigabe, pagaitçatçu, traunguitçatçu. Ceren halatan ceure vmeac, primuac, eta ondocoac peril handi batetaric atheracoituruçu : eta cerori ere, aitcinetic descarguac eguiñic, aisia handi batean, eta salbamenduco bidean, orai danic iarrico çara.

## 250 IYRAMENTVAZ, ETA IYRAMENTV

*Cenbat calte eguiten duen iuramentuac , eta iu-  
ramentu eguiteco usantqat , eta nola be-  
harden lehen baiño leben usaniga  
bura vici.*

## C A P . X I X .

**N**ola gure lehenbicico aita harc, gure naturaleça haur, bere beccatuaz narratu, arraçatu, eta eritoquitu baitzen, handic gara hain arrencuratsu, incirinatsu, eta on behar, Handic gara, ontasunera baiño gaixtatasunera, eroria goac, isuri agoac, eta eman agoac. Handic dugue adimenduan itsutasuna vorondatean malicia, eta memoriā flacotasuna. Handic helduda halaber, gueçur erraitea, elcarreñez sinhestea, eta fidantciagabe, bethi gogan behartsu ibiltcea. Cein baita calte handia, elccarren artean bici behar dute-nentqat: hain handia, non gogan behartsu, iduricotsu, eta fidantcia gabe bicitcea, ezpaita bicitce. Bada calte handi hunen erremediatceco, ediren quen Iaincoachide bat, cein baita iuramentua. Iecusten duçunean, etçaituztela sinhetzinahi, eta premia

## EGVITECO VSANTÇAZ.

252

dela finhets çairçaten, daguiçun orduañiuramenca daguiçun cin, eccardeçaçun ceure erranaren leccuco Iaincoa, gueçurric ecin derra queyena, eta gauça guztien berri daquienca.

Eta halatan leccuco harequin batean, eman, diaçaçuten ceure erranean fede, eta finheste. Hunetacotçat erran çuen Iaincoac berac. *Dominum Deum tuum timebis, & per nomen eius surabis.* deut. 6. Içanen çara ceure Iaincoaren veldur, eta eguiñen duçu, haren içenaz iuramentu.

Eztuçu eguiñen iuramenturic Iainco falfoez, ceren hartan bide gabe eguiñinisaçao eguiazco Iaincoari, hari dagocan ohorearen, bertceri emaiteaz. Ceren nola iuramentu eguiten duçunean, eccartcen baituçu Iaincoa, ceure erranaren leccuco. Ceren hura da iuramentu eguitea. *Iurare est Deum in testem adducere.* Eta hartan emaiten baituçu aditcera, Iainco hura dela eguiatia, eta gañça guztien berri daquienca, cein baita ohore handia Iaincoarentçat, ezta arraçoin emandaquion halaco ohoreric bertceri. Eta hala iuramenturic eguitorez, eguiazco Iaincoaz eguiñ behat da, eta ez bertcela, eta ez bertcez.

Eguiada eguiñ-diteque iuramentu, Ceruaz, lurraz, Sainduez, eta bertce creaturez ere;

Vide S.  
Thom s.2.  
q 89. art 6.  
ad 1.

## 252 IVRAMENTVAZ ETA IVRAMENTV

ez ordea hey Iaincoari dagocan ohoreric emaiten çayela , halaco agurric eguiten çayela , baiña Iaincoaren creatura beçala , eta Iaincoac heran parte duen beçala : halatan eguin diteque hetçaz iuramentu, eta ez bertcela.

Matth.7.  
Jacob 7.

Ordea badirudi ecen orai legue berriion , ecin eguin ditequeyela , neholatan ere , eta nehortçaz ere iuramenturic. Ceren Iaincoac berac erraiten du. *Ego autem dico vobis non iurare omnino.* Erran beçate bertceci nahi dutena , baiña nic diotshet çuey , eztoguiçuela neholatan ere iuramenturic. Hunen arauaz erraiten du iondone Iacue Apostoluac ere. *Ante omnia autem fratres mei , nolite iurare , neque per celum , neque per terram , nec aliud quodcumque iuramentum. Sicut autem sermo vester , est , est , non , non.* Guztiengaiñetic gomendatzen deratçuet neure anaia maiteac , eztoguiçuen , batere iuramenturic , ez ceruaz ez lurraz , era ez bertcez : baiña biz çuen hitzuntça , solhasa , eta mintçai:ez , ez , bai , bai . Beraz hunelatan , badirudi , eztela bat ere , eta neholatan ere iuramenturic eguin behar. Eguia da , hala dirudi , eta hala da. Ezta bat ere iuramenturic eguin behar , premiatric eztenean , eta eguiak bertcela frogatzen , ahal ditequeyenean. Baiña premiadenean , eta eguiaren frogatceco , bertce bideric eztenean , eguin diteque , eta eguin behar da iuramentu. Ceren iuramentua bere

## EGVITECO VSANTÇAZ. 253

ethorquiz, naturaz, era içanez Iaincoaren ohoratececo : eta bere finez, eta intencionez, eguiaren valia aracitceco, eta hau-cien, era differentcien iraunguitceco, eta ebaraquitceco ordenatua da. Halatan errai-ten du erregue Dauitec. *Landabuntur omnes* Psal.62. *qui iurare in eo.* Laudatuac içanen dira Iain-coaz iuramentu eguiten dutenac. Eta bádio iondone Pauloc ere. *Homines per maiorem sui iuram, & omnis controversia eorum finis, ad confirmationem, est iuramentum.* Guiconèc, berac baiño handi agoaz eguiten dute iuramentu, eta hequen differentcia guztien fina, eta ac-cabatcea, iuramentua da. Ceren iuramentura emanez guero, cin eraguinez gero, ecin date-que, guehi ago hauciric.

Eta halagauça ona, saindua, eta Iaincoac berac ordenatua da iuramentua. Ordea har-gatic, eguin diteque bai iuramentuan beccatu. Ceren gauça ona, eta saindua da gorputz sainduaren errecibitcea ere, ordea aditcen da, ongi, eta sainduqui errecibitcen denéan, eta ez bericela. Hala da bada gauça saindua, eta ona, iuramentua ere, ongi egui-ten denean.

## 254 IVRAMENTUZ, ETA IVRAMENTU

§. I.

Ierem. 4.

**I** Vramentuac ongi, çuentqui, eta behar den bidean eguna içaiteco, beharditu hirurgauça, hirur lagun, eta sosten gu. Egua, premia, eta çucena. Hala erraiten du Ieremias Profetac. *Iurabis vici  
au Dominus, in veritate, & in iudicio, & in iustitia.* Lehenbicoric, iuramentua behar da eguin, eguiaz, eta segurqui eguiaz, eta ez dudan. Ceren berteela eguiten den iuramentua, den gauçaric ezheudenaren gainean içan agatic ere, beccatu moltal içanen da.

Gueçurrez iuramentu baten egitea, unduac hala ezpadaduca ere, beccatu handia goa da, lagunaren onaren ebailea baiño, eta bai edo cein emazierequin parte içai-tea baiño ere, ceren iuramentuac, Iaincoa bera bere presunan vtquitzen du, baiñabertze beccatu haue, eztioite hain arras emaitzen, erçaitza hala hurbiltzen. Iben baleça Erregue batec leguea, eztioela nehorre ere biciaren penan, nehori behar - ondokeric emanen, eta guztiarequin ere, guertha balequio cenbaiti, emaitera cenbaitia Halacoac bide gabe eguin liaçao Erregue si. Ceren haren legue, eta manamendu

## EGVITESCO VSANTÇAZ 255

hautsi bairu. Baiña are ago eguin liaçao, baldin Erregue berati, bere presunan ethan baliaço. Hala da bada gueçurrez iuramentu eguitea : hartan Iaincoa bera bere presunan vquiteen da. Ceren Iaincoa icendatiqui, gueçurraren aithor, eta leccuco eccartzen baita: cein baita beccatu handia, eta it-susia.

Beraz hunefatan iuramentu eguiten duçunean, lehenbicico gauça, behar duçu eguin, ez gueçurrez, eta ez dudan ere, baiña vitez bedere eguiaz, eta eguiaren gaiñean.

Bi garreña, eguiaz, eta eguiaren gaiñean ere, ezta ez bere hala vanoan, premia gabe, eta aitcin-guibel behatu gabe, eguin behar iuramentua. Vslatu behar da iuramentuaz, purgaz beçala. Purga ecin bertcez, eri çarenear, premia duçunean hartzen duçu; eta orduan ere ahalic eta gutiena, eta berantena; eta baldin gabe, iragan alba cinedici, ezuque harc bere pareric, are hura hobe ago. Hala eguin behar da bada iuramentua ere, ecin bertcez, premiaz, ceure ohoreaz dihoatçunean, eta iusticiac harara çuentqui behartzen, eta errequeritzen çaituenean. Ceren bertcela, baldin, ez eta bai asco den leccuan, eguiten baduçu iuramentu, eguiaren gainean içan agatic ere, beccatu venial bedere eguienen duçu. Ezta edireiten eguin çuela

**256 IVRAMENTVAZ, ETA IVRAMENTV**

Ita S. Tho.  
2.2. quæst  
89. art. ad. s.

egundaiñio iondone Pauloc iuramenturic  
esquiribuz baiçen. Ceren esquiribatcen  
den gauça hobequi pensacen, eta confide-  
rätcen baita, berc hala solhasean errai-  
ten dena baino : eta bai halaber, halatan  
huts ere guti ago eguiten. Vñtcz bedere  
eguiaz, eta preniiaz behar duçu eguin iu-  
ramentua.

Hirur garrena : ezta ez asco, eguiaz, eta  
preniiaz ere iuramentuaren eguitea ; baiña  
eguin behar da gauça onaren, eta iustua-  
ren gañean, eta ez gaizqui eguiteco con-  
tuan. Eguiten duçunean iuramentu haur-  
si behar dioçula presuna bari burua, edo  
berce gaizqui bat eguin behar dioçula,  
beccatu eguiten duçu halaco iuramen-  
tuaren eguiteaz, eta aie beccatu ago ha-  
ren complitceaz. Eta baldin vñte baduçu  
edo sinhesten baduçu, obligatu çarela com-  
plitcera, hirur garren batez cargatcen  
gara.

Halaber eguiten duçunean iuramentu,  
cenbait onguiren ez eguiteco, probeari ez  
deus emaiteco, nñhorí ez deus prestatce-  
co, edo eliçaz. obligatu çarenean baicen,  
ez barutceco, beccatu eguiten duçu, ha-  
laco iuramentuen eguiteaz, venial bedere,  
eta eiçara obligatu hequen complitcera, eta  
hobe ez complinceas.

Halaber eguiç baititutu berce iuramentu

IURAMENTU EGVI TECO VSANTÇAZ 15,  
 batçuc, deus valio éztutén gauça batçueñ gai-  
 ñean ez paita hequen haurzceaz calteric eta ez  
 complitceaz probetchuric, nola baita, maha-  
 jan iartcean; etçarela lehenic iarrico, etchean  
 fartcean, etçarela aitcinean sarchuco : edatean  
 eztuçula lehenic edanen.

Hunelaco iuramentu hauquen eguitceaz, ez,  
 ta beccaturic behintçat mortalic, eta ez-com-  
 plitceaz ere. Iondone Petric erran baitcioen  
 cin cinez iurametu eguinic beçala, bere nabu-  
 siari, *Non lanabis mihi pedes in eternum.* Ezte-  
 rauz quidatçu seculâ çuc niti oinac garbituco  
 vici cerautçan, guztiarequin ere garbitcera,  
 eta etçuen hartan beccaturic egui. Ceren  
 hunelaco iuramen tu hauran, emaiten da adit-  
 cera gueure aldetic denaz beçan batean  
 cortefiaz, hala nahiguen duqueyela. Ordea  
 vtz ditçaquegu gueure baruac, beccaturic e-  
 guin gabe vençurcera, iondone Petric vici  
 çuen beçala.

Eta ceren iuramentu baçuc baicira presen-  
 teco gauçez, bertce batçuc ethorquiçunecocz  
 güztietan beharda eguja. Eta ethorquiçune-  
 coac, behar dira egui, gauça onaz, malici-  
 atic gabe, enganamenduric gabe eta complit-  
 ceco vorondatearequin : baldin complitceaz  
 enbait calte, nehorc lehen vste etçuenic, sort-  
 cen eta aguertcen ezpada : nola aguertu bair-  
 cen, Herodesec eguiçuen iuramentuan.

Ioan. 13.

**258 IURAMENTVAV RIA**

Herodesec , veuturaz gogoan gaitciec ercedo-  
cal , prometatu cioen , iuramentu eguinic  
nescatcha dantçari bat , emanen ciocla ,  
esca cedin guztia.

Eta oraino orduan , on cen iuramentua , or-  
dea guero escatu ceicapean iondone Ioannes  
Baptistaren buruaren,galdu çuen iuramentuac  
indarra etcen complitu behar.

Halaber badira bertce iurametuac , batçuc  
mehatchzcoac , eta bai maradicinozcoac ere  
aita amec bere vney era nabusiec ere becio  
sehiey , eguiten derausteçatenac . Hec gnz-  
tiac dira beccatu . Eta anhitz etan ere mehat-  
chuzcoac , complitceco vorondtaseric  
gabe , eguiten baditzte ere , eta maradi-  
cioneac ere ez hitzez baicen , ceren ezbailu-  
quete nahi halacoric , guztiz ere hequen vney  
guertha lequier.

Ordea guztiarequin ere guztiac dira bec-  
catu . Ceren batz , bertceac bertce direla ,  
handic iccasten dute vmeccere maradicino e-  
gotzten era burho eguiren : eta berriz bertceas ,  
ceren burhafoen maracioneac anhitz etan  
heltcen çaitze vney , eta guelditzen dira ma-  
radicatuac , Noeren semetaric bata maradica-  
tua , guelditu cen beçala .

## IVRAMENTVEGVITECOVSANTAZ 259

## § 2

**I**VRAMENTUAN den gauçaric gaixto ena , galgarriena eta perilosena , da.vsantça.. Preimle gabe eguiaz ala gueçurtez mintço den behatu gabe maquillaren permaticco eta por doinatceco vrrats guztiaz , escuan beçala iuramentuaren ere ahoan , hitz guztiaz minçatceco , erabilicca. Ez eta bai afco den leccuan erraiteaz eta ençuteaz bai laincoaren pasionea ez laincoaren odola , nor ezta iccara tuco.? Nori erçaitça buruco illeac latztuco. Behintçat badio Spiritu sa induac. *Loquela multum iurans horripilationem capiſſi ſtatuerit & irreuerentia ipſius obdaratio aurum.* Iuramentu anhitz eguireac , bethi burhoz minçatceac , latztein tu buruco illeac , eta iende prestuec , halacotic ez ençutea gatic , beharriac hersteintuzte burua bertce aldera itçultcen dute.

Intamentu anhiutz eguitea , bethi burhoz arneguz eta maradicinoz egoitea eta minçatcea ifernuco vsantça da , eta hitz cuntça ifernuan vsatcen dena.

Era noja bat bedera bere hitzeuntçan baita eçagun nongo den : Ftancesez mintço dena , franiaco dela : eta espiñolez mintço dena espiñiaco : hala da bada halaber bat bedera bere arneguetan eta iuramentuetan eçagun

Ecclesi. 27

260

## IURAMENTVAVZ ETA

Mat. 16

nongo den, ifernuoa dela. Eta nola iondone Perrisi bere nabusiez vecatu queneā, erran baitcioten. *Tu ex illo es, nam loquela tua te manifestum facit.* Eztuçu cer vecaturic, çu hetaric çara Iesu Cristoren dicipuluetaric çara cure mintçaien eçagun çara: Hala erran ahal daquidi caio arnegariari eta iuramentu eguiteco vñantça duenari cre. *Tu ex illo es.*

Qu ifernuco etaric çara ceure minçatcean, arneguetan, burhoctan eta maradicionetan eçagun çara. Ceren hori da ifernuco erdara, lengoiaia eta hitz cuntça, han eta hangoen artean vñatcen dena. Ifernuan daudenac, hango dolore handiac direla causa; hec ecin patratuz, bethi daude arneguz iuramentuz, burhoz eta maradicinoz. Hala eraiten du iondone Ioannes euangelistac. *Blasphemauerunt Domini cali pro doloribus & vulneribus.*

Apoc. 8

Eta nola parabisuraren direnac, vñatcen baitira eta hasten orai danic, hemen lurrean guero ceruar-reguinen duten officioaren egiten eta iccasten, Iaincoaren laudatzen: hala ifernuraco direnac ere, hasten dira, orai beretic, ifernuco officioaren eguiten, arnegatzen eta maradicino egortzen.

Iccusifico duçu, burhaoec eta nabusi-erche-coandrec, bere seme alada sehiac eta etcheco familia guztia, hargatic veltçuri bat ere, eguin gabe, eta hartan bat ere damuric hartzen dutela iduritic eguin gabe, nahi duten iu-

## IVRAMENTU EGUTEKO VSANTAZ 261

ramentu guztiene eguiteera vtzten dituztela. Hec eta halacoac dira Escriba Phariseoac beçala, ceñec consentitzen baitçuten, egun ciaçoten Iesu Christo gure salbatçailleari eta haren icen sainduari, hequen etchecoec eta bertze guztienc hanbat irri, eta escarnio.

Fin gaitz egun çuten hec, eta hala eguinendute, hala diren bertze guztienc ere. Ceren fernura ioaiteco señiale handi etaric bat da, uramentu eguiteko ysantza içaitea. Vsantza hura dutenec, aguian badute cenbait ahalque bertze beccatuen cofessatceco, bañia ez bat ere iuramentu egun dutela erraiteco.

Halacoac cofessatcera ethorcen direnean eta galdeguiten çayenean, ea cer beccatu egun duten, bere hala, senda gaillaz beçala, eta ohore bailliz beçala iura mētuac ibenceintuzte brancan, lehenbicico haztean. Ha Iaincoa çuc vquitçatçu, çuc erremedia itçatçu hala-coac, ceren bertcela e-guin du hequenac.

## § 3.

**I**Aincoaren beraren ohoreaz, eta haren icen saindu arena hain dabiltegatxelcar genic hurbil ecen baldin Iaincoaren ohoreaz ibentzen, bada lehen bicico manamendua, halaber haren icen saindu ari dagocanaz, minçatzen baita bigarrena.

Handia da Iaincoaren icen sainduari eccari

262

## IVRAMENTVAZ ETA

behar çaicán ohorea, eguiñ behar çaicán agurra, eta casan behar çaicán laudorioa. beraz huelatán, handia içanen da halaber eta itsufia icen saindu haren, vanoqui, premia gabe, eta egúiaz ala gueçturez mintzo den conturic eguiñ gabe erabiltceaz eguité den beccatua eta des cortesía. Baldin iccus baceneça ecen guion batec, meşa erraiteco Caliza aldaretic harturic hartan nori nahi den, agueri diren arloet, errumes eta bertce iende suerte guztiey emayten derauela cantoin guztietan edatera, cer othe cenerraque? Gutienean bacenerraque hura dela luthertasun handia, gauça itsufia eta eztaquicula, cer gaztigu ordena halacoari.

Bada baldinba gauça handi agoa eta ohore guchiago mereci duena da, Iaincoaren icen saindus, Caliza baiño.

Eta guztiarequin ere, eztaquicu, erraden moldean Caliza erabiltzen duenari, cer gaztigu ordena : cer ordenatuco dioçu bada Iaincoaren icen saindua, hain deblauqui, antisicabequi eta contu guti eguinik, erabiltceco vifantça duenari?

Iuramentu eguitea da, erraiten dugun gauçaren sinherz aracitceco, Iaincoaten leccuco deitcea, eccarcea, eta ibentzea.

Erà baldin erraiten diturenni hitz erguel guztietañ, dey baceneça Erregue bat edo iaun handi bat leccuco, mereci bacenduque eman lia çacuten edo cein gaztigu, cesen hu-

IURAMENTV EGVITECO VSANTÇAZ 263  
 ra bailliçateque halaco presunez contu guti  
 eguitea.

Cer merecico duçu, eta cer gaztigu içanen  
 da aracoin eman daquicán, hartaco bereco,  
 aippamen guztietaco, laincoa bera, Erregue  
 guztien Erreguea, eta laun guztien launa, lec-  
 cuco deitcen duçunean, nola deitcen baituçu  
 iusmentu eguiten duçunean?

Ecin erran diteque, cein handia den  
 hartzan Iaincoari eguiten çáican bide gabea:  
 eta beccatoreac berac ere, bere buruari garra-  
 iatzen dioen daimua eta caltea.

Hargatic erraiten du Spíritu saindoac. *Non Ecclesi. 25*  
*affuerat iuramento ostuum, multi enim casus in illo,*  
 Beguirautçu eztadilla çure ahoa iuramentura  
 vñar ceren anhitz casu, behatztopa eta peril da  
 hartzan.

Nola anhitz mintço denac, peril baitu ba-  
 tean ezpada bertzean, bere hitz etan hutz e-  
 guiteco, era errebetalceco, hala iuramentu  
 anhitz eguiten duenac ere, du peril cenbaic  
 iuramenturen gaizqui eguiteco. Hain peril  
 ecen iuramentu eguiteco vsantça duenac, be-  
 catu gabe, eta conturic eduqui gabe, noiz  
 mintço den eguiaz eta noiz gueçurrez, eta da-  
 goenean deliberatua eta prestic, eguiaren gai-  
 nean beçala, orobat gueçurraten gaiñeán ere  
 iuramentu eguiteco: Halacoac, hala iuramen-  
 tu eguiten duen guztiaz, beccatu eguiten du  
 eta ifernuco bidean bere burua ibentzen du.

264

## IVRAMENTVAZ ETA

*Handic Salomonec , ciaquienac beçala ,  
cenbat calte ceccarqueyen iuramentu eguite-  
Eccles. 23. co vſantçac , erran quen. Vir multum iurans re-  
plebitur iniquitate , & non discedet a domo eius  
plaga . Iuramentu anhitz eguiten duena , bet.  
heco da beccatuz età gaixtaqueriaz , eta ezta  
haren etchetic apartatuco plaga , han içanen  
da incontru gaitça , edirenен da behar eztena.*

Eta hala baldin contua ongi eduquijcen  
badugu , edirenен dugu , ecea presuna arne-  
gariac , are mundo hunetan ere anhitz incon-  
tru gaitz içaiçeduela eta arnegu hec direla cau-  
sa , anhitz bertce beccatutā ere erotcen dela eta  
azqueneā , alde guztiz fin gaitz eguiten duela

## § 4

**B**Ecattu handia da , eta probetchu gabe-  
coa iuramentua , eta iuramentu eguite-  
co vſantçac .

Oraiño ebastea edo emazte batequin partei-  
çaitea , ezta hain miretsleco , ceren hetan ba-  
da-cenbait probetchu edo placer . Bañia iura-  
mentuan ezta probetchuric , eta ez placeric .

Halaber gauça desohorezcoa era des-  
ohora garria da iuramentua . Ceren hitz guz-  
tiaz iuramentu eguiten duenac emaiten du ad-  
itceria , gueçurtia dela ; eta haren erraney lec-  
cucoric gabe , sinhesteric ecin eman daquidi-  
quyela . Nola baldin guicon batí , erraiten  
dituen

## IVRAMENTVE GVI TECO VSANTÇAZ 265

dituen hitz guzietan nehor contra balequio, eta erran baliaçote, etçaitugu sinhesten, eccartçu cenbaiz leccuco, desohore eman baillia çaiote. Hala hitz guziaz iuramentu eguiten duenac:eta iuramentuez bere erranac frogatu nahi dituenac ere, emaiten dio bere buruari desohore. Ceren icussiric eziela bera sinhesteco, eccartcen baititu leccucoac, ceio baitira iuramentuac, hequin batean sinhetz deçaten amoreac gatic.

Iende prestuec damu hartcen dure, hequen hitz simpleati sinhesta emaiten etçaicanea, eta iuramentu eguitarra, nehorc behartceu dituenean. Eta baldin qu hala behartcen baçaituzte ceurc duçu falta, cerori çara causa. Hala erraiten du San Crisostomoc. *Tu horum causa* Cris. hom. es, qui tam prompe & facile iuras. Ceren hain <sup>9. in at a-</sup> plesqui eta erraxqui eguité baituçi iuramen post. com. 3 tu, halatan hain maiz hattara behartceu çaituzte. *Quod si hoc non esset, sed omnibus esset manifestum, quod non iures, credemus dicenti, quod vel solo manu plus crederetur tibi quam ijs qui multa iuramenta dederant.* Munduac balecula eztuçula bat ere iuraméturic eguiten eta ez gueçur ric erraiten bañia bethi eguiaz mintço çarela, eta fauna harcan baceneunde, sinhetz naçaçu, dio San Crisostomoc, ecen orduan çure hitz, simpleari eta bakhunari, eta are kheinuari, eta aieruari ere, sinheste guehi ago eman lequidicaiola, anhitz arnegu eta iuta-

Chry obie

S

## 266 IVRAMENTVAZ ETA

mentu eguiten duteney baitño. Baiña nola baiçara gueçurti eta fama hartan baitgaude, halatzen etçaituzte sinhesten: eta halatan cerotegere, ceure gueçurrac sinhetz araci nahiz, hanbat arnegu eta iuramentu eguiten duçu.

Baiña cenbatenaz eta çuc iuramentu guehiago, hanbate naz níic guti ago sinhetz. Ceren gueçurraren erraitera herabe ezzenac, ez zu gueçurraren gañiean iuramentu eguitera ere herabe içanen. Eta behin gueçurrean frogatz guero, nola iende iuramentutsuac maiz frogatzent baitira, etçaye handic harat halacey, sinhesteric emaité Ceré haur da gueçurti: aré gazngua, eguiia ertaité duená ez tadin sinhetz. Eta ez zu mereci ere sinhetz dadin. Ceré erran cónmuna den beçala otharre bat eguiten duenac eguiñ dirçaque shú ere gueçurhat errialren duenac baderraque guehi ago ere.

Iondone Paulo Apostolua, munduac da, quien beçain finiqui convertitu bacen ere, eta sainduasun handi batequin hafi predicaicen guztiaquin ere, Ierusalemera cen lehenbicio-ko aldian ihesi cihoazcon bere lagun Apostolua, erceitçan fidatzen, ceren vste baiçuten ecen lehena cela, eta lehen beçala, hequen contra cebillala.

Hala da bada gueçurtia, behin gueçurrean frogatu dena eta bai edo cein bertze faltatan erori dena ere.

Etçaina handic harat halacoari verandurai-

## IVRAMENTV EGVITECO TSANTÇAZ 267

ño appur bat froga arteño sinhesteric emaiten  
eta ez emau behat ere,

Ez era eiçaina absolbecinoric, era barcca-  
mèduriç eman behar, behin, biatan, eta guehi-  
agotan bere iuramentuen, eguiteco viançza  
gaixtoa vtico duela cofessorari prometatzuz  
guero, bat ere vtci gabe, bere leheneco vsanc-  
çarequin berriz cofessaccerabihurtzen dene-  
an.

Nola amorante arequin dago ena, edobert-  
cerena ebatliric daducana cein absolba ba-  
titeque amorantea vtz arteño edo berricerena  
ahal badeça, bihur arteño. hala iuramentu  
eguiteco vsantça duena ere, ecin absolba dire-  
que vsantça harequin dagoeitño, haren vtzter-  
ra enseia ditequeyen arteño. *Quia tunc est in  
statu peccati.* Ceren orduan beccatuaren ego-  
itçan estatuan era toquian baitago.

Eta hala pensa beçate cofessorec cer hari di-  
ren haloac belhaunetara ethortzen çaztene-  
an, ceren eztira eguiteco gabe.

Eta badirudi hoberena liçatequyela, behin  
eracustea eta aditcera emaitea cein peril han-  
dian dauden; eta guero appurbat absolbacio-  
noaren luçatcea, eta erraitea dohacilla eta bi-  
hur ditecilla handic amorz egunen buruan;  
eta bitartean enseia ditecilla bere vsantça gaix  
toaren vtzteria. Era gueso bihurtzen direnean  
edirenten bada bat ere vtci dotela era vtzteria  
enseiatcē direla orduá absolba era ez bertcela.

268

## IVRAMENTVAZ STA

§. §.

**H**A Iainco handia helas, cer içanen da  
bada nitçaz? Ene mihi guzria da iura-  
mentu eguiteco všantçan barrena satrhu, guz-  
ria da hartara emana, eztaquit bertcela min-  
çatcen. Cer eguiten dut bada? Nola erre-  
mediarico naiz? Adi eçaçu cer erraiten duen  
pontu hunen gañean San Crisostomoc. *Ma-  
lam iurandi consuetudinem ab ore nostro auferamus  
franum imponamus lingua. Nullo bic sumptu opus  
est, nullus labor exigitur, non indiget magna tempo-  
ris mora exercitatio, sufficit velle & totum factum  
est res enim hec à consuetudine penderet.* Iuramentu  
eguiteco všantça ahotic x hendeçagun, mihi  
brida deçagun: era nahi badugu, baaidigu.  
Ceren ezta, hartaracotçat, bat ere gasturic  
eguin behar ez trabailluric hartu, era ez dem-  
bora anhitz emplegatu. Asco da nahia, eguin  
da hain bertcez, ceren eguiteco haur všantçan-  
tic helduda. Viatu çara anhitz minçatcen,  
hitz guziaz iuramentu eguiten, vſat çaiteci  
bada orsi aldz iuramentuen vtzen. nahi ba-  
duçu, baaidiqueçu, eta baldin eguiten, ez-  
padugu, scinale da, eztuçula nahi. Erranen  
duçu, nahinuque bada eta indaçu cenbait erre-  
medio, Lehenbicico erremedioa da, hartcea  
goicean gogo era vorondate fin bat, delibera-  
mendu deliberatu bat, egun hartan iuramen-

Chrys. Ho-  
26 ad popu-  
Anthon. to.

5.

## IVRAMENTV EGVITECO VSANTÇAZ 269

turic ez eguiteco , mihiaz contueduquicceco  
Eta baldin halartic ere guerhatcen baçairçu,  
hutz eguitera eman ceure buruari cebait pena  
bulharracio erran Iesus edo eguiñ cebait obra  
on. Eta orduan hala enseiaccen çarenean,ceure  
nabi gaberic , vsantçac errequerituric,cenbait  
iuramenturen eguitera , mihiia ljmburicen ba-  
çairçu ezuğu haria beccaturic. Cerē hora guz  
ua dateque vsatçarena eta ez voródatearena,

Bi garren erremedios , iuramentu eguiteco  
vsantçaren vrtzeco , da erraitea , iuramentua-  
ren orde, iuramentuaren leccuan. Bai segur ez  
segur hala da ezta hala : eguiñ erraiten derat-  
çut , sinhetz naçaçu : eznacaçula guehiago-  
tara behar. Hunela minçatcen , cen gure sal-  
batçaillea. Amen amen dico vobis. Eguiñ egui-  
az erraiten deratçuet. Hunela mintça çaité  
bada çu ere , eta çaudé iuramenturic eguiñ  
gabe. Eta baceneundeque , baldin iuramēturic  
eguiten ezcuçup egunean , hamar ezcuturen  
irabazreco segura ntçabacendu. Bada baldin-  
ba , çure arimac , hamar ezcutu baiño guehia-  
go valio du.

Bihoa beraz vrrun , iuramentua eta iur-  
mentu eguiteco vsantça , ifernuco hitzcun-  
ça beccatu idorra , goço gabea, arimaren galt-  
ceco baicen deuz valio eztuena. Eta bethor e-  
gun beretic gueroco luçatu gabe , eguiñ iaz min-  
çatceco, eta iuramentu guzciac vrtzic , ez eta  
bai ez segur bai segur erraiteco vsantça eta az-

## 270 COLERAZ ETA ETSATGOAZ

tura. Ceren , bertcela minçatcon çaren  
bitartean , iaquiqu ecen peril handian bici  
çarela ifernuco bide çabala daramaçula, eta  
azquen finean eguitoco 'handitan içaneñ  
çarela

---

*Combat calte eguiten duten colerac eta etsaigoac,  
era nola behar den ; lehen bainoleben eisai  
goatic campora.*

## C A P. X X.

Gedeari

**B**EHI ere, lehenbicititic harru dugun  
chedeari , ahal beçanbat , aurihis  
quitcen dioguela, hari iarrailquitcen  
gatçairçala , hartara destatcen eta  
encaratcengarela edirenén dugu guie guero  
hunec presuna herratsuen, erriéatsuen eta has-  
serre corren artean ere, baduela bere ostarua  
eta iorlecua , heran ere calte handiac eguiten  
dituela. Ceren adisquide batequin hautsten  
duçunean , baldin bere hala , osatcera eta bat  
eguitera enseiatcen ezpaçara , iaquiqu ecen,  
guero era guero gaiteiago içanen çateçula,  
guibelatuco ago , vrtunduco ago eta ezant-  
fiatuco ago çarela , Halaco moldez ecen  
San Agustinec dioen beçala. *Sicut festuca  
erexit intrabem sic ira insuerata fit odiorum. Landare-  
rea çuhaitz beçalo , haslerretta luna ere egui-*

August ho  
mili 5

## COLERAZ ETA ETSAGOAZ 271

ten da gantz erizcoa. Huenen arauaz erraiteen du Senecac etc. *Optimum est primum irutamen, tum ira proinus spernere ipsi que repugnare formibus.* Gauça ona da coleraten lehenbicico narritamendua, mugidari eta abiadurari beguiareneduquitcea haciharen hozitcetic, soicetic eta bihitcetic beguiratcea. Hargatic erraiteen du londonç Pauloc. *Sol non occidat super iracun diam vestram.* Ezcadilla iguzquia eror quen hasserretasunaren gaifiean. Erran nahidu. *Non duret usque ad occasum solis.* Ezteçala ira- un iguzquia far arteñuo : etçoaztela. oherat, mendecatceco desirarequin : accaba differentiac iguzquiz iguzqui. Caren bercela su triplia handitzen den beçala, differentiac ere appurbana handituco dira, eta behin handituz guero nequez tripluco eta traunguico dira.

Nola gueure gogaraco gaucequin naturalqui bozten eta alegueratcen baicarahala desgogaracoequin eta contracoequin tristetzen eta hasserretzen gara. Hain hasserretzen ecen ecin baicarateque orduan behintçat haraguiaren arauaz, coleratu gabe, fencicotu gabe eta mendecatceco desira gabe.

Nola airdia otsaoren iccusteaz larzten lartitzen, assaldaicen, icitteen eta iccaratcen baita; hala egunten gara guere etlatarequin batceaz eta incontrateaz.

Orduan haraguiaren arauaz ecin garateque, hasserretu gabe, min hartu gabe, eta

Sene lib. 2  
de ira cap.  
8.

Epges. 4.

Glos.inter.

S 4

## 272 COLERAZ-ETA ETSAGOAZ,

barrenean iraquitu gabe. Hunen arauaz ertai-ten du San Crisostomoc. *Caro quidem diligenter inimicum non potest, quia dilectio, vel odium carnis, in sensu est, anima vero in intellectu. Propterea anima quidem secundum rationem versatur, caro autem inuertibilis in passione tenetur.* Haragiak ecm onherz deçaque bere elsaia, eta ez sentitu gabe vtz, eguiten çaicán bide gabea eta desarraçoiña. Bai ordea arimac onherz deçaque. Cerenlarimac libertatea du, bere burua bere escuco du. Baifia haraguiac eztu libertateric eta ez bere burua bere escuco.

## S. 1.

**N**ola baitira bi gaitzerizcoa, bata naturala haragoiarena, eta bertcea librea vorondarearenahala dira halaber, bi ñherizte eta amorio, bata naturala haraguiarena, eta bertcea librea vorondarearena. Gure satbat çailleac içan çuen heriotcearen alderacorçat gaitzceriz coa naturala, naturalqui gaitz ezten çuen heriotcea, haraguiaren arauaz etçuen hil nahi. Eta halatan egun cioen othoitx bere aitari, erraiten ciuela. *Pater si possibile est transeat à me calix iste.*

Aita baldin posible bada, iragan bedi ene ganic Calixa hori: eztecadala nic heriotteric errecibi. Ordea gaitzerizcoa natural hunequin içan çuen amorio librea.

## BERE BVRVA BERE ESCVCO. 273

Ceren librequi, vere nahiz, era vorondatez hilicen. Eta hunetan da agueri badiratueyela elccarrequin gaitzerizcoa naturala, eta amorio librea. Baduquegu etsaiaren alderacorçat gaitzerizcoa, onherizcoa-requin. Eta gaitz erizcoa librea, cein barra vorondatearena, da comunzqui beccatu, eta ez naturala, cein baita haraguiarena. Gaixto batec hilderatçu ceure aita, cerorri ere egun deratçu milla pensu asmu falso, eta malicia: hequen arauaz cein çarateque, gaitzerizcoa naturala gabe. Ordea gaitzerizcoa natural harc, ezteratçu amorio librea edequitcen, eztu vorondatea gaitzestera bortchacen, eta ez gaizqui eguiile hari bareatcetic, eta ongui eguiteric debecatcen, har-gatic libre da çure vorondatea.

Eta halatan anhi zetan ere, eguiten diogu, gueure gaizqui eguileari ongi. Eta halatan halabér etsaiaren onhesteco manamendua, eman cioen la ncoac arimari, eta arimaren bothete libreari, vorondateari, eta ez haraguiari, eta ez haraguiare appetituar. Eta hala bide gabe bat eguiten deratçutenean, ethortcen baitçaitçu alde batetic, mendecatceco, eta ordainaren bihurtceco mugida bat, gutticia bat, eta desircunde handi bat. Eta berriz bertce aldetic, gauça ongi consideraturic, eta aitcin guibel behaturic, guibelarcen baitçara, mendecatce hartatic: Orduan haragui

## 174 COLERAZ ETA ETSATGOAZ.

Chrysost.  
Hom. 13.  
T.2.

hafferretcenda, eta ez arima. Hala erraiten du san Chrysostomoc. *Quando ergo homo irascitur, & non vult facere quod ira compellit, caro eius irata est, animus autem non est iratus.*

Eta haur da arimaren, eta gorputz aren, spirituaren, eta haraguiaren arteco guerla perilosa, eta victoria lorirosa, batac, gaitz esten duena, bertceac onhesten baitu.

Haraguiaren gaitz erizcoa naturala, haraguiaren lehenbico mugida. *Primus motus,* haraguiaren hafferretcera, eta mendecarcera laburzqui, eta consideracione gabe, oldartze, eta abiadure hura, bera soilqui, eta baccaratic, ezta heccatu. Beccatu içaiteroraz arraioñiac behar du leccu eta parte, vorondateac behar du deliberatu, eta consentiu.

Areguchiago erran nahi deratçut, vorondatearen deliberamenduarequin, eta consentimenduarequin ere, hafferretcea, ez dela beathi ere beccatu. Aitzicic hafferretceaz beçala, ez hafferretceaz ere egun diteque beccatu. Nola arraioñaren contra, eta bide gabequi hafferretcea, eta mendecu bilha ibiltcea, baita beccatu: hala halaber, hafferretu behardenean, eta hafferretceco occasinoa denean, ez hafferretcea, da beccatu. Hala erraiten du san Crisostomoc. *Itaque non solum non peccare, qui cum causa irascimur, sed e contra, nisi irascantur peccant.*

*Quoniam patientia irrationalis, ut etiam seminatur.*

Chrysost.  
Hom. 13.  
T.2.

## COLERAZ ETA ETSAGOAZ. 275

*negligentiam nutrit, & non solum malos, sed etiam bonos innitat ad malum.* Ez haslerretceac, sobera pacient içaiteac, faltèn dissimu latceac, ez icussiduri eguiteac, eta ez gaztigatceac, emaiten du occasino, falta guehi ago eguiteco, egumetan laquetceco, eta gaixtoen beçala, onen ere gaixraqueriara conuidateco.

Haslerretu behar denean ez haslerretcea, senticortu hehardenean, ez senticortcea, be-thi bat, bethi vli, lolo, malba, eta bare içaitea, eztheustasunada, eta ez guicon rasuna. *Sicut* 3. Thom. 2. exessus ira est malus & virtiosus, ita moderata ira 2. q. 158. defectus à instareprehensione & paccati labore non est immunit. Dio san Thomas ec. Nola sobera haslerretcea baita beccaru, hala halaber guti egui, eguitea ere, ezta hoben gabe.

Arraçoiñarequin, intencione onez, eta inflaciaren arauaz haslerretcea, eta hala haslerretutic, hala gaztigatceco, desira içaitea, gauça ona da, eta saindua, Hain saindua, ecen er-taiten baitu san Basilioc.

*N*eque enim si contra nequitiam desiri indignatio & ira, satis eam odio, quo docet, per se quoniam poteris. Haslerretu gabe, appurbat bedete koletan jarri gabe, eta bere baishan pitztu gabe, eztira gaixraqueriac alfo fintqui gaztigatcen, eta ez obra onac ere alfo cinequi eguiten. *N*eque damus aliter discipulam filiu, nisi aliquantum irascendo ( dio Basil. Ho. null. 9. de ira. August. de Vcr Dom. Hom 16. T. 10.

## 276 EZTV LIBERTATERIC STA EZ

san Agustinec.) Eztu aitac bere semea, bere sosegua dagoela gatzigatzen, eztio begui a bihurritu gabe, cer egui behar duen, eracu sten. Beharda behar, behar denean, Khat ap purbat ailtchau, behar da, coleratu, eta haf ferretu. Halatan du aitac escu, eta bohere, semeari gogorqui minçatecco, eta bai cargu dunac ere, bere carguoen contra, huts egui na dohacinean iaiquitceco, eta hafferretceco. Hala hafferretu ciren Moisen, eta Matatias, Idoloac adoratzen cituztenen contra. Hala gure salbatçaillea ere erreçucitatutu ce nean mintçatu ceyen gogorqui bere discipulu batçuey, deitzen cituela adimendu gabe ac, eta sinhets gogorrac.

*Luc. vltimo ad Galat. 5.* *O stulti & tardii corde ad credendum.* Hala Iondone Pauloc ere mehatxatu cituen Galaciaco iendeac, erraiten cerauela. *O insensati Galaihe qui vos fascinavit, non obedire veritati?* Ha Galatar centçu gabeac, norc ethoru, eta lituratu çaituzte, ezpaituçue orai, lehen beçala, eguija obeditzen, eta sinhesten? Hitz hauc desohorezcoac ciren Galatarrençat. Ordea ceren bihotz onez, eta intencionc sainduz erranac baitciren, etcen bitartean beccaturic. Haur da san Agustinec ere erraiten duena. *Non irascitur fratri, qui peccato fratris irascitur.* Ezta anaiaaten contra hafferretzen, anaiac duen beccatuaren contra hafferrentzen daga. Halacoac beccatua gaitz esten-

*August.lib. 1.Rhetor. cap.13. T.1.*

## COLERAZ ETA BTSAI GOAZ. 277

du, eta ez beccatorea. Eta hartan eguiten du midicu batec edo barber batec eriarequin eguiten duena. Barberac penatzen du, ebaquitcē du odol husten du, etfsai bat beçala era-biltzen du. Ordea ceren hura guztia eritasunaren contra eguiten baitu, eta ez eriaren; ez intencione gaixroz, bañua amorioz, eta sendatceco contuan, halatan harc eguiten ducen guztia estimatcē da, eta hartzent parte onera. Hala behar dira bada halaber arraçoiñaren arauaz, intencione onarequin, faltēn erre-mEDIATECO, eta beccatu en eritasunetic sendatceco vorondatearequin, eguiten di-zen liscarrac, ahacarrac, mehatchuac, eta erançuteac ere, estimatu, eta parte onera hartu.

## §. 2.

**O**rdea beguira beu bat bederac, becca-tuen contra hassetretcen denean, sobera hassetretcetic, amorioz, eta vorondate onez eguin behar duena, coleraz, eta mendecuz eguitetic. Ceren aita-anèc, predicariec na-busiec, etabertceren escolateco, eta gouernatceco cargu dutenec, eztute cargu hartan halaco moldez quechatu, eta iraquitu behar, Guejaca, nongaiñez eguin deçaten, eta amorioa desa-

## 278 COLERAZ ETA ETSATGOAZ.

Psalms. 4. morio, eta gaitzerizcoa bihurdaquien. Har-  
gatic erraiten du Prophetac. *irascimini & nolite peccare.* Hasserre çaitetze, eta ezta-  
guiçuela beccaturic. Hasserre bai, ordea  
neurri, pacientciaren chedea, eta marra  
iragan gabe : faltari bai, bainha · faltaren  
iabeari herrarie, eta alhercunderic eduqui  
gabe.

Ceure vmea edo cerbitçaria, corrigitu,  
emendatu, eta centçatu nahi duçunean, an-  
hitzetan ere, cerori iartcen çara, cença be-  
harrean ago. Ceren cençatce hartan ceure  
vmeari eracustean, hain asserretcen cole-  
ratcen, eta ceure cençutic, eta pacientcia-  
tic ilquitcen çara, non anhitz arnegu, eta  
juramentu egunie, azquenean, çure vmea-  
ren, eta cerbitçariaren falta baiñio, çurea han-  
diago guerthaiteen baita, eta cerori erremer-  
dia quiçun ago, eta centça beharago iartcen  
baitçara.

Bada ez bertcelabainha, arraçoifiaren, eta  
justiciaren arauaz, eta noron contra hasser-  
retcen bajigara, haren ontasuna gatic, eta fal-  
tén erremediatcea gatic, neurri hasserret-  
cea, gauça ona da, eta saindua. Eta molde  
hunetan hasserretcea, deitcenda. *Ira per Ze-  
lum.* Zelo onczco hira, amoriozco hasserrea,  
ongui nahizcoa. Bainha bada bertce bat, vo-  
rondate gaixtozcoa, mendecuzcoa, ez becca-  
tuaren erremediatceco, bainha beccatoreari

## COLERAZ ETA ETSAGOAZ. 279

berari, gaitz eman nohizcoa Cein deitce baita. *Ira per vim.* Viciozco hira, beccatuzco haserrea, arraçoñaren contracoa, intencione gaixto tocoa, soberaniaz coa, gainez eguina.

Hunetaric, hunela gainez eguitetic, sobera haserretcetic, eta coleratceric, sortzen dira calte handiac, liscarrac, hitz gaixtoac, iuramentuac, differentiac, hauciac, gaitzerizcoac, heriotzeac, eta bere buruen, eta bertzen galteac, eta eguitecotan ibenteac.

Anhitz gaucac eguiten derauca guirisinoari gaitz, eta calte; eta hetaric bat da, eta are buruçquietaric, hira, colera, haserretasuna, mendecatcco desira desordenatua. Hunec arima, eta gorputza çaurtceintu, hunec biac etirceintu, egunaç laburtceintu, eta muga baiño lehen, illeac ere vrdintceintu. Halaz emajiten du adicera Spiriitu sainduac. *Zelus Eccles;*<sup>36</sup> & iracundia minuit dies, & ante tempus senetiam adduces cogitans. Hunen arauaz, eta ereduz erraiten du Senecac ere. *Vitanda* <sup>Senec. ep.</sup><sup>37</sup> est ira, non solum moderationis causa, sed sanitaris. Beguiratu behar da sobera haserretcetic, alde eguin behar çaina hifari, beguia eduki beharçaina colerari: eta ez, ez, prestuqui, eta onhetsqui bicircea gatic bera gatic, baiña bai gorputzeco osasuna gatic ere. Ceren haserreta sunac, mendecatu nahiac, barreneco, heguingoac, iraquidurac, ludigoac, gorrokuac, colromibac.

## 280 COLERAZ ETA ETSAGOAZ.

eta herrac, arimari, eta gorputzari eguité de-  
raue calte, biey fenti aracitcen deraue, biac  
eritecintu.

Eta halatan presuna hirosaç, erreac, eta  
hasierrecorac, ez ohidu, begui orde anhitz  
higarcen, eta ez comunzqui bere vinèn vime-  
ric ere, bere ingurunean icusten. Ceren bero  
barreneco coleraren suac, eta iraquinac, er-  
rai guziac erratcen, elccortcen, eta idortcen  
baiterautça. Eta hala icussico duçu, bere  
eguitez iauzcor, eta mendecos diren presu-  
nac, baldin bere hala bere desiré arauaz mēde  
catcen ezpadira, egosten, eta deseguiten dire-  
la. Eta baldin halaber mendecatcera, eta es-  
cuen odolztatcera guertha badaquie, guero  
ondotic doluntiac, eta atsecabezta tuac da-  
biltçala. Halaco suertez, ecen nola nahiden  
dela, nahiz mendecaturic, era nahiz mende-  
catu gabe: nahiz bere gogoach histuric, eta na-  
hiz histu gabe, ezta halacoentçat damuric,  
atsecaberic, eta assalduric baicen.

Vide Chry. fol. 4 T. 3. Eta ezpere behaiçoğu hasierretua dabil-  
lo. Ian batí, nola mintço den, nola ahotic habui-  
fia darion, beguietaric iharrac iauzten çaitçá,  
lurra ostico ioiten duen, ethortcen çaitçan  
arartecoez eztuen conturic eguiten: eztioen  
nehori ere ohoreric eccartcen. Aitcitic erho-  
batec beçala, aitcin guibel beharu gabe:  
ethorquiçunaz contutic eguingabe, guziac  
gueçurztatcen dituen, desohoratcen dituen:  
bulc-

## COTERAZ ETA ETSAGOAZ. 281

bulccarcen dituen; hil nahi dituen. Behai açoğu bada halaco batı, eta centça çaité haren baithan. Ceren iaquığu ecen cerori ere hafferre çarenean, hala çarela, erho çarela, itsu çarela, hordi bat beçalà irri gatxi çarela.

## §. 2.

**P**Resunac hafferre deneá, badirudi, eztirudielahena. Hargatic ausarcen cituen Platonec bere discipuluac, har ceçarela, hafferre cirenean mirail bat bere aitcinean, era hartan iccus citçatela bere buruac. Eta er-  
raiten du Senecac ere. *Quibusdam profuit Fulgentius;* Senec. li. 2. *aspexisse speculum, perturbavit eos tanta mutatio de ira cap. 36.* Batçuey on eguin içan deraue, hafferre cirenean, bere buruen miraillean iccus teac. Cerenhanda eçagum, nola coletac bat bedera muhatacen; eta lehen cena eztirudielahibentcen duen. Eta badio san-Crisostomoc ere. *Quod si iratus se ipsum intueri posset, nulla alterius Chrysostomus;* indigeret admonitione, nihil enim irato turpis. Hom. 25 in Baldin presuna hafferreac, hafferre denean, iccus albaleğä bere burua, ezluque, ez berriz. hafferretceco, bertce ausuré beharric: Ceren orduan hain da itsusi, non itsultasun harc berac, beguirabailleqaque, aitcinerat guehiago hafferretcetic. Coleran dagoenahant er-

T

## 282 COLERAZ ETA ETSATGOAZ.

hoqueria eguiten du, eta erranten, non hari berre placerera beha dagocana , ahalqueren baita erhoqueria hequen iccuseaz, eta enquetteaz.

Eta halacoac berac ere, bere baithara dadi-  
nean , (ceren coleran dagoena eztago bere  
baithan) norc erranen du , cenbat dainu , eta  
atsecabe içanen duen ? Cein ondore gaixtoa  
edirenen duen ? Cein on.-behar, eta triste gueil-  
dituco den ? Orduan gogoratzentz qaiaca, iccuñi  
dutela bere adisquidèc , eta bai etsaiec ere,  
guztiac beha egotu çarçala : Eta harc bere  
coleran egun dituen desordenuez , eta er-  
hotquieriez , adisquidèc hartu dutela damu ,  
eta atsecabe , eta etsaiec atsegurin, eta placer.  
Orduan erreco da bere baithan harrena , des-  
pitatuco da , tristetuco da , malenconiatuco  
da. Eta guztiz ere , baldin bere haslerre har-  
tan, colperic egun badu , barber behartean  
nehor ecarti badu, edo bere hitzetañ, nehorc  
bahiric hartu badio. Han dira cinac , eta mi-  
nac , han dira quechadurac , icerlecac , hats-  
beherapenac , intcirinac , eta maradicinoac.  
Orduan iartzen da bere buruarequin gogoe-  
tan , erraiten duela san Crisostomoc dioen  
beçala. *Et quid mihi pugna opus erat ?*

Quejadu-  
tac.

Chrysost.  
Hom 4.  
Tom 3.

*Quid in imursu ? Quid conventionibns ? Hec  
& illa pereant , & his omnibus terrenis maledi-  
cum , qua ipsi discord a matrisam probuerunt. Cet  
mengo anuen nac , egunteco hautan iartceco ?*

## COLERAZ ETA ETSAGOAZ. 283

Differentiatan ibiltceco? Hitz gaixtoric erraiteco? Colperic emaiteco? Fingaizt da-guitela hunelaco eguitecoec, ni hunela egui-recotan ibeni naudenoc. Baldin eznagoenean, banengo, beguirea bide nindeque, berriz hunela itsuetetic, erhotcetic, minçatetic, eta egui-vaicen beçala iauztecic, eta coleratetic. Hunela minçatcenda horztu denean; hunela bere buruaz arrencuratzen da, haserre-dura ematu denean.

Haurda coleraren ondorea, iharduquitcea-ren frutua: arimareni galicea, gorputz aren deseguitea, eta tristura handi beren azpian, damuztaturik ibentcea, eta vitztea.

Guion coleratuua, succarta duenaren pol-suabeçala da, quecho da, eztu soseguric. Halabergau ilhuna beçala da. Ceren nola gau ilhunean dabillanac ezpaitu eçagurcen, cerc cer colore duen: cein den verde, eta cein more hala guion coleratuac ere eztu eçagurcen, noiz mintxo den ongui, eta noiz gaizqui: Noiz dohan artez, eta noiz maceur. Nahasia, itsuua, hartzamuka dabilla: ilhun-bean dohana beçala, vrratsgutziaz behaztopatzen da, errebelatzen da.

Halatan Deabruac ere orduan eguitentu berre colpeac, orduan bethatceintu bere çacuac. Ceren nola ohoiñac desiratzen baitu gau ilhuna, eta haicetsua, ebañteco. Otoiac deniborragaitza, vritsua, eta igorcirit sua, artalde-

Quejo.

## 284 COLERAZ ETA ETSATGOAZ.

ari oldattceco : eta artançaleac vr vherra arainaren atçemaiteco : Hala Deabruac ere, ohoin finac, orso gosac, eta arrantçale iaquinsunac beçala, bilhatceintu, eta bere gaixtaquerien eguteco, coleraztiric eduquitceintu, coleraren, hasserterduren, eta differentcie ilhunbeac, tormentac, vherdurac, eta occasiunoac.

Presuna hasserretuen artean, bere'gogara da Deabrua, han edireiten da ongi Demonio gaixtoa, han bidebatez egnireintu bi mādatu. Ceren hasserretçaillea, eta hasserretua, biac atcemaiten baititu.

Eta haur ezta miretspeco. Ceren ezta hecaturic, coleran itsutua dagoen batec, eztai diqueyenic. Eta hala ezta çuhurtzia, halacoac, eta halacoec dihar ducatenean, hequen artean ibiltcea, eta particera ensiatcea, eta sartcea. Guziz ere baldin diharducaten hetan horditic edo çure eisairic baldin bada. Ordua vrruititic ez hurbil, vtztegu, beude, bihar duate, biz hequen gainean ethortico den occasinoa, eta caltea. Ceren bertcela peril içanen da, çure gainiera eihor dadin. Hordiac ezraqui cer hariden, eta eisaiac ere alea harc bertceri eman nahi, çuti eimanéderatçu. Beraz ez halacoen artean, ingurunera ongi behatu gabe, eta ceure buruaren beguiratceaz, contu eduqui gabe, sar eta ez emplega. Ceren colera itsu da, hordi da, eta eisaiac

## COLERAZ ETA ETSAGOAZ. 285

oceaninoaz probetxarcen da.

Bada baldin colerac, eta mendecatceo desira desordenatuac, arraçoinaz campocoac, hanbat calteguiten badu; hala nehor itsutgen, çoratcen, lilituraten, eta adimendutie erauzten badu, eta Deabruac ere orduan, coleratueng artean denean, bere iocoac iocatcen baditu, eduqui beharçaina colerari beguia, egun beharçaina guardia; bilhatu beharçaina sendagaria; egun behar da laster midicu. midicinetara, ahaldiratequeyen erremedioetara. Eta noiz? Lehen baito lehen, gueroco luçatu gabe. Ceren suaren pare da colera, eta badaquicu, sua tripi deiño, dela erraxenic iraunguitceco, eta hiltceco.

*Coleraren iraunguitceco lehenbikico erremedio da, bat bederac, bere condicino baffer recorra eçaguturic, bari beguiareneduquitceat*

## CAP. XXI.

 Ola gorputzeco medicuec, anhitz midicina, eta erremedio bilhatu baitute, eta ediren, gorputzeco eritasunen sendaceco; hala atimaco midicuec ere, cer den colera, eta coleraren ondorea daquitenec, cein baita ari-

## 286 CO IZAREN IRAVNGVITCECO

maco eritasuna bilhatu dute, eta eman an-  
huz aivisu, era erremedio, arimaco eritasun  
hunen sendatececo, colerac pitzten dueñ sua-  
ren hiltceco, eta bai pitztetie, eta iratche-  
quitcetic ere beguiratceco.

Lehenbieico erremedio da, bat bederac  
bere buruaren, eta condicionearen eçagut-  
cea : bere buruarequin gogoeta eguitrea, ea  
hasserecor denz, hiros denz, iauzcordenz.  
Eta baldin hala bada, perilos bada, quilica  
bera bada, pairu gutitaco bada, ihes eguin,  
eta beguiria differentiac ahal dateque-  
yen occasino guztiataric : presentarcen di-  
ren perileraric : iendartera sobera ilquitce-  
tic, eta bai eguitecotan, eta cargutan ere sart-  
cetic.

Batçuey den occasionoric ttipienean, sua  
lotcen çaye : cereñ succoi baitira, ihar baitira.  
Pontu hunen gainean ederqui erraiten  
du Senecac. *Non interest, hic affectus, ex  
quam magna causa nascatur, sed in qualis  
perueniat animus. Sicut ignis non reffert quam  
magnus, sed quo incidat: nam etiam maximum,  
solidum non receperunt, rursum arida & corripi  
facilia, scintillam quoque fonsent usque in incen-  
dium.* Egur heccari, eta iunt denari, su han-  
diac ere nequez eraguiten dio, baina ihar  
ari, eta atroari, inhar batec ere iratchequi-  
tzen dio. Ceren hartaco eguna, eta prestata-  
tua edileten baitu, Hala da bada coleran, eta

*genec ep.  
18'*

## ZEHENBICICO ERRE MEDIOA. 287

hafferretasunean ere. Iccussico duçu comunzqui gauça charrac gatic, occasino tti- piac gatic, iendeac hafferretcen ditela, eta bai heriotceac ere eguiten, eta guerihatcen. Ceren hafferretcea, eztago ez hanbat, egui- tecoaren valioan, nola presunaren condici- noan, Batac antisbaric eztuenaz, bertceajauz- ten, eta enconiatecen da.

Antioco sophista deiteen cen harc, bere *Theatrum condicinoa* eçagururic, etçuen behin ere, *compainiaran ibili nahi*, eta ez hartaco bacen ere, herrico cargutan ere sarthu nahi. Gui- çongaizquin bat beçala, ici cen, veldur cen, ihicia beçala, basatua, eta ihes eguina cébil- lan. Era galdeguin ceraucatenean, ea ceren cen veldur, edo cergaric ihes eguiten çuen? ihardetsi quen. Eguitendutihes, ceren eça- gutcen baitut neure condicinoa, ez naice- la iend'arteco gai, eztudala occasinotan sar- thuz guero, neure burua neure escuco:eznai- cela neure buruaren iaun, eta ez iabe: be- re hala limburtcen, eta quilicatcen naice- la, erreia naicela, iauzcor naicela: den oç- casinoric ttipiena, aieruric gutiena gor- rotatceco, eta muthurtua iartceco asco du- dala.

Eznaduca, ez bertceren veldurrac ihesegui- na, neure veldurrac, neure buruaz fido içan gabeac naduca, harc carguac, eta compai- niac ere yitz aracitcen derauzquit. Hunela

## 288 COLERAREN TRAVNGVITCECO

ihardtſi çuen Antioco harc. Halatan errai-  
ten du Platonec; Presuna hafferre corrac, eta  
edlerac adimenduesu drela, eta anhitz icca-  
stecco on, ez ordea herrien gouernatceco, eta  
ez escola eduquitceco ere. Ceren hartaracot-  
çat pacientcia behar da, sosegü beharda, eta  
anhitzetan ere, iccussia, ez iccussi, eta aditua  
ere, ez aditu iduri eguin behar da.

**Carolus**  
**Stephanus**  
verbō Co-  
tys.

Hala Cotys Traciaco Erregue harc ere; ic-  
cussiric, gauça hunetan flaco cela, bere hala  
lehenbicico occasinoan, colera burūra igai-  
ten, eta nabusitcen cereala, pairuric batere  
erçuela, sencior egui cela; eta bere baithan  
aitcinetic, pacientcia içaitera, deliberatu  
agaric ere, bere hala lehenbicico incontru-  
an, behazto parten cela, eta erortce; nseizatu  
cen, ahal beçanbat, colera en occasino guz-  
tieratik ihes eguitera. Eta hala contarcen du  
Plutarco, eccarri ceraucatela egun batez  
Erregue Cotys hari present handi bat, vache-  
ra eder bat. Ordea hautscorra, lurrezcoa, eta  
beitaquizcoa.

**Plutar. in**  
**Aphorit**  
**Vageta:**

Eta eccarri ceraucatenean, erreçibitu  
çuela presenta ongi, eta bai esquerrac  
ere eman eccarley, eta igorley. Baiña bere  
hala eccarle hequen beren aitcinean, be-  
rac bere escuz, guziac çathitu, era porrof-  
catu ciuela, erraiten çuela. Badaqui berdin,  
present eder haur, egun hautaric batez, ene  
cerbitçariec hauts leçaquetela : eta ni nai-

## LEHENBICICO ERREMEDIOA 289

cenarequin eta neure condicino errearequin, orduan sobera hafferre nindequeyela: eta neurri gabe, eta behar bañio guehi ago cerbitçari hec gaztiga nitzaqueyela. Bada deçadan aitcinetic erremedio iben deçadan occasinoa aparta ditçadan orai neure escuz diren guztiac coleratu gabé, guero ez coleratcea gatic, çarhi eta deseguin. Eta hala erran beçala egun ere çué, irriz cegoela guztiac bere escuz deseguin cituen. Anhitzec laudatzen du Erregue haren colpe hura, bañia gutic seguitzen. Hora da cer quertha ahal daquidicaion aitcinetic pensatcea bere buruaren eçagutcea, erhorquiçuneko perilari beguiaten eduquircea, eta coleraren contraco eta iraunguitceco lehenbicico erremedioa.

*Coleraren iraunguitceco bi garren erremedioa,  
Diraquien elceari egnitengancana, colerari ere eguitea.*

## CA P. XXII.

 Viçon hafferretua diraquien elceea beçala da Eta iraquín harra- ric ilquiteen da, khe bat, lambo bat ceinec Poetac dioen beçala, itsutzen baitu adimendua. *Ira impedit animum*

## 290 COLERAREN I RAVNGVITCECO

*ne possit cernere verum.* Bada elceai sobera duaquienean, gainez dohanean, hirur moldez emaiten ohi çica erremedio. Lehenbicicoa sutil aldara ceaz era vrruntceaz. Bi garrena egurren edequirceaz eta guticceaz. Hirur garrena, vr hotz gainetik emaiteaz eta egotz teaz. Hala bada coleraz eta gaitz erizcoaz, bere etsaiaren contra dira quiénari ere, hirur erremedio hauc, bat baillira beçala, eta hautçaz bat eguinic, eman behar çançá : eta hauc bebar ditu hartu eta bere coleraren iraunguitceco begiratu

Lehenbicicoa, sútic hañan : erran nahidu, bere etsai ganic aldara, aparta eta ihes eguin Ceren nola ez erratceco erremediorik hoberenai baita, sútic vrruntcea : hala da ezihardu quicceco era ez hasserretceco ere, guion hasserrekor etaric eta etsaietaric apartarcea eta beguirarcea. Presuna hasserre corrac çuhaitz arancetsuac beçala dira, eztira ferecarceco on nehorri yqui baitça çaurcen dute. Héri maguerraren pare dira barrenean dute sua, asco dute yquircea. Halatan erran cióen Rebecac bere semelacobi. Ene semel hasserre da çure anaia Esau, çure contra colera dago, aldara çançita beraz bidezik etçaitçala cenbait egunez iccus, eta aguian bitartean hotztuco da eta emituko. Cere errá comunua den beçala. Iccusten eztuen beguiac eztu minic, Hala Iesus haurret ere eguin çuen ihes Herodes ganic

## BI GARREN ERREMEDIOA 291

Fta badio Iondone Pauloc ere. *Date locum ira*  
*Demogula leccu , demogula amore hirari.* Er-  
 ran nahidu beguita gaitecilla presuna haserre  
 cor etaric eta hasserretceco occasionetaric, hau-  
 ci tan sartcetic, liscartcetic, eta behaztopa guz-  
 tieataric. Ceren behin behaztopatuz guero,  
 qaldia beçala laur-oisca , aldapa behera , co-  
 leran abiatur guero , gaitz da baratea , gaitz  
 da aitcina iragan gabe , gaitz erizcoan sartu  
 gabe guelditcea. Beraz hunelatan diraqui en  
 elteari , bere iraquinaren guelditceco , emai-  
 ten çaicen erremedioia , emoçu çuc ere ceure  
 buruari , ceure mendecatceco desira deforde-  
 natuaren eta hasserregafuneco iraquinaren horz-  
 tecó. Sutic guibela occasionetaric aparta, etse-  
 ietaric ihez eguin.

## §. I.

**B**I garren erremedioia elteari bere iraqui-  
 naten gueldi aracitceco , da egurren ede-  
 tea , succaien gutitcea. Hala da bada cole-  
 raten eta haserre duraren iraquinaren hotzte-  
 co eta ematceco erremedioia hitz gaixtoen es-  
 cusatcea, gogorqui eta torpequi dagotçunari  
 emequi egoitea, ichilic vitztea. Ceren nola sua  
 egurre berrerçea, berricé eta handitcé baita  
 eta edequitceaz gutitcé eta tiipitcen; Hala co-  
 lera eta hasserretua ere alde batetic eta bertce-  
 tic' hitz gaixtoen eta gogorré erraiteaz, hâ-  
 ditcen eta pirzten da, eta ez ihardestea, tiipit-  
 cen eta iraunguitcen. Quri ceure etsiac  
 bere coleran anhitz gauça erraiten deratsu,

Igilic.

## 292 COLERAREN IRAWNGVITCECO

ohoin bat çarela, enganatçalle bat çarela.  
Finean San Basiliç dioen beçala. sic durant  
donec conuictia, sicut sagittæ deficiunt. Tragaça  
colpeca hari dena beçala buiracan direnec  
dirauteinio, pensa ahalac, edo daquizquie-  
nac aurthiqui arteinio, ezta ichiltcen.

Basil hom.  
9. de ita

Igilteen.

Eta orduan hura gaizqui mintço da, eta  
çuriere, gaizqui mineço dela, iduritcen çait-  
çu: Eta ala baitia çuc ere hari hain bertce,  
edo guehi ago, eta gaizqui ego, erraiten dio-  
çu. Bertceren gaixqui mingatcea, ceure gaiz-  
qui ago ihardestea, nahi duçu erremediatu.  
Buiña enganatcen çara. Ceren hori da harriac  
harriaren ioitea bietaric suaren pitzea, çau-  
siaren gaizcoatcea, eta etsaigoan barrenago  
sartcea. çuri beguia atheratcen deratçunari,  
çuc ere atheratceaz, ezta handic çutea sen-  
datcen eta ez bere leccurabihuricen. Colpe  
bat emaiten deratçunari, bertce baten bihurt-  
ceaz, ezrioçu halatan ceure buruari, eman  
deratçuna edequitcen.

Ohoin bat çarela erraiten deratçunari, hor-  
di bat dela ihardestea, eztacusat irabaci han-  
diric eguiten dela. Baldin bethi ere azquena-  
requin guelditu nahi baçara, eta ez behin ere  
amoreric eman eta ez amaiñatu, ezta guerla-  
ren accabatceric.

Aitctic nola hordiac anhitz edanez egarrie-  
cen ago baitira, ceren arnoac erratcen baitiruz  
hala etsaiac ere, iharduquiz etsaiçcen ago dira

## BIGARREN ERREMEDIOA. 293

Nahi baduçu gueldi dadin etsaia, gueld<sup>1</sup> çaiteci, nahi baduçu ichil dadin, iqil çaiteci. Nahi baduçu sua iraungui dadin, egurraç edequi iatçotçu. Ceren haur da, bi garten erre-medioa diraqui en elteaten iraquitcetic guel di aracitceco, coleraren iraunguitceco, egurren edequitea, occasinoric ez emaitea, ichilic vtztea.

## § 2.

**H**Irur garren erremedioa, diraqui en elteaten gainez eguinik dohanean guelditceco era beheitceco, da, vr horça. Hala baba coleraren iraunguiteco eta sosegatceco ere, da, hitz ona errepuesta emea, eta eztia.

Hala erraiten du Spiritu sainduac. *Responso Proverbii*: *mollis frangit iram, sermo durus suscitat furorem.* <sup>15.</sup> Errepuesta emeac eztiac eta berac, ematcen, eztitcen, berateen eta hausten du mendecatceco desira des ordenatua, baiña solhaz gogortac pitzen du colera.

Haur da, gauça miretsstecoa, berac beraten baitu gogorra, emequi eta mantloqui miogarceac ematcen, eta sosegatcen baitu colera.

*Mors & vita in manibus lingue.* Mihiaren es-euan daude heriorcea eta biciitcea, gverla eta Proverb 16 baquea. Nahi baduçu adisquide deçaqueçu ceure etsaia, eta bai etsai ago ere. Emo çu vr, mintça çaquitça emequi eta emero, sua

## 294 COLERAREN IVRAVNGVITTECO

iraunguico da gaitz errizcoa iabaldo da.

*Chryshom 7. tom 3.* Mansuetus fibi ipsi dulcis, & alis esti vtilis, ira-  
cundus vero & fibi insuanus & alis damnosus, dicit  
San Crisostomoc. Guiçon baquezcoa, man-  
soa, solegatua eta hitz onetacoa, goço da be-  
retçat, eta bertscerentçat atseguin era placent:  
halacoarequin guztieq dute lacquet, guztieq  
nahidute ibili eta egon. Bainha hasserre corra,  
jauzcorra, bere eta bertsberen gal garri da: ha-  
lacoa ganic guztiac aldoratzen dira, guztieq  
ihcz eguiten dute.

Nic vstedut ecen munduko ararteko guzti-  
ec ezteçaquerela çure etaia hala balaca, eta  
ez solega, nola cerorrec. Ordea nola edo cer-  
çaz? Hitz onaz, erreuesta emeaz, beguitar-  
te alegueraz, salutantzia arraiaz, ongi minçat  
ceaz, eta guztien gaiñetic occasinoa presentar-  
cen denean ongi eguiteaz. Hala eraiten du  
*Roma 13.* londone Pauloc *Si resurrierit inimicus tuus, cibae*  
*illum si sisit, potum da illi, hoc enim faciens carbo-*  
*nes ignis congeres super caput eius,* Emoçu çeure  
etaiai gole denean iatera eta egarri denean e-  
datera. Ceren halatan vilducoitçu iccatz  
biciac haren buruaren gaiñean. Erran nahi du

Nola iccatz biciac elcarganatzen ditutçu-  
nean, sua pitzen eta eguiten baitute: hala  
etaiai baithan ere, eguiten derautçatçun on-  
guiec eta cerbiçuec pitzié dute eta eguité a-  
miorioaren sua, baquea adisquiderasuna. Era  
gnætiz ere baldin ceroris salutatcerä minçatcerä

## BI GARREN ERREMEDIOA 299

eta present igortcera, aitcintcen bacara. Harc eta saria bihotça hautsten eta arrobaretzen dio, harc beguia arraitzen dio, harc imprentuaz beçala bere mendecatzeceo gogoa bertze alde-ra içylçen dio.

Eta baldio faltac çureac badira, hobenduri cerori bacara, orduan çu çara obligatu aitcintzen cera eta hitz esque iarrailquicera. Era faltac berrcerenac badira ere, ògui eguné duçu, eta iende prestuen eta deboten artean, ongi aippatua içanen çara, hequen alderacotçat ohore içanen duçu, eta ceure arimacotçat mereciniendu aitcintceaz, cerbait desencusa bilhaturic, edo ahantz iduri eguinic, gaitz ondoric eracurri gabe lehen beçala minçatzeaz eta etaia gana ioaiteaz, Handic guibe-larcen eta iraunguitcē dira etxaltsunac. Bainha hi handi ni handi hissicaturic egoiteac, handi-rasunetan ibiltzeac amoreric ez emaiteac, guibollatzen du nehorceguin nahi ducen ontasuna herosten eta trabatzen adisquidetzeceo bidea,

## § 3.

**O**Rai hunen gañean erranen duçu. Baldin ihardetsi gabe vizten badut, ordainsiaren bihurtcera enseiatzen ezpanaiz, edo neror agur eguitera aitcintzen, banaiz erranen dute ezchenz bat naicela, veldur naicela, eguiac erran çalzquidala eta halatap neutre buruaz fida içan gabez hitz

**296 COLERAREN I RAYNGVIT CECO**

hitz esque nabillala. Bainha baldin baren bia, bihur badiatçot, egun çaitan baino gogorqui ago mintça banaquio, erranen dute, guicona naicela ohoreaz preçatcen naicela, eta valentqui egun duduña. Sinhesten dut e nbaitec hala erranen duela. Bainha halacoa eta halacoac iğanen dira gniristino gaixtoac, Iaincoaz baino munduaz contu guchiago hari direnac.

Eta mundoço contua ere eztute halacoec ongi atheratzen. Cercu munducorçac ere, guzta ongi pensacera obote, ago da etsafari ongi eguitea gaizqui eguitea baino:ez ihardestea ihardestea, baino. Ceren ez ihardesteaz, casuriç ez eguiteaz, emaiten duçu aditcera eztuçula hobenic, bainha etsaia mintço dela gaizqui, eta gaixtoqui. Hala dio San Crisostomoc.

**Chrys Ho.** *Quare enim diues si pauper appetetur rideat?*  
**4<sup>8</sup> tom 3.** *Quām id falsū nouit. Item si nos iniurias quidebimus magnum erit argumentum quod falso reprehēdimur.*

Cergatic vtte duçu ecen aberatiaz eguiten duela irri probē eta errumez deitcen dutenean. Ceren clar baita eztela hala eztela errumez.

Hala bada çuc ere etsaiaren errancy irri eguiteaz, edo ez deuz ihardesteaz, emaiten duçu aditcera, eztakiela cer mintço den, eguiatik athean dabilla la.

Eta are guchi ego San Crisostomoc berac Chrys su-dioen beçala. *Nibil sic confusionem facit geremis per episto. mala; sicut fortis tolerantia patientis, neque in verbis,*

## BI GARREN ERREMEDIOA

297

*bis neque in opere reddere vindictam* Deusez ere  
*eztuğ hala ahalqueluco ceure etsai gaizqui e-*  
*guilea , nola paitatecaz , sentimenduric ez e-*  
*guitcaz , eraftera vtztesz . Nola harri bati , edo*  
*sentimenduric eztuen berriç gauça batí , col-*  
*peca darauntsanac , eguiren baitio bere buruari*  
*calte guehi ago , eta hartan probetchu gabe*  
*vñharcen eta çathitzen baixa : hala antilaric*  
*eztuen batí edo conturic eguiten eztuenari*  
*bere maliciaz darauntsanac ere , emaiten dio*  
*bere buruari gaitz guebi ago.*

Egun batez galdeguin ceraucaté Dionisio Philosofoari, ea certçaz eguiñ ahal ciçaiò guicó batec bere etsaiari daimuric eta atsecaburic guehienar. Era ihardetisi çuen hitz gutiz eta laburzqui. Pretu içanteaz. Etsaizc nahi luque bethi ere ediren çure basthan cenbait faltia, eta edireneñ dueneá atseqnin hartceñ du eea edireneñ eztueneá darmu. Era hädic erraité ohi da, geizqui gouernaceen denac, saltatan eroriceñ denac atleguin eguisen dioela bere etsaiari.

Beraz gouerua ongi, bici prestuqui ez ceure burua ahamaileron hartcera vtz ezihardtz, ez conturic eguiñ.

Ceren nola vt horçabaita elcearen iraquinaren guelditceco erremedioa, eta bai futic apartaizketa eta egurren edequicea ere : bala da coleraten horzteco eta iraungnitcerço bigarren erremedioa, elceari diraquienean eguiten dioçuna ceure colerati ere eguitea.

V

Le Gérant : V. VICENDORITZ.

## 398 COLERAREN IRAVNGVITCECO

*Coleraren iraunguitceco hirur garren erremedioa,  
ez orduan lehiascea, solera iragan ar-  
teino pausatcea.*

## C A P . XXII I.

Aurelius  
victor in  
vita Theod



Iur garren erremedioa ez hasser-  
terecceco eta coleraren iraunguitceco  
edireiten dena da , Liuio Philoso-  
phoac bere discipulu Theodosio  
Emperadoreari eman cioena , erraiten cioela.  
Badsquit Emperadore handia , cebait aldiz,  
hasserretuco eta coleran iarrico çarela. Bada  
orducorçat eman nahi deratçut conseillu ou  
bat. Hala çarenean /ez , quecha , ez lehia ez  
bere hala abia , iguriqui appurbat : Ez albaitee  
, neça deus eguin , ez errá eta ez aitcina A. B. C.  
eta hez darrainen bertzee letrac erran arteinio,  
edo hartacob , espazioa , bitartea eta dembora  
iragan arteinio har albaitecencia , hain berts  
astu eta pacientzia.

Proverb.

Hunetara dio Spiritu sainduac. *Ne preferas  
in iugio tuo.* Eztecaçula liscarrean ahotic hit-  
ça fite athera. Conseillu haur beror eman ce-  
raukan bere nabusi Atenedoro filiosophoac  
ere , etchetie partit ceracoan , Octavio Augu-  
sto Emperadoreari. Eta Conseillua , hain par-  
te onera , hartu çuen Emperadoreac , non vrthe

## HIVRGARREN ERREMEDIOA 299.

bat guchi ago , eduqui baitquen etcheau, conseil'aria. Anhitz bertcec ere eguin du pensu haur ediren du coleraren contraco erremedio haur; eracutsi du hitzez eta obraz ere, on dela colerac diotsanaren appur bat luçatcea, balançan beçala eduquitcea, ez bere hala deliberatcea. Ceré colera eta lehia eztira conseillario-nac. Eta badio Senecac ere.

*Magnum remedium ira est mora.* Hiraten mende-  
catceco desira desordenatuaren , erremedio handia da , luçatgea pausatcea , ez lehiatcea. Ceren Ciceronec dioen beçala. *Nunquam ra-*  
*tus mediscribat illam senebit que est inter nim-*  
*um & parum.* Ez tu behin ere guicón hasserre-  
tuac behar den neurria beguiratuko , peril da,  
gutiz edo soberaz hutz eguin deçan. Eta ha-  
la hasserre çarenean, çaren veldor , çaudé guibela,  
eztaguiçula orduan,gogoac diotsun gau-  
çaric. Ceren orduan itsu çara , erho çara , na-  
hasia çara , desarraçoiña ere , arroçoiñ iduric-  
cen çatiku. Martinelac dembora eder denean,  
vela eguiten du,baiñia tormentanguealdi dago.  
Hala bada çu ere , nola hasserre çarenean,  
dembora gaixtoa baita, tormenta baita, çaudé  
guekdiric çaudé portuan , çaudé etchean, pau-  
fa eçaqu, ez deus eguin eta ez erran ,dembora  
eder arteño , coleraren tormentac diraneño.  
Ceren Menandroc dioen beçala. *Omnia qua-*  
*ritus agis , post modum errata inuenies.*

Seare. lib's  
de ira. cap.  
34.

Cicero lib.  
1. Officie.

Hasserrecuric eguiten duçon guzcia,

V 2

## 300 COLERAREN IRAVNGVITCECO

**Senec in pr** edirenен duçu, ondoan, gaizqui eguna dela  
Eta badio Senecac ere. *Finius ira mutum est pa-*  
*nitentia.* Hitaren eta coleraren fina eta acca-  
batcea da, vrtiqui menquaren hastea.

**Joseph li-  
antibuit.  
Iudaeicarum  
cap. 9.** Herodes icen hunetaco lehenbicico Erre-  
gue lentil harc, hilçue Mariamnes bere emaz-  
tea coleran, ielosiaz, gogon behar batez, eta  
hain arinqui laburqui eta lehiatuqni, nô mun-  
duac iaqnin çueneco, eguiñ baitcen colpea.  
Baiña guero colera hotzturic eta hobequi in-  
formauric, iaquin quentan eguaia, era içan  
segurantça hoben gabci hil çuela hain dolatu,  
eta atsecabeztatu cen, eta ehorri çoiatceco  
pontura, non guero bere etcheco zocco guzti-  
ctan, bere icenaz deitcea çuela, bere emaz-  
tearen billia, oihuz baitcebillan: hartan bere  
leheneco erhoqueriaren gaiñera bertce bat,  
are handiagoa eguiten çuela.

Coleran çarenean eguiten duçu anhitz er-  
hoqueria, eta guero colera hura ioan çaitçu-  
nean, ethortcen çaitçu, ethoqueria hequen  
vrrquia eta eguiñ ez pacinitu nahia.

**Senec in  
proverb.** Eta are lehen bericeren contra hasserecen  
cinena orduan (Senecac dioen beçala) ceure  
buruaren contra hasseretcen çata. *Iratu cum*  
*ira fisci desieru tunc ira fiscitur sibi.*  
Hasserearé obrac eztira behin ere complituac,  
bethi dira cei baitien escas, bartçaren eta ora-  
ren vmeac diren beçala.

Çeren aniac diren coleratsu halatan dira,

## HIRUR GARREN ERREMENDIOA 307.

vmeacere faltatsu; hartçarenac, tronco bat  
beçala, eta otarenac itsu sortzen baitira.

Laudatzen da Archita Tarentino hura, ce-  
ren bere burua coleratua eçaguturik, erran  
baicioen bere lagun bat. Cederem te nisi trasce-  
rer. Ceha intçaquet, baldin hasserre ezpa- Lzq de ira  
nintz. Erran baillio beçala. Esquet emocene cap. 18.  
coleran egonari ceren bertcela, histruco ituen  
egun heureac. Laudatzen da haaber Platon  
famatu hura, ceren bere adisqne bat, ceha a-  
raci baiccerauan bere muthila veldurrez, be-  
rac bere coleran, barren eguisarcitçan escuac  
Iccusfaçu nola l'philosopho hec, guicon quhur  
adimendutsu hec beguiratzen ciren bere has-  
serreduretan: veldurtasun handi batequin go-  
uernatzentzen ciren bere coleretan. Ceren biitci-  
aquitzen ecen guicon coleratua, erho baten  
pare cela ercego ela bere baitham. Halatan  
dio San Basilioc. *Momentanea quedam infans est ira.* Erhoqueria labur bat dela hira, colera  
Eta vste çuen Plat. ecen guicô hafferrearé, eta  
adiméditic iauciarerho çueriac, etçuela bert-  
ce difisi értçiaric, batac gati ago eta bericeac gu  
chi ago irautea baicé. Cerô hasserretuari, fitetz  
ago irragaité baicçaiica bere hasserretasuna, er-  
ho erho ri bere erhotasuna bailio. Bainha gainet  
racoan, bata hasserre eta bercea erho diren bi-  
tarcean, hain ongui, lot, vzcal, eta amarra, a-  
hal deçaquere bata, nola bertcea. Ceren or-  
duan biac baitira berdin, biac baitira erho.

Bosil homi  
de ira.

## 302 COLERAREN IRAVNGVITCECO

Era nola baita , erhoqueria handia , erhoazi , adimendutic iaucia dago enari predicatcea conseillu emaitea , eta çuhurciaz minçatceas hala da halaber , erhoqueria ez tripla , colera handi batean itsutsa , eta iraquitua dago enari hala dago enean , auenicoaz minçatcea , bere etxaiari barcca diagola erraitea. Ceren bere bero hartan coleraren lehenbicio apoderan , abiadurá eta indarreá , ezta bere buruaren iaun August ad eta ez iabe. *Nec ira consilij est repletus capax.*  
 frances in Coleraz betheric dagoena , ezta conseillu hart Eremo ceco gai. Aitetic baldin orduan , nehorre halaco gauçaric , auenicoaz coric , aippa badiaço aippatceaz beraz ere errabiacenda , errateen da arneguz eta iuramentuz hastenda. Eta hala baldin hasserre direnen , eta haucitan dabiltsanen artean , ongunderic , eta auenicoaric eguin nahi baduça , ez bere hala lehenbieico eguncan ekhin , vtzquitçu , baldin hahi baduça colpea segur eguin , appur bat hotzteria , vñhacera era elcarren bippiltcera.

Ceren midicuac ere eztio eritasunari , goien pontuan denean , ecin bertcez baicen purgatic emaiten.

Beraz hunelatan on da , Liuio Philosophac eman cuen conseilluaren hartcea , hasserre denean appurbat iguriquiteca , cenbait denboraren , deuseguin gabe iragaitura vtzteza. Ceren Stacio Poetac dioen beçala. *Da spaciis teneisque moram male cuncta ministrat imperius.* Lehiac colerac eztugauçaric ògui eguité , guz-

## HIRVR GARREN ERREMEDIOA 303

tiac hasteintu gaizqui, eta accabar cengaitzqui ago. Vici beharda beraz appurbat hotzteria, eta iragaitera. Ceren-haur da coleraren iraunguitceco hirur garren erremedioa, harc diraucinio ez deus egitea, paulatcera vtztea.

*Coleraren iraunguitceco laur garren erremedioa da, consideratcea, Etsaiac eguiten derauzquiguten bide gabeac Iaincoaren gaztugiac direla.*

## C A P. X IV.

 *Aur garren erremedioa coleraren iraunguitceco eta etsaiac eguiten derauzquigun bide gabentzera pairatceco:da, Iaincoaren ordenamenduan consideratcea, eta pensatcga. etsaiac eguiten derauzquiguten atsecabeac, Iaincoare e scutic heldu direla, harc permititzen dituela haren purgac direla. Hungen arauaz errancioe gure salbatçailleac berac heriotze errecibitceracoan, Londone Petri. Calicem quoniam mihi dedit pater, non vissim bibas illum.* Ioam. 18.  
*Eztu nahi neure, aitac enian derautan Calicę edan deçadā? Heriotze errecibide deçadan? Harc ordenaturic dadurçā penac eta trebailluac, pairatza ditçadan? Iaincoaren ordenamendu huni beharzen cioen, Erregue David sainduac, Semey ceritçan batec, maradicinoac egotzien etearautçanean. Eta halā erran cioen.*

## 304 COLERAREN IRAVNGVITCECO

2.Reg 16. Abisairi , maradicino hequen egotzlea, gatzia  
gatu nahi çuenari. *Dimitte illam ut maledicat  
iuxta praceprum Domini.* Vtçaçu maradi a na-  
çan launaren manuaren arauaz.

Ceren ezleçaque ez guigon horrec, horre-  
laco ausartçiaric har , baldio Iaincoac permit-  
tit cen eta escu emaiten ezpalio, vtçaçu beraz  
berra nahi duen guztia , compli beça Iainco-  
aren manua eta ordenamendua.

Etsiaiac Iaincoaren açoteac eta cigorrac di-  
ra. Etsiaiac Iaincoaren iusticiaren muthilac, eta  
borreroac dira. Beraz ezcara hequen contra  
hasserretu behar. Ceren cer hoben du açoteac?  
Cer culpado borreroac? Baldin presuna batec,  
hautsten baderazu harri batez burua, cer fal-  
ta du harri harde ergatic eman behar diozu har-  
ri harri colperit? Orac eguitet du hori, presuna  
vtciric , lorcē baitzaica harriari.

Bob. 6. Erran ciotenean lob fainduari haren ardiac,  
cameluac eta bertce onac ere ioan ciruztela  
ohoiñec, ercē bat ere hasserretu eta ez arrencu  
ratu ohoiñien contra. Ceren baitziaquien ecen  
ohoiñ hec Iaincoare iusticiaren muthilac cire-  
la eta ceren Iaincoac permititu baitcerauē, eta  
bere ardiac eta gañeraco onac ere ioan ceraut  
gatela. Eta halatan ohoiñez contu guti egi-  
nic erran çuen. *Domonius dedit Dominus abstulit,*  
*sicut Dominus placuit ita factum est, sic nomen Domini*  
*benedictum.* Iaunac eman Iaunac edequi Iaunac  
plater çuen beça eguin da biz bada Iaunacē

## COLERAREN IRANVGITCECO 305

Icena benedicatu.

Iccussten duenean haurac bere amaren escua  
cigorra eta hartçaz enia nahi dioela, beharcen  
ago dio amari, cigorrari baiño. Ceren baita-  
qui ecen, baldin amac nahi ezpadu, ezioela  
cigorrac minic egutnen. Halabada guc ere  
etsaiac ditugunean, eta hec calteac, eta bide  
gabeae eguiten, edo egui nahi derauzqui-  
gutenean, beharu ago behar diogu Iaincoati,  
eta haren misericordiari, etsaiey baiño.

Ceren etsaiec, baldin Iaincoac permititcen  
ezpaderaeue, eta guibelatu nahi baditu, ezpai. Ioan.19.  
teracute calteric eguienen. Erahalatan erran  
cioengure salbatçailleac ere Pilatosi.

*Non haberes in me protestatum, nisi dasum es-  
set tibi desuper. Etcenduen ene gainean e cu-  
ric, eta ez bothereric içanen, baldin eman ez--  
palitçaitçu han goitic.*

Curen etsaiec anhitz bide gabe eguiten  
deratçute, eta iccussteintu Iaincoac bide gabe  
hec, badaquizqui, eta nahi balu ezlia çaiçute  
halacoric egui, debeca litçaque: ordea eztu  
debecatcen.

Ceren san Agustinec dioen beçala. *Cum  
Deus aduersis rebus exagitat. aut merita examinat,  
aut peccata castigat, aut mercedem mihi aeternam,  
pro malis toleratis feruat. Curen etsaiec eguiten  
derauzquitçuten bide gabe hetçaz, edo nahi-  
ditu Iaincoac çure obrac, eta merecimen-  
duac, ea finac, eta eguiarcoac direnz frogas-*

## 306 COLEBAREN I RAVNGVITCECO

tu, eta examinatu : edo çure beccatuac hemen , bercetan , ez gaztigatcea gatic , gazti gatu : edo finean hequen pairamenduaz , eta sofrimenduaz , hec pacientqui pairatceh , eta sofriteen ditutçula , pagamendu handi bat , ceruco loria eman.

## S. I.

**E**Tsaiac , eta fortuna gaixtoac ditutçuncan , Bide gabec eguiten derauzquitçuteneans orduan behar dioçu Iaincoari behatu hareçaz orhoiru , harequin consolatu , eta ceure baitthan pensatu , hec guztiac Iaincoac igorteen derauzquitçula ; eta noiz , eta mundu hune-tacotçai baitihoaçtu gaizquieric , orduan baldin cerori nor başara , diahoatçula bercete munducorçat hobequienic : Eta Iaincoac vste balu etçarela harentçat içanen , halaco penaric , eta atsecaberic ezliçaçıçula eman , baiña vtz cinitçaqueyela , nahi duçun guztiaren eguitarera , eta ceure placerera bicicera .

Midicuac eisituz gue/o , esperantçagalduz guero , vtz dio eriari , nahi duenaren eguiterra , nahi duen beçanbat , nahi duenetaric iate-rra , eta edatera , extio deus debecatcen , ceren eisitu baitu . Baiña duençan esperantçagendatuco dela , debecatcen deraurçacerdi gauçac , appetitu gati vtzen dio complitcera . Halabada gure Iaungoicoac ere , beccatore exiari , esperatçaran deueä , sendatuco , eta salbatuco , dela debecatcen dio an hitz gauçac , czteraut-

## LAUR GARREN ERREMEDIOA. 307

ga bere placer guztiac complitcera yrzten, emaiten,dio anhitz purga , eta malenoconia ; nahi du , dituen etsaiac , eta éguin diatçoten bide gabeac. Eta hura guzia da , seinala ona. Ceren hartan da agueri, eztuela oraino Iaincoac hartçaz etfitu, eztuela gogatu, eta ez esperançaa galdu.

Eta haur da consolamendu handia , etsaiac dituenaren , era bide gabeac errecibitzen dituenarentçat. jaquitea, eta consideratcea, hec guztiac Iaincoaren purgac , eta açoreac direla, cta guztiacharen probetchutan direla. Eta hala ez etsaiaganic, bainha Iaincoaganic, adisquide guztiengaiñeco, adisquideaganic, heldu direnac beçala, errecibitu behar dituela.

Eta baldin hala errecibi balitça, eta baguinçaa, ezquindezque , eguiten garen beçala etsaiaren contra colera , eta ez gueure bai than barrena ere egos, eta malenconia.

Etranen duçu. Eiçarela ez hasserretzen etsaiaren contra , eguiten edo erraiten derauzquitçun gaizquiak gatic , eztuçula hargatic gaitz esten , ceren badaqñicula hec guztiac Iaincoac permitiricen dituela. Bainha gaitz esten duçula , bere intencione gaixtoa gatic , vorondate vherra gatic. Ceren çuc hari decañinoic emangabe, eta bide gaberic ere eguin gabe, guztiarequin ere , hala darraitçun , eta gaitz nahiderarçun. Hunela erraiten duçu, ez ordea ongi. Ceren çuc eztuçu behatu be-

### 308 COLERAREN IRATNGVITCECO

har ceure erfaiaren voródate gaixtora , baiña behatu behar duçu ceure Iaincoaré voródate vorondatesura. Ceren haren vorondatea, eta intencionea da , erfaiac eguiten derauzquitçun gaizqui hetçaz, çuri ongi eguitcea : hetçaz nahi çaitu oray hemen penatu , guero bertetan ez penatceagatik.

Çauri gaixio bat,burdingeriaz io gabe,ecin sedá ditequeyena,duçunean:Baldinba etçara buidin goriaren contra , ceren erratcen çaituen,eta min eguiten deratçun,hasserretuko? Baldinba etçara hain erhò içanen. Baiña pacientqui pairatcen duçu, ceren baitaquiçun ecen burdina hura erahiltcen duen barberaren intencionea , eta vorondatea ona dela, ceren baita principala.Hala da bada çure Iaincoaren intencionea , eta vorondatea ere ona, eta onera emana,çure erfaiarena gaxtoa, eta nola ahalezcoa içan agatic ere. Beraz Iaincoaren vorondateari behatu beharçaica , eta ez erfaiarenari.

Eta baldin haur hunela estimatecen , eta pensatcen badugu, nola eguin behar baitugu, ceren hala baita egua , gueure baithan sosegatceco , eta erfaiac eguiten derauzquigun calteac gatic ez hasserretceco , eta coleraren iraunguitceco, erremedio handi bat edirenena dugu.

**BORZ GARREN ERREMEDIOA. 309**

---

*Coleraren iraungoitceco borz garren erremedioa  
da consideratcea cer molder dagoen  
çure etfai, hasserre denean.*

**CAP. XXV.**

 Oleraren iraungoitceco , etfaiaren contra ez hasserretceco , eta mendecatcetic ere guibelatceco , erre medio ona da, consideratcea, nola , cer moldez, eta cer estatutan dagoen çure etfai hura , hasserre denean , mendecatu nahiz coleratua , gutgaz gaizqui erraiten duela dabilanean . Era ediren den duçu (lehen ere adit cera eman den beçala ) orduan çure etfai hura, itsu dela, erho dela, centçutic, eta adimenducic campoan dela . Beraz nola, baldin bacceldu anaia bat erhoa , adimendutic iaucia, eta harc anhitz gaizqui egun , eta erran baliacu , eta bere buruari ere cenbait cospe gaixto eman baliacho , damuago baitcendu que, ceure anaia haren calteaz, eta haren halia içaiteaz, eguiten, eta erraiten derauzquit gun bide gabe guziez bañio; hala halaber behar duçu içan damuago çure etfai , colerac çrauciric dagoen harc , bere buruari eguiten

**310 COLERAREN TRAVNGVITCS CO,**  
**derautçan caltez , çuri eguiten derauzquit-**  
**çunex baino.**

Haur batec , edo succarrarequin nahasiric  
 dagoê batec , edo cein gauça erran agatic , et-  
 çara bar ere assaldatcen , eta ez ceure sosegua-  
 tic cantiteen . Cerén baitaquiçu ecen hec ez-  
 taquitel a cer mintço diren , eta ez cer hari di-  
 ren . Hala bada coleran dagoenac ere , eztaqui  
 cer mintço den , eta ez cer hari den . Eta hala-  
 tan halacoagatic , eta halacoac gatic , egui-  
 cioen othoitx gure salbatçailleac bere aitari ,

**Luc 23.**

**Chrysost.**  
**Hom.79.**  
**Tom.2.**

erraiten cioela . *Pater ignosc illis quia nesciunt  
 quid faciunt . Aita barcca iaceçu , eztaquite cer  
 hari diren . Cerén coleran baitaude . Cogita  
 quod non est in se , qui visuperat , sed insanius ; & non  
 moleste feres consumelias ipsius , dico san Crisosto-  
 moc , pensa eçacu eztagoela bere baithan  
 gaizqui erraiten hari dena , baifia adimendu-  
 tic campoan dela , eta baldin hala pensatcen  
 baduçu erraxqui pairatucoituçu eguiten de-  
 rauzquitçú bide gabeac . Presuna hollerretuac  
 eztuhere burua egagutzen eta ez nehor  
 icculsen , itsu da . Eta itsuac incontru ioitea ,  
 eta iragaitean aurizquitcea ezta miresteco ,  
 etçara hargatric hollerretu behar ; eta hasser-  
 retçerçoz ere , ceure buruaren contra holler-  
 retu behar çara , eta ez itsuaren contra , eta ez  
 coleran dago enaren ere . Cerén çu baitçara  
 argui eta hora itsu : çu çuhur , eta hora erho:  
 çu ceure tenuan eta çentçuan , eta hurahan .*

## SEY GARREN ERREMEDIOA. 311

dic a shean , eta campoan . Beraz paira beça  
çuhurrac erhoa , arguiac iñsua , eta coleraric  
eztuenac colera dagoena . Haut da erremedio  
ona , etxari barcarceco , eta pairarceco , ha-  
ren egun erranez conturic ez eguitoco , nola ,  
eta cer moldez dagoen , colera dago enean ,  
consideratcea .

*Coleraren iraunguitceco sei garren erremedioa.  
ez bilhatcea cer dioten guizañ iendec.*

## C A P . XXV.

**B** Ere soseguan egoiteco , assaldatu  
gabe , eta haserretu gabe bicitce-  
co , ezta bide gaixtoa , gutzaz ien-  
dèc cer erraiten duten ez bilhatcea  
eta ez galdeguitea . Hala erraiten du Senecac ,  
*Non expedit omnia videre , omnia audire , multa in-* Senec. libro  
3. de ira  
cap. 11.  
*iuria nos transeat , ex quibus plerasque non accipit ,*  
qui nescit . Ezta compli , ezta on , gauza guztien  
iaquitea , iccustea , eta ez ençutea ; iragan bedi  
anhitz gauza , gure laquin gaberic , ceren ezta-  
quienac eztu dawutic hartcen .

Nahi oaduçu sosegu onean , eta haserretu  
gabe egon , ez sobera galde , ez sobera bilha .  
Billa dabillanac edireneng du , eta batean ez-  
padabertcean , bere burua eguitecotan ibeni-  
co du . Ezta on bartendari içaitza , ezta om

### 312 COLERAREN TRAVNGVITCECO.

celatan egoitea, eta ez iragaiten diren gauça guztiengoaquitea. Anhitz etan ere ecartzen derauzquigute elha-berriac, erran-merranac, ençuren dugu cer dioten vrliac, eta sandiac, hunelacoc, eta halacoc, eta gueroc ere desiros gara iaquitera. Baiña guero iaquin dunguean, edireiten dugu nahi ezruguna : eta guero handic iauzten, era coleratzen gara. Eta are orduan anhitz gauça egun behar dugu, gueure ohorea gatic ere, baldin iaquin ez-paguendu, ezpauquinen halaco eguitecotan içanen. Era hala hobe da anhitz gauçaren ere, ez iaquitea.

Eta are guehi ago iaquin agatic ere, on da dissimulatcea, ez iaquin iduri egoitea, ez iabercea, ez bere gaiñera hartcea, edo desencufarcea.

Erregue Saulez Erreguetu berrian, mintzo ciren iende batçut gaizqui, eta hain hurbil, eta hagultz, non Erreguec berac aditce baititu. Ordea burua bertze alderat itzuli, eta dissimulatu çuen, ez aditu iduri egun çuen. *Dissimulabat se andire* Era halatan, handic pitx ahal citequeyen su guztia iraungui çuen.

a. Reg. 10.

Egun batez Arquelao Erregueari, Carrican iragaiten cela, aurthiqui cioten cenbait ur burutic behera. Era ezraquigu ala vste cabean, ala berariaz. Baiña compaiñia oac hasi ciren erraaten, hura cela ausartzia handia, eta baldin

## SEIGARREN ERREMÉDIOA. 313

baldin gaztigatcen ezpacen , hurrenecoan  
guehiago eguiwen çutela. Ordea bere hala Plutan in  
Erreguec berac sosega aracititué, erraitéçue- Aphohthc  
la. *Non me respersū.* Euçue baquea, ezta bide  
gaberic eguin. Vr haur aurthiqui duenac,  
eznau ni husti , ceren etciaquien ni nint-  
cela. Etçuen bere gaiñera hartu , eta ha-  
lalaran hobequi ago , eta erraxqui ago , erre-  
mediatu çuen , eta iraungui pitztera cihoan  
sua.

Vespasiano Emperadoreac hain quen con-  
dicione ona, eta onera emana , eçen nahi et-  
çuen beçala , edo haren presunari etcegoçan  
beçala, nehor ininçatcen ceicanean, edo dis-  
simulatcen çuen , edo cebait hitz iocola-  
riz eta doslailluz , cebait itti. eguiteco sol-  
hafez ederzatcen çuen , eta guero bere ce-  
gocan ohorearequiñ , deus galdu gabe , guel-  
ditcen cen.

Hala Erreguec Antigonocere , ediren bait- Senec.li.i.  
cen egun batez hartçaz gaizqui mintço ciren de ira, cap.  
compañia batetan, erran cerauen. Longius  
*discedite, ne vos Rex audiat.* Coaste vrrun ago,  
Erreguec adi etçairçaten. Beraren contra  
mintço ciren, eta berac apartacitecilla erran  
cerauen: eta handic bera laudoriorequin, eta  
bertceac, ahalquetuac, guelditu ciren. Iaqui-  
nez guero , ençunez guero , eta entçunari ia-  
beturic , bere gaisiera hartuz guero , gaitz da  
coleratu gabe , mendecatcera enseiatu gabe,

Aurelius  
Vitor de  
vitis Impes-  
tato.

## 314 COLERAREN IRAVNGVITCECO

Colpetic eguingabe,edo haucitan,eta eguitecotan,sartugabe guelditcea. Cererremedio bada , hautaric guztioraric escaparceco? Ez deus galde , ez bilha, ez iaquin; eta iaquinez guero ere,eguin ez iaquin iduri,dissimurla,ez eguitecoari iabe , ez bere gainera har , eguin bere burua itsu,mutu,etagor.

Haur da erremedio ona coleraren iraunguitceco, bere buruari eguitecoric ez emaitceco , differenciatan nehorequin ez sartceco, eta baquean,eta soseguan,coleratu gabe egoiteco.

*Coleraren iraunguitceco,gainerako berts  
erremedioak, capitulo hunearan, la-  
burzqui eçarriae.*

## C A P . XXVII.

**P**AIRU , eta pacienteia içaiteco , bata bertcearequin ez hasserretceco , considera deçagun , ecen Adanen seme guztioi , eta guztiz ere guiri-stinoc,gorputz bat garela,eta gorputz hunen buru,Iesu Cristo gure salbatçaillea dela. Ha-la erraitendu iondone Pauloc.*Vnum corpus sumus in Christo Iesu, singuli autem alter, alterius membra.* Gorputz bat gara Iesu Cristo bai-

## AZQYEN ERREMEDIOAC.

315

than, eta bata bertcearen miembro, eta parte. Beraz hunelatan elccar onhesti behar dugu, gorpuz eco miembroec, eta partec elccar onhesten duten beçalà.

Gorpuz eco miembroeran ezta imbidiatric, eta ez mendecuric. Oifiac cerbitçatcendu escna, eta escuac oïña. Oïñari behazto patu agatic, eztio escuac colperic emaiten. Hortzec mihiia auri siquitcen dute nean, norc har-gatic atheratze intu horezac? Beguiac leccu goragoan daude, oïñiac bañio, ordea hargatic, beguiac ecertan dadutçate oïñiac, eztimatzceintuzte, eztuzte arbuiatzen. Ajticitic abal daguiten guztia elccarri laguntzençaitça, eta baldin eguiten ezpaçaitça, bere caltetan fal-tetzen dute: Ceren baldin beguiac arguitzen ezpaderaeça oñey, oïñiac behazto patuco dira, eta beguiac iracico. Sabelac laten ezpadu, çangoac flacatuco dira, eta bai sabela bera ere ihartuco. Ez laguntcea, bat bederac bere caltetan eguiten du. Eta halatan haur iccussiric guztiec elccar daducate, elccarri laguntzençaitça elccarri onhesten dute. Eta bat ac bertceari, cerbaitetan huts eguin agatic, elccarri pairatzen, eta barccatzen diote. Hala bada gue ere elccarri pairatu, eta barccatu behar diogu, eta amorioeduqui, ceren gorpuz bat, eta gorpuz bateraco miembroac, eta parteac baicara.

X 2

## 316 COLERAREN IRAUNGVITCECO

## §. I.

Aelianur.

**H**Alaber coleraren iraunguitceco on da  
cerbait lani iotcea , bertcetan pensat-  
cea,gogoaren aldatcea. Hala erraiten dute  
eguiten çuela Climas ceritçan batec,colera-  
ren eritañunaz vquitua sentitcen cenean, al-  
datcen cela;bertce eguitecotara , soñuz , eta  
cantuz hasten cela , eta halatan bere gaitza,  
eta colera ahantzen ceitçala , eta sosegatua  
gueldicen cela.

Senec.lib.  
de ira cap.  
28.

Halaber etremedio ona da , coleraren gui-  
belaceco , confidetratea , ceure ere anhitz  
huts,eta falta eguiten duçula, baishia hargatic  
eztuçula ceure burua cehatcen , eta ez penat-  
cen. Etremedio haur vquitu çuen Senecac,  
erran çueanean. *Poteris non irasci, statim vique, si  
sbitacitus ad singula, quibus offenditur, dixerit.*  
*Hac & ipse commissi.* Badagoque haslerretu ga-  
be, bide gabeac errecibitcen dituena, baldin  
orduan berean, erraiten badio ichilic , bere  
baithan bere buruari. Nic netonec ere eguiñ  
nuen noizbait hunein bertce. Eta badio san  
Gregorioc ere.

Gregor. in  
Moral.li.5.

*Quasi aqua ignis extinguitur, cum surgente fu-  
rore animi, sua cuique ad mentem culpa reuocatur.*  
*Quia erubescit, peccatis non parcere, qui Deo vel  
proximo, sape se recolit parcenda peccasse.* Vra luaz  
iraunguitcen den beçala, iraunguitcenda co-

## AZQYEN ERREMEDI OAC. 518

Iera, ere bat bederac bere falténgogoratceaz.  
Ceren ahalquercenda, edo ahalquetu behar  
luque, bertceri ez bartcatceaz, berac barcca-  
quiçunguehi ago, edo hain bertce duenean.  
Ezta çuhurrcia, faltertan erotcen denac faltat-  
tan erortcen denaren gaitz estea, eta gazti-  
gatcea. Ceren halatan berac ere bere burua,  
gaitzetsi, etagazti gatu behar bailuque.

## §. 2.

**H**Alaber coleraren iraunguitceco, onda,  
adisquide baten. Mecenas baten aldacan  
ığaitea. Harc limburtcera çoha cinean, cole-  
rac itsuturic erhoqueria baten eguitera çara-  
matcinean, capatic thita çaitçä, auisa çait-  
çan, eta erortceric beguita çaitçan. Guiçon  
bat cihoan behin, bere gogoz bertce baten  
hiltcera; eta iccuñiric bere adisquide batec,  
nola cihoan, galdeguin ceraucan. Norat çoaz  
horrela harmaturic ihardetsi cioen. Hunela-  
coren, vriaten hiltcera noha. Eta cer içanen  
da, baldin harc çu hiltcen başaitu? Ezñintcen  
horretçaz orhoitcē. Adisqu deac orhoit araci  
çuen, eta orhoituric, guibelat bitur araci çüe.

Anhitzetan eguin cioen officio haur Me-  
cenas bere adisquideac Augusto Cesár Em-  
peradoreari. Etaguztizere egun batez, Em-  
peradore harc, colerac itsuturic eman bait-  
çuen sentencia gaixto bat, éta haren arauaz

## 318 COLERAREN IRAYNGVITCESCO

iendo handia, bantceramaten galtcera, esquibatu cioen Mecenas bere adisquideac, era igorri escutic escura, bera iend'arteau vrtun egonez, buihun laburbat, erranten cioela. Sur-

Zonat. T. 2. *ge carmifex.* Iaiquiadi carnacera, iccussac cer haria aicen borrhroa. Emperadoreac buihun

hura hain laburra, eta cinezcoa errecibitu quenean, notceguina cen, icenic ezpaçuen ere, eçagucu çue bere adisquidearen letra, eta escua: hartu çuen parte onera, eta bere hala, bere falta eçaguturic, colerac eraguin ceraueala iccussiric, barccatu cerauen guztiey. An-huz valio du adisquide leyal baten dere compajinian içaiteac, harc egutac erran diatçon, eta deuserran gabe ere, vecondoaz vtqui deçan edo beguiaz kheriu eguin diacon. Ceren batçutan guehi ago eguiten du kheinuac, mihiac baño. Gauça baten eguitera çohaçineá, eta ceure adisquideac eztaguiçula, erraiten deratçunean, ezalbaitcenegui, guibela al-baitcindeci. Ceren comunski orduan hobequi dacusa çure adis. uide harc çuc baino. Ceren çu nola baitçauda deliberatua, eta bai batçutan passionatua, eta ırsutua ere, eztuçu den guztia iccisten. Bainha çure adisquideac eztu passioneric, argui ditu beguiac, harc den beçala, eta behar beçala, icculten du.

Etçait egundaiño neure adisquidearen quisua en contra, eguin dudan gauçanic, ongi guerthatu. Midicuat ere, munduco ho-

## AZQYEN ERREMEDIOAC.

319

berena bada ere, eritcen denean, bertzce midi-cuen escuetan vtzten du bere burua , bertzce-ren auifuz, eta ordenantçaz midicinatcen, eta errecaïçen da. Bada coleran dagoena eti da. Beraz nahi badu sendatu , beha bequio bere adisquideari , gouerna bedi haren conseilluz, eta auifuz , ceren halatan edirenenda ongui, eta ez bertcela.

Finean ez coleratceco, eta colerac dioscun gauçatic ez eguitecò oraicotz azquen erre-medioa da, consideratcea, eta gueure baithan barrenia penfáctcea , ceing gauça ona, placenta, eta ondore onetaco a den , ez iharduquitcea, mendeet bilha ez ibilrcea, baquean egoitea.

*Quis enim labor est fratri indulgere conturbanti?* Chrysost.  
*Labor quidem in remittendo nullus, in retinendo* serm. 22.  
*autem inimicuas maximus, si quidem iracundia* T. 2.,

*liberari, maximam redit memi qasarem, & valde*  
*hoc est facile volenti. Neque enim necesse est maria*  
*transfretare, nec longi uineris peregrinationem*  
*subire, nec montium excelsa ascendere, nec pecu-*  
*niam impendere, nec corpus intendere, sed suffici*  
*velle tantum modo. Cetera trabaillu da etlaiar!*  
*barccatcea?* Ez bat ere , dio san Crisostomoc. Ceren ezta hartaracotçat itsasorië iragan behar, ez bidean ibili, ez mendian go-  
ra igan,ez diruric gastatu, ez gorputzic higa-  
tu,eta ez bertzce trabailluric hartu ; nahia be-  
har da,eta ez bertzeric. Bainha eguiteco hádia  
da , eta pena garría ez barccatcea, ea nondic

## 320 COLEKAREN TRAVNGVITCECO

edo nola mendecatuco den bethiere gogoran egovitea. Eta ezpere comparaitçatçu, eta comunzta elccarrequin, etsaitasunean, eta mendecarceco desiran ibili çaten dembora, eta etsaitasunic gabe, baquean egon çarena, édo çaudena:eta iccussico duçu cer differentia den bien artean, cenbat dohan bateric bertcera. Edirehen duçu ecen, lehen anhitzetan ere, compainia barçuetaric aldaraeu behar cenduela, ceren han guerthatcen baitzen cenbait çure etsai. Halaber edireneneñ ducu, lehen cinela guerlan, eta orai çarela, victoria erdietsfirci, baquean. Ceren san Crisostomoc dioen beçala. *Vistoria contra tram est quidem maxima, non eum iniurias vlciscimur, sed cum eas aqno animo toleramus.* etsaitasuneco victoria, eta garaitia, eztago ez mendecatcean, eta ez ordaiharenbihurtcean edo doblearen: baiñadago barccarcean, eta bide gabèn pacientqui pairatcean. Ceren orduan ceure etsaia, ceure burua, eta Deabrua ere garaitzen baititurçu, eta arima, eta gorputza ere baquean, soseguan, eta segurean ibentzen. Cein baita gança handia, laudatececoa, eta lehen baiño lehen gueroco beguirea egon gabe, etsaitasunaren vzteco, lehenengainiera erremedio ona, eta consideratçecoa.

CERGATIC BEHAR DIOGVN      321

---

*Cergatic behar dugun gueure etxaiari berccatu  
eta amorio ednqui. Lehenbikio arra-  
goia. Ceren Iaincoac manat-  
cen baitu.*

C A P. X VIII.

 *Ran dugu cenbat calte eguiten du-  
en mendecatceco desir areso ena-  
tuac, eta hädic sortcē den gaitzeriz  
coac, ibeni dugu halaber cen baie  
erremedio, era consideracion, ez hasieretce-  
co, mendecuen yitzteco, eta coseraren irau-  
guinco.*

Bada orai behar da iaquin era consideratu,  
materia huneraco ponturic principalena, ea  
nola behar dugun gueure etxaiaren alderacot-  
çat gouernatu behar dugunz etxaiia onhetsi ala  
gaitz etsi

Eta baldin onhetsi behar badugu, ea cergatic  
cer causaz edo erraçoinez behar dugun öhetsi.

Lehenago legue çahartean, leguea gaizqui  
adituric, etceducaten beccatu etxaiaren gaitz  
este. Ceren nola legueac mianatzen bait  
quen adisquideac onhetsi citçatela, eta etsaiez  
ezpairçeu deus erraiten eta konturic eguiten  
handic atheratzen çuten, beraz etxaiac gaitzets

## 322 CERGATIC BEHAR DIOGVN

anai citçaquetela.

Math. 5 Balña cerutic lurrera iautsi cenac eracutsi  
çuen, cer eguiñ beharcen hunetan ere, errai-  
ten çuela. *Si enim diligitis eos qui vos diligunt,  
quam mercedem habebitis, non ne & publicam hoc  
faciunt. Adisque dare non habet eaz, cer irabaci  
cer et quer eta merecimedu vzteduñue içanen  
duñuela? Ientilec, Iaincoie eçagurcen eztu-  
tenec eta iende gaixtoec ere, eguitendure ho-  
ri, hec ere onhetsteintuzte bere ongvi egui-  
leac. Diligite inimicos vestros.*

Etsaiac, etsaiac onhetfi behar diturçue, gaiz  
qui eguiten deratçueçaney eguiñ behar dera-  
ueçeu ongvi. Eta cenbatenaz eta hec çuey  
gaizqui ago, hanbatenaz çuec hey ongvi ago  
*Vince in bono malum.* Ongviaz gaizquia ga-  
raitubehat da.

Ordea cergatic onhetfi behar dugu gueure  
etsaias? Eguiten deracunati gaizqui cergatic  
eguiñ behar diogo ongvi? Dugun iaquin, du-  
gun bilha cenzaibat arraçoñi?

Lehenbicico arraçoñia, alde guztiz lehen-  
bicicoa, ezetz, ecin derraquegun beçala,  
Oñi escuetan lotcen gaituena, da, Iaincoaren  
manua eta vorondatea. *Ego autem dico vobis,  
diligite inimicos vestros.* Nahi duenac berra na-  
hi duena bainia nic erraiten deratçuer çuey,  
onherz ditçatçuela cenen etsaiac.

Cicero de Pythagoras Philosopho handi haren disci-  
nat. deorū. guluec, erçuten bertce manuric behar, eta ez

**BARCCATV BTA AMORTIO EDVQVI 313**  
 arraçoiñic , iaquitea baicen, heque nabufiac  
 erran çuela.

Nabofiac erran du, nabufiac manatu du beraz halada eta hala egun behar da. Haur cen hequen hitzuntza. Badagurerçat , guc gueure etxaiaren onhesteco , ezta alego içanen, onhetz deqagula laicdak manatc duela, iaquitea

Presuna batec, bide gabe bat eguiten deratçuncan , guetthat cen da, emplegatzen baitira bitartekoac eta arartekoac , ongunden eguiten lehenbicoric ethortzen çaitçu , ceure lagun bat ceure adisquide-quide bat , eta harc erraiten deratçu.

Badaquit vrliac bide gabe eguin deratçula bainha vriquitan dago damu du , eçagutzen du bere falta, eta hala ene amoreac gatic barcatu behar dioçu adisquidetu behar çarete. Honela erraiten deratçu ceure lagun adisquideac. Bainha çuchiari erraxqui erraiten dioçu ezetz , eztuçula nahi , ceren ezpatçat çaitça ahalque , ezpaitaduçaç ceure burua bainho guehi agoren.

Cure lagun haren ondoan , harc deuz ecin eguin duenean , ethortzen çaitçu bertce arartecobat , handiagoa eta ahalquesun agoa. Eta ez hain erraxqui , nola lehenari bainha ceren colera handian baitçauda harci ere emaiten dioçu eça erraiten diocu , eztaquçula othoi gavça harriz mintça , ceren sobera çaudela errea çaurtua eta guiharran vquitua.

## 324 CERCATIC BEHAR DIOGVNE TSATARI

Azqueneá éplegatcē da erreque berare eta harc  
berc hala haustē çaitu beratcēçaituëtçatçaitça  
ez etz erraizera aula:cen.

Bada baldin lurreco parte baten Erregue  
bati, egun baldin bada bihar içanen eztenari  
ausartean ezpaçatçaitça ezetz erraitera, mun-  
du guztico Erregueari, Iaincoari berari, nola-  
tan ausarrucó çatçaitça ezetz erraitera contrat-  
cera, eta manatcen çaijuenean onhetz deca-  
gula ceure etsaia, eztuçula onherfi nahi eta  
ezcioçula barccatu nahi, erraitera?

§. I

**E**RANEN DUÇU, COMUNZQUI ETSAGOAN DAU-  
DENEC BERE ETSAGOAREN EDE-ZTATECO ETA  
ESTALTECO ERAITEN DUENA. Nic Barccatcen  
diot, eztiot gaizic desiratcen eta ez orde-  
natcen. Aitzitic nic neuretçat nahi nuque-  
yen beçanbat ontasun, demola Jaincoac. Bai-  
ña eztaica mintçatu nahi, eta eztut nahi  
mintça daquitdan.

Ezta bericē gauçaric, harequin deus eztu-  
dala nahi baicen. Hunela erraiten duçu bai-  
ña eztaquit, ongi erraiten duçunz. Ceren  
badirudi ecen hunela elcarequin minçatcen  
eztirenac ezcirela vorondate gaixto gabe.

Eçagū dira bere hitz etá eta solhaserá. Ce-  
ren eztaquete elcarrez onguiric, itchora-  
penez edo baicen: obretan ere elcarren be-  
haricen eta meneratcen qitenean, elcarri a-

## BARCCATV ETA AMORIO EDVQYR 325

ahalez helicen çairça.

Bada gogoaz eta vorondateaz denaz began batcan, berac ibenceintut leccuco, ceré berec daquite cer vorondate duten elccatren aldera corçar. Eta baldin ongi pensatzen eta consideratzan badute, edirenen dure, badutela batzen hartzan, cen bait vher dura, cen bait herra eta gorrotu, eta ez dioten beçain bero gogoa eta bihotzak garbi eta clar.

Erremental deguijan, harotzaren sureguian, hauscoac haice emaiteric guelditzen direnean, badirudi eztela suric. Ceten bere halia iccatzac, ilhaunez estaltzen baitira. Ordea higuitçatzen appurbat hauscoac, eta iccüssico duçu nola bere halaberriz, sua aguertzen den. Hala aguertzen da bada elccarrequin mintzatzen eztiren arteko vorondate gaixtaren sua ere, den occasinoric tipienan elccarren behartzen direnean.

Ordea vorondate gaixtoric eztenean, ez minçatcea bera, ez salutatcea, edo ez conuer-

Vide Caiet  
in summa  
verbo odiū

fatcea beccatu otbe da?

Baldin comunzqui, guiristinoac guiristino equin, ahaideac ahaidequin, eta herricoac herrico equin beçala, bidean incontratzean. deus galdeguiten deratçunean, edo berce casuric guerthatzzen denean iardesten badiozu salutatzen badugu, eta vorondate gaix toric ez içan berce gaiñeracoan labuzzqui vtic agatik adisquide mami batequin beçala,

## 326 CERGATIC BEHAR DIOGVN

harequin ez ibili agatic : baditudi eztela ora  
duan beccaturic : guztiz ere baldin vste badu-  
çu , maiz minçatetic eta elcarrequin seguit-  
etic , ethor ditequeyela calte , uola ethortzen  
baita batçutan . Ceren badira iende batçuc  
hain occasinotsuac , arrunquide gairzac bat-  
cari ondicozcoac , eta incontru gaixtotacoac  
non hobe baita halacoy alde eguitea , eta  
hequen bidetaric eta incontruetaric iheçegui-  
tea , eta aldaratcea , iguriquitcea baino .

Ordea ceren apparaturic ibiliceac , elcar-  
ren incontruetaric iheçeguiteac , eta eder-  
gailtu baicen elcarreqnin ez minçatceac ,  
erran nahi baitu , badela bitartean , cen  
bait , etsaigoa eta volondate gaixto , erraite  
hura gatic , etsai fama gatic , etahartan  
emaiten den escandalua gatic baldin errai-  
te hura , etsai fama hura eta escandalua i-  
raunguijencen ezpaduço vorondate gaixtoricez  
içan agatic ere etçara peril gabe ceure conci-  
entian , ceren obligatu çara , eta obligatu ga-  
ra , baldin barrenta guitistino bagara capoá ere  
guitistino garela eraçusteria eta aditcera emai-  
tera Ezcara obligatu adisquidequin beçala , et-  
saiequin gueure sequeretuez eta eguitecoez  
minçatceria , hequin maiz ibilcera , eta ez he-  
quen gana , adisquiderara beçala ioaitera As-  
eo da salutatcea , munduac etsai eduqui ezcait-  
ça queyen beçala bicitcea , vorondate gaixto-  
ric ez eduquiccea , eta escandaluric ez emaitea

**BARCÉATU STA AMORIO EDVQVI 327**

Gaiñeracoan nore bere egüitecoac egun dit-  
çala eta behar duena , behar due narequin sol-  
hasta dadilla.

Eguiada ordea, fañdu içaiteco, guiristino comu-  
ney abatail cramaiteco , ezta asco salutatcea,  
voródate gaixtoric ez eduquircea, eta ez escan-  
daluric ere ez emaitea : bainha guzti egun be-  
har da içan orobar, guzti equin behar da içan  
solhasturi amoltsu eta arrontez.

Eta are guehi ago ezta asco gaizqui eguiten  
deracunari gaizquiric ez eguitea, baiua ongi  
eguin behar diogu. Ceren hura da sainduta-  
funa , perfectasuna , debocinoan complitu i-  
çaitea , eta Iaincoac caritateaz eta amorioaz  
eman deracun manuaren compliteca?

S. 2.

**E**RAN DUGU BARCÉATU BEHAR DIOGULA GUEU-  
RE ETSIAIARI ETA AMORIO EDUQUI , CEREN HALA  
MANATSEN BAITU IAINCOAC. ORDEA NOIZ MANA-  
TU OTHE ÇUEN ? ORCEGUN SAINDU ARRATSEAN, HIL  
BEHAR ÇUEN BEZPETAN, BERE AZQUEN SINEAN, CAN-  
DELA ESCUAN HARTURIC BEÇALA CEGOENEAN. EMAZ-  
TEA ORHOITSEN DA, BERE SENHARRAC HILTZERACOAN,  
ERRANCIOEN AZQUEN HITZAZ , ETA BAI SEMEA ERE,  
ORDUCO BERE AITAREN CONSELLIUAZ.

BADA GURE IAUNGOICOAC BERE AZQUEN SINEAN,  
MUNDU HUNETARIC BERTCERA PARTITCERACOAN, ER-  
RAN CERAUEN BERE DISCIPULEY ETA BEQUIN BATEAN  
GURI GUZTIOY.

## 328 CERGATIC BEHAR DIOGVN ETSATARI

Ena discipuluac, ene guixistino maiteac, badacusaçue, nola nagoen nola heriotcea turbildu çaitan, sarri hil behar dudan, eta neuze testamentaren era azquen ordenuaren e-guiteco ordu dudan. Bada ene azquen ordenua, ene azquen vorondarea eta manua haurda. *et diligatis inuidem.* Elecar onhetz deçaçuela etxajari barcca diaçoçuela.

Hunten içanen çarete leinale, hunten içanen çarete egagutuac, eneac eta ene escolao eta compainian haciac eta iccassiac çaretelia. *In hoc cognoscunt omnes quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad meum.*

Badaquique, cenbat bide gabe, egun ciòten, Ioleph Patriarcha handi hari bere anaic : Nola gaiztersi çuten eta saldu çuten;

Era nola guero halaber demboraren buruan, guti vsteric, bere anaia sal duaren beharrera, eta menera ethorti ciren, berstuca han-dian iarri ciren; hain handian.

Ecen guero bere aita Jacob hilceyenean, hasi baitciren elccargana vilduric, elccarri erraiten. Cer içanen da bada orai gutçazk Hilda gure aita prestua, ona eta saindua: eta hura bici ceñio ongi guinen, segur guinen, ceren haren amoreac gatic, guente anaiac barccarcen ceracun.

Bainia orai, nor valiatuco çajicu? Nor gatic valiatuco deracu? Gogoeta handi çuten bere baithan. Era gogoetac, gogoeta eragui-

ten

## BARCCATV ETA AMOR IO EDVQYI 329

ten cerauela, errancioten elcarri. Lehen gure aitaren amoreac gatic barccatu cerachigure ure anaiac bada orai ere , haren gatic bera gatic barccatu behar deracu. Eta harraracoitzaqat ioan behar gatçait çä aitaren parter minçaterra , eta erran behar diogu harquerz molde huetan. *Pater tuus precepit nobis antequam moreretur ut hac tibi verbis diceremus. Obsecro ut obliuiscaris sceleris fratrum tuorum , et peccati atque malitia quam exercuerunt in te , nos quoque oramus , ut seruio dei patri tuo , dimittas iniquitatem hanc.* pillius  
Gen. o ltr.  
*Quibus anduis flente Ioseph. Iauna , errait endio-*  
*te Iosephi bere anaiec badaquicu gure eta gu-*  
*re aita prestua hil dela eta hil ere ongi eta*  
*sainduqui bici bezala hil eze. Hiltceracoan qu-*  
*re galdeguin çuen , eta harg beherapen handi-*  
*bat eguinic erran çuen. Non' da Ioseph ene te-*  
*me maite hura? Erroque haren iceus min hagi*  
*batequir hilien natoela . eta neure henadiclo*  
*nea badio dala. Erroque halaber , oraino coan*  
*seme onac bezala bethi ene vorondatea egui-*  
*duela eta orai eze egui behar duela. Bta enc*  
*vorondatea, ene azquen adioa eta orhoitz de-*  
*la , eztadin orhoit , quec egui cinioten bide*  
*gabeaz , eta maliciaz , baitia nahiz deraignen*  
*barccatu , eta halacotic iragan ezpsalliz bez-*  
*ala, anaiaitasun on bat eduqui, eta eracutsi : Haur*  
*gomendatzetzen diodala , eta ez bertceric : haur*  
*dela ene azquen adioa, eta harg ene amoreac ga-*  
*tic egui behar duena. Hunela bere aitaren par.*

Y

## 330 CERGATIC BEHAR DIOGVN GVEVRE

tez bere anaiaç Iosephi, mintçatu ceitçanean, beguiac busli ceitçan, nigarra iauci ceican: eta nola mendecatuco cen ecen, besarca bere anaiezey lothu ceyen, erraïten ceruela. Aitac manatcen nau barcca diaçaquedala : bâda halaco aitaren manua , eta halaco puñradan eta dembotan arimac eguitracoan emana , norc eztu complituco complitu çuen , guztiey barccatu cerauen.

Hala bâda guri ere gueure Iaincoac , bere azquen finean hiltceco dembora hurbildu ceicanean , erran ceracun. Iende onac badacusaçue nola nagoen neuté azquen pontuaren bez person nolabihar hil behar dudan: bâda baldin orainocoan bat ere ontasunic eguin baderatçuet baldin deusetan ere ene alderacotçat çot dun edireiten baditutçue ceu en buruoc , gauça bateguin bchar duçue enegatic, eta harçaz quitaten çaituztet. Ha iauna erraçu cer, ceren bihorz gogorra era eçagutça gutitacoa içanenda , çu becalaco aitaren manua, eta pontu horretan emana complituco eztuena. Cer? Elccar onhetz deçaquela, etsaiari ene amoreac gatic barcca diaçoquela. Haur da ene azquen vorondatea , eta guztien gañeric gomendatcen deratçue dana,

Beraz ezta ezterz erraiteric, barccatu behar diogu gueure etsaiari , egui ongui era eduqui amorio. Ceren hala manatu baicaiu gueure laungoicoac. eta manatu ere , ez ez noiz na-

## GVEVRE ETSAIARI DIOGVN

331

hi den , baiña bere azquen finean , bat bedera  
ri , den hitzic tripiena ere , bihotzean batrena  
sartzu behar litçay caion demboran .

*Bi garren arrokoina , cor gatic behar diogun gueurt  
etsaiari barreatu da eren mendecatcea beret-  
gac beguiratzen baitu Iaincoac.*

## C A P . XXIII .

**N**Ehorc bide gabe bat eguiten derat-  
çunean eztu nahi Iaincoat guec or- Deut. 32  
dañic bihur diaçoçu : berac hartce  
du bere gainera , mendecatcea eta Roma. 12  
iusticia eguitea . *Mea est ultio , & ego retribuam  
eis in tempore .* Etsaias gaizqui bat eguiten de-  
ratçunean , çuri baiño guehi ago eguiten dio  
Iaincoari eren harten , haren manua Itauten  
baitu . Ordea eztu hargatic Iaincoac bere hala  
gaztigatzen , iguriquicen dio , era iguriqui a-  
gatic eztu desohoreric . Beraz ezequç guec ere  
desohoreric içanen , berete munduraino igu-  
rriqueceaz , harerañio ez mendecarceaz . Bal-  
dia otsai pacientzia baduçu , Iainçoari berari ,  
berac daguiela vizten badioçu , çaren segur ,  
berac berari egun çaicen bide gabea , eta çuri  
ere egui deratçurena , colpe batez , escaz gabe ,  
eta mereci beçala gaztigatuco dituela , era be-  
har den dezczargua etsaiari eraguiné derauvala .

## 332 CERCATIC BEHAR DIOGVN-

Cerori ceure escuz shendecatu nahi baçara  
 penatu bēhar çara , eta anhütz- etan ere deus e-  
 cin egüinez guelditu behar çara. Ceren ventu-  
 raz etsiaia içanen baita , çu baino indartsu ago  
 eta botheretsu ago. Eta Liuioc dioen beçala  
*Vana sine viribus ira.* Indar gabeco colera, has-  
 ferreia eta mendecatceco desira parric ecinira-  
 gan deçaquey enarena , vanò da , alfer eta gu-  
 ti valio. Eta erraiten du Senecac ere. *Ergo ab*  
*ira absinendum est , sine par est qui laceffendus est*  
*sine superior , sine inferior . Nam cum pari contem-*  
*dere anceps , cum superiori furiosum & cum inferiori*  
*forsidum . Nola nahi den dela , begiratu be-*  
*harda iharduquitcetic , eta etsaiaren acometat-*  
*cetic , nahiz dela etsai hura çüre berdin , nahiz*  
*handi ago eta , nahiz tripiago . Ceré berdinare-*  
*quin iharduquitcea , dudos da eta perilos*  
*handia goarequin ethoqueria , eta tripi agoa-*  
*requin itsusi eta desohore . Eta guztiarequin*  
*ere haur hunela delaric , eta dela daquicilaric*  
*ere , iharduqui nahiz çabilçça , desira gaixtoz*  
*bethea çaudé , ezlioç etsaiari barccatu nahi .*  
*Eta hartan ceure burua galecen duçu . Ceren*  
*hartan ceure buruari , etsaiari baino calte gue-*  
*hi ago eguiten baitioçu . Hala emaiten du a-*  
*ditcera Erregue Davitec , erraiten duencan .*

Psalm 117. *Circundederunt me sicut apes.*

Ingratur nenduten etsaiec , erlec beçala.  
 Erleac nehor autsiquitcen duencan autsi-  
 quitcen ago du bere burua , Ceren bere ezte-  
 na eta bicia han vtzten baititu. Hala querthat-

Liuius dec.  
1.lib. 1.

Senec lib.  
de ira cap.  
34

## GVEVRE ETSIAIART BARCCATV 333

cen çaitçu bada çuri ere, etsiaiari autsiqui eguiten dioçunean , barccatu nahi eztioçunean eta bide gaberic eguiten dioçunean,guehi ago eguiten dioçu , ceure buruari.

Eta pontu hunen gañean , gauça bat , erran nahi deratçut , iaquin behar duçu ecen çuc ceure etsiaiari ez barccatu agatic,eztela handic seguitcen , baldin harc bere aldetic bere egnin bidea eguiten badu , eztioela hari Iaincoac barccatuco. Orduan ez barccatceaz , ceure bu ruari eguiten dioçu calte , eta ez ceure etsiaiari.

Eta hala bethi ere bai , baiña guztiz ere cerorj ecin mendeca çaitsezqucyenean , consola çaita eta iaquiçu ecen , Iaincoa mendecatuco dela. Eta harc eztuela vtzten , eta ez vtcico ere , faltaric , gaztigatu gabe: eta çuc cerorec eguiñen cintuen baiño , cintquiago , eta fintquiago gaztigatuco dituela. Eta nola anhitz etan erè,aita batec bere seinea cehatu duenean, çathircen baitu cigorra , eta egotzien fura : Hala çure etsiaia , çure cehatçaillea eta penatçaillea ere çathituco du Iaincoac,eta azquenean egotcico ifernuco sura.

Beraz hunelatan presuna batec, bidegade bat eguiten erraiten edo pensatzen deratçunenā erran behar dioçu Iaincoari. Jauna badacusagu certan naicen , eta cer eguiñ derautan : eta çuri,niri baiño guehiago eguiñ deratçu. Eta çuc badaquicu,nic baiño hobequi cer gazti gu eta cébat mereci dué ezta beraz arraç oin çu çarré leccuan , nic escuric har deçadan. Eta ha-

## 334 CERGATIC BEHAR DIOGVN

Ia atraçoin den beçala eta manatcen duçun  
beçala, cerorri vezten deratçut ceurc eguiçu  
iusticia. Eta hunein bertcez, ceren fidia baiñaz,  
eguinien dueula Oray danic mendecaturçat da-  
duçat neure burua, eta guelditcen naiz neure  
baithan sosegatua, eta etsaiari barccatcera  
deliberatua.

*Hirur garren arraçoina, etxaralcorz <sup>etxerena</sup>  
barccatu behar d.ogula gueure etsaiari  
Iaincoac guri barccadia çagun  
amoreac gatic*

## C A P. XXX



Math. 16

Ebar diogu gueure etsaiari barcca-  
tu, guri ere gueure Iaincoac barc-  
ca diaçagun gatic. Ceren Iaincoac  
berac errana da, ecen baldin barc-  
carcen baderaqagu guc gueure etsaiari, barc-  
carcuco deracula harc ere guri, baiña ez bert-  
cela. Eta ezcára gaizqui, guc gueure etsaiari  
barccatceaz, Iaincoat guri, barccaten derac-  
hunean: ecin erran diteque, ecin irabaci han-  
dia eguiten dugun huncan. Ceren nola gauça  
appurra baira guri eguiten çâicün bide gabea  
baiña handia, eta aldez infinituqui handia,  
guc Iaincoari eguiten dioguna, gure barcca-  
mêdua ezta deus lascoarenarequi còparaturic

Badira gauça batçuc, berac baccaric, bere  
eguitez gaitz baitira, baiña bertce batequin  
juntaturic eta elcezar harturic erraz dira. Odol

## GVERE ETSATARI BARCCATU 335

atheratcea copateca , purga vher baten , edari min baten edatea gantz da , penos da , bainha olasunarequin iuntaturic erraz da. Sendarcea gatic , gogotic , errecibitcen eta pairatcen dira Hala etsaiati ere eguiten derauzquitgun falten barccatcea , bera baccariac bere eguitez , gantz da , Ordea junta ezaçu , hargatic quri laincoac , eguiten derautçatçunac barccatcearequin , eta erexax idurituko çaitçu. Erraxqui barcatuko dioçu ceure etsaiari , laincoac quri barca diaçaqun gatic . Eta hala iende galduac eta adimen du gabecat içanen gera , baldin gueuro probeçhua gatic bedere , gueure etsaiari barccatcé ezpadio gu. Eguiçu cotoru , ea cenbat beciatu egün ditutçur orai noocoan , eta cein handiac eta nahi baduçu çuc barrcca diatçatçun hec çuri çeure laúgoicoac , barcca iatçotçu çuc ere ceure etsaiari , eguité derauz quitçunac Presuna batec bide gabe bat eguité deratçunu erraité duçu , czioçula barccatu nahi , ez behintçat hain fita. Ceré desohore ere badela , bere hala barccatcea. Hori da blasphemia hâdia , laincoare cõtra minçarcea Ceren hori da laincoaren manuaren cõplitçea , desohore dela , erraitea. Barccatu hebar dioçu beraz ceure etsaiari , eta barccatu ere , ez ez edo cein moldez , ez hitzez itchura penez , campotic eta edergaillu : bainha cin cinçez eta gogotic barrenetic etabihorzetik. Ceré iaquiçu ecen bertcela ezteratçula laincoac

## 336 CERCATIC BEHAR DIOGVN

barecatuco, cofessa ahal çaitetzque, gorputz  
saindua errecibi, barur, oracintonan egon, eta  
duçun guztia probey eman, baiña hec guztiac  
etçaiquitzen deus valiaçuco, baldin barrene-  
an nehorri herratric, heguingoatic, gorroturic  
edo vorbndate gaixtoric badiaduço. Eztit-  
que çauria senda, elhorria barrenteian deñio,  
eztitque beccatuá barcca, voróndate gaixto-  
ac diraueñio. Barberec buruco çaurietan, le-  
henic haraguja aldatatzen dute eta heçür crof-  
coa aguertzen, bitartean odol vstelic gueldi  
eztadin. Ceren baldin gueldi baledi, harc mi-  
dicinari eta eçarten den etremedioari, indar-  
ra flaca liaçao eta verthutea edequi : Hala ári-  
inaco çauri hunetan ere, lehenic behar da bar-  
reneco odol vstela, eta etsaigoaren vhertasu-  
na athera eta garbitu. Ceren bercela ezta sen-  
datetic, era ez emaiten diren midicinec, era  
eguiten diren erremusinec baturec, oracinoec  
eta bertce obra onec on eguitéric.

## §. I.

**B** Ere etsiari barccatu nahi ezterauanac,  
Ecclesi 2,9 etzu editené bere behar orduá arartecoric  
eta ez othoitz egüllerie. Ceren Spiritu sain-  
duac dioen beçala. *In hominem sibi similem non  
habet misericordiam, quis exorabit pro peccatis  
illius.* Bere lagunaz, bera beçalakoaz etzu  
misericordiaric, era ez vrricalmendutic  
nort eguiñen du bada othoitz halacoa-

## GERGATIC BEHAR DIOGVN 337

ren beccatuac gatic? Ez sainduc, ez, Ainguituc eta ez are misericordiaren amac ere. Geren Jacob z. jondone Iacuec dioen beçala. *Judicium sine misericordia, illi qui non facit misericordiam.* Misericordia gabeco iusticia, eguin behar çaiça, misericordiaric, eguiten eztuenari. Etçaiça barçatu behar, barccatu nahi eztuenari. Eta halacoac eztu berac ere nahi barcca diaçoten. Ceren, *Pater noster*, erraiten duen guztian, eguiten dio Iaincoati othoitz, erraiten duela.

*Dimitte nobis debita nostra, sicut & nos dimitti-  
m⁹ debitoribus nostris.* Iauna barcca iatça gutçu gueure çörrac, guc gure gana çordun direney barccatcen derauzregun beçala. Erran nahi-dū. Iainco iauna bareca iatça gutçu çure alderacotçat eguiten ditugun faltac, eta beccatuac, guc gueure etsailey, gure alderacotçat eguiten dituzten hutsac, eta gaizquiac, barccatcen derauztegun beçala. Eta ala baina ezterauztereu çuc barccatu nahi, ceure etsailey, eguiten derauz quitçutenac, beraz eztuçu nahi barcca diatçatçun çuri ere ceure Iaincoac, eguiten derantçatçunac. Ceren nola eguiten baituçu guc çeure etsairequin, hala eguiten dioçu Iaincoari othoitz, daguirela çurequin.

Falta bat nehorc eguiten deratçunean, erraiten duçu duçun bothere guztiaz : Nic haur hari barcca, lehen bicia galneçaque. Eta

Matth. 6:

## 338 CERGATIC BEHAR DIOGVN

ezuçu consideratcen, eta ez pensatcen, çuc Iaincoari falta handi agoac eguin agatic, nahi duçula guztiarequin ere, harc çuri guztiac barceardiatçatçun.

Considera eçacu bada çuc, ceure etsaiari barecatu nahi eztereuçaçuna, barccatu cerauela Iaincoac, bicia edequi ceraucaten etfaiey, eta are guchi ago eguin ceraucalabere aithari, hequeng gatic orhoitz, eta oraiño ceure etsaiac ez teratçutela çuri halaco minic, eta chimicoric eguin considera ecaçu halaber, cer erraiten duen Spiritu sainduac. *Memento nouissimorum & define inimicari.* Orhoit çaiteci ceure azquen fineco eguitecoez, hertiocceco pontuaz, arimaren ilquitceco dembora perilos hartçaz, eraorduan eman beharco duçun contuaz, eta hetçaz orhoiturie, vtzquitçu etsaigoac. Orhoit çaiteci nola nabico duçun çuc orduañ, azquen oren harran, eguin deçan Iaincoac çurequin; eguiçu bada çuc ere orai hala ceure etsaiarequin. Ceren haur da Iaincoaren manua; haur da harc nahi duena; haur da bethi ere, eta guztiz ere berc arquen finean gomendaru deracuna.

Bihoa beraz etsaigos, aparta bedi egun bertic, gueroco luçatu gabe, mendecatceco desira desordenatua. Ceren halatan içanen gara eçagun, eta seiñale, Iesu Cristoren escolan iccassiac garela, haren discipuluac garela. Eta bicico gara hihotz vccaldiric, assalduric,

## EGVITENDITVEN CALTEZ. 339

era iccatarie gabe ; baquean dagoen bat , mendecuric gogoan eztuen bat , eta guzti- quin adisquide , arronter , eta folhasturi dea- bar , biciitzen den begala .

---

Cenbat zalte eguzien duen haraguiaren beccatuan , lehenbucioric itsurcen duela adimendua , eta nola behar den hartzan sartzean begiratu , eta sar- thuz , guero ere , lehen basio lehen ilquistera en- seiatu .

## C A P . XXXI.

**B**aldin bertce beccatuetan hanbat calte eguiten badu kicamendu- tan ibiltceac , erremedioarengue- roco yrteac , cer eguiten du emaztetzaco beccatuan ? Haraguiari hain pla- cer qaican placerean ? Bat bederac naturalqui desiratzen dueñeán ? Eta baldin errden egui- tera yrz badadi , atxieratceco , eta camporat- ceco hain gaitz denean ?

Baiña ceren materia haur baita hain han- dia , eta lucea , perilosa , eta limburcorra ; dit- çagun lehenic eguité ditué calteac , eta emai- ten dituen eguitecoac considera , eta conta- eta guero halaber eman behar çaitçan pur- gac , eta erremedioac bilha , eman , eta ordena ,

Eta itsas hondar gabe hunetan sartzen nai -

## 340 HARAGVIAREN BECCATVAC

cela, eztut vste deia, eztaquicmic, gure ari-  
maren etsaiac direla hirur.

Mundua, Deabrua, eta haraguia. Eta hirur hautaric gaixto ena, perilosena, eta barren-  
correna dela haraguia. Haurda etcheco ohoi-  
fia, barreneco etsaiia, bethiere gurequin da-  
goena: Curari pipia, oihalari cerrena, vrdaiai  
cedena, eta haragiari harra beçala, gau eta  
egun alha çaicuna; tentateen, eta narritatcen  
gaituena, gueure ganic ecin egotz deçaque-  
guna. Halaco moldez ecen erraxago baita  
hartçaz minçatcea, eta beguiratu behar dela  
erraitea, beguiratcea baiño. Hala erraiten du  
Valerioc. *Luxuriam accusare facilis est quam  
vitare.*

Flaco da haraguia eta sendo. Flaco deffen-  
datececo, sendo tentatceco, eta quillicatececo.  
Anhitz habe, fabore, eta softengu behar du, on  
eduquitceco, erori gabe egoiteco, eta alsco du  
deus guri, occasino tripi bat, limburtceco, be-  
haztopatceco, eta erortceco. Hargatic erran

*Aug. serm. 250. de tēp. Tom. 10.* çuen san Agustinec. *Inter omnia Christianorum  
certamina, sola duriora sunt pralia castitatis, ubi  
quotidiana est pugna & rara vittoria.* Guitisti-  
noen arteco guerlaric handienac, eta gogor-  
renac, castitatearen guerlac dira. Ceren han  
baita gudua, eta combata egunoro, eta victo-  
ria, eta garaitia, bakhan, eta gutitan. Halatan

*Aug. epist. 206. T. 2.* dasan Agustinec berae errana. *Nullo tot Dia-  
bolus animas rere capis, quod laqueo pessimaram*

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 34t

*mullerum.* Deabruac anhitz sare badu ere arimen atcemaiteco, eztu batez ere hanbat atrapatcen, nola emazte gaixtoez, eta hec hedatcen, eta paratcen dituzten artez, sarez, lachioez, eta segadez.

## §. I.

**H**Andiac dira haraguiac, era haraguiaren amorio desordenatuac eguitendituen calteac. Eta calte pincipalenetaric bat; pincipalaena ezpada ere, da adimen duaren goibeltcea, iñiuntcea, eta itsutcea. Presuna amurusac eztacusa, eztarqui cer hari den; bere gogoztua haraguian daduca: iatean edatean, ohean datçanean, harten pensatcen du: bere solhasac, eta ametsac ere, hartçaz eguiteintu: eztu nahi bertce gauçaz nehor mintça ere daquion: itsuda, erhoda, cençutic campoanda. Halatan lehen agoco Poetec pintatcen çuten Cupido, amurusiaren Iaincoa, haurr, eta itsu. Itsu, ceren ez paitu icusten. Haurr, ceteren ezpaitu adimenduric. Eta badio Plutarcoc ere. Gaitz dela, amurus içaitea, eta centçuan egoitea.

Halacoa ez desohoreac, ez iendèn erraiteac, Plutar. in ez onen gastattceac, ez famia gaixtoan iart- Apholuhe. ceac, ez loaren galtceac finean deusec ere

## 342 HARAGVIAREN BECCATVAC

Ierem. 2.

eztu guibelatcen. 'Onager effutus in solitudine,  
in desiderio anima sua, astraxis ventum amoris su,  
nullus auerret eam.' Basa-asto amuruska boçala,  
beguiac itsuric, ihiztarien artetic iragai-  
tenda; edo cein periletan farten da. Bere  
amorio desordenatuaz bai, bere amurusiaz  
bai'baihagaineracoaz eztu conturic eguiten.

Vsoa beçala da halacoa. Vsoac eztu, bert-  
ce hegaztinec beçala, edarean burua góiti  
aitchacen. Edangogo duena, abreac beçala,  
hatsic hartu gabe, burua goratu gabe, colpe  
batez edaten du. Bertce hegaztinec edateco  
curca guztietan, ahatara baccotchean, burua  
goiti ailtchateen dute. Eta badirudi ecen na-  
turaleçac berac erarcutsiric eguiten dutela  
hala. Ceren nola orduan baitute perilic gue-  
hien, ceren orduan baitaude gueldi enic vre-  
rabea; eta orduan baitira ihiztariez ere ee-  
latatuac, barrendatuac, eta guardiatuac, hala-  
tan daude hec ere iratçariac orduan. eta  
edaten duten vrhorta guztietan ingurunera  
behacacen dute, eta burua goiti, guardia egui-  
teco beçala ailtchacen dute. Bainha Vsoac eztu  
halacoric eguiten, ahoz-peñdago asse ar-  
teisio, eztu bitartean bururic ailtchacen, eta  
ez ingurunera behacacen. Eta hartan da agueri  
vsoaren inocentzia, eta erguelqueria, perilic  
guehien duenean, baita erhoenic eta antisfa-  
benic. Hala da bada bere gogo guztia emaz-  
tetan ibenia daducana ere. Etsaia celatan

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 343.

dagocanean, perilic guchien duenean, da galduenic, eta erhoenic. Ceren bere edate hartçaz, eta placeraz bai cen, ez paitu deusez ere bertcez, conturic eguiten.

Cyro Emperadore handi hura, hain itsuru, Joseph. de Antiq. lib. era erguel du çuen, Apama bere amoranteat, 11. cap. 3. non hartçaz nahi çuen guztia eguiten baitçuen. Alde batetie, eta bertcetic beharondo-cahari ceican, batean biçarra, bertcean beharriac thiratcen cerautçan: haur batequin beçala, barequin dostatcen cen. Eta guztietan Emperadore erhoa, hortzat hirrituric, irriz, beha cegocan: miraillean beçala hartan miratcen cen, haren alegueratceaz, alegueratcen cen, eta tristetceaz tristetcen. Eta emazte gaixtoac batçutan here burua, bebariaz hasserre iduri eguiten çuen: eta orduan Emperadore şoroac, ahal ciren asimu ac, eta enseiuac balacatceco, eta baquetceco eguiten cituen. Amorantea cen nabusi: no, centho: emazteaguiçon: ojloa, oillar. Erran behar da escu handia hartzen duela emazteac amurus itsutuaren gaiñean, halaco Emperadore bat, ema-eztheus batec, halaz errendatzen duenean,

## 344 HARAGVIAREN BECCATVAC

## §. 2.

**G**Viçona delaric ordenatua , emaztearen Giaun, eta nabusi içateco , guztiarequin ere, amorio itsuac , haraguiaren appetitu desordenatuac , hausten du ordenantza haur: guçona eguiten du emaztearen muthil , eta azpico. Eztagauça preciatu agoric, libertatea, eta nabusitasuna den bañio. Bada hala bat-a nola bertcea galtceintu amurus itsuac , emaztearen hitz edetrey , eta maiñey behatzen çayenac. Hala galdu cituen bere libertatea, nabusitasuna, eta bai azquenean bicia ere. Assirioen Erregue batec, Semiramis, içen huneraco bi garren emazte eder famatu hura Aelian. de cela causa. Eta içan cen casua Eliano greciaris hist. co esquiribatçaille batec contacten duen be-lib.7. çala. Ençü çuenean Erregue harc Semiramis haren edertasunaren fama, quilitatu cen, gu-ticiatu cen: eraccarri çuen; iccussi çuen , eta iccussi çuen beçain fite, arçeman cen , sua pitzu cen, eta amorio hero itsu batez onherfi çuen. Eta noiz, eta amorio hura baitcegoen gorën pontuan , eta graduan , idurituric ecen orduan cela occasinoric , eta paradaric hoberen , nahi çuenañeguiteco , eguin cioen emazte gaixtoac othoitz Erregueri , arren dembora

## EGVITENDITVEN CALTEZ.

345

dembora appur batez , bortz egunez , eman-  
ciaçola ber e çuen escua, eta botherea, bitar-  
tean vt zceçala erresumañ manátcera. Erre-  
guec aitcin guibel guti behaturic , eta Salo-  
monen cõseilluaz ere contu guti eguinic, cei-  
fiec erraiten baitu. *Non des mulieris potestatem*  
*animetue , ne ingrediatur in virtutem tua & confus-*  
*daris.* Eztemoçula emazteári ceure duçun es-  
cuia, eta botherea, nahi ezpaduçu ceure burua  
ahalqueran icussi. Bainia maliciaric edo en-  
ganamenduric ahäl çatequeyenz gogora ere  
gabe, errar cioen deblauqui Erreguec, baietz  
deuseteran ere dudatu gabe : Eta ure berac le-  
henic agus eguin cioen ; berac bere escuz co-  
roaburuau ibeni cioen : eta manatu çuen, bi-  
ciaren penan, hurreneco bortz eguneran  
Semiramisharc manateen çuen guztia, eguin  
cedilla. Eta hain aitcina iragan cen eguitecoa,  
non icussi çuenean emazte gaixtoac, nola  
cen obeditua , manatu bairquen, Erregue be-  
rari burua edequi ciaçotela. Eta nic eztaquit  
nolahartu çuen Erreguec eguitecoa, . bainia  
bere hala manua complitu cen , eta trufan  
burlan burua edequi cioten. Eta guelditucen  
Semiramis Erregue, eta Erreguina : eta Erre-  
gue itsua bere erresuma, eta bicia galduric  
desohorezqui finatua. Iccussaçu cer eguiten  
duen emazteac , eta emazteraco amorio de-  
fordenatuac, nolaguiçona itsutcen duen; nola  
cer hari den eztaquiaela milla erhoqueria

Z

## 346 HARAGVIAREN BECCATVAC

eguiten duela, eta bere buruaren iaun, eta ja-be ezten beçala ibentzen duen.

Alexander ab Alexander lib. 4. cap. I. Zaleuco Greciaco parte batçuetaco Erre-gueac, icussiric ecen beccatu huneç, bat be-dera bere adimenduan barrena itsutzen que-la, campoan ere itsutafun hura aguer cedin amoreac gatic, ordenatu çuen, eta eçarri le-guea, noi ere erotico baitzen adulterioan, eta nore ere behar etzen emaztearequin hut-s egunen baitzen, halacoati, eta halacoey, hainari, eta hainey, hala guiconari nola emaz-teati, iusticiac beguiac atheraco, eta iracico cerauztela: Barrencañ, culparen veldur ga-be, itilatu cirenaz guero, campoan ere pena-requin itsutecin gatic. Legue haur ibeni çuen Zaleuco Erregue harc. Era hain herstu quibeguiratzen çuen, non ezpaïzen, fabo-ric, ahaideric; adisquideric, eta ez vreric, eta ez cilharric hauts araci ahal ciagaionic. Huts eguiten çuenac, ihes ahal cediqueyen alba ceguien, bainia atrapatuz guero, etçuen bareca menduric, beguiac galdu behar ciu-en. Erregue huneç legue haur hunein cinez beguiratzen çuen demboran, güerthatucci-can Erregue hunen beraren semeari, leguea-ren haistera, eta behar etzen emaztearequin huts eguitera. Erreguec here semearen falta haur iaquin çuenean, Iaincoac daqui cenbat damuharçen çuen, eta nola alde baretic here aitatasunac, semeara gana cedukan amorio na.

EGVITEN DITVEN CALTEZ.      347

curalac guibelatcen çuen , escuac lotcen erautçá; eta etcela arracoñ aita batec bere se-meia condena ceçan, erraiten cioen.

Etaberriz bertce aldetic nola iusticiac ale-gatcen cioen, legueac beguiratu behar cirela, eta batari barccatceaz , bertceac ausartcia hartuko çuela. Eta iusticiaren arraçoñ haug bortitz ago iduritric, se-meia galduco baçuen ere , deliberatu çuen , eta mauatu , iusticia eguiñ cedilla,bere se-meia atceman ciatçotela, eta beguiac leguçaren arauaz athera ciatçotela. Erresumac iaquin çugnean bere Erre-gueren deliberamendua, vildu cen comuna guztia, eta ioanceican guztia batetan othoitz eguitera, arren nahi cioen bere se-meari barca-tu. Ceren legue hura comuna gatic eguiña cela, eta comunac , hain Erregue onaren, eta iustiaren amoreac gatic , aldi hartacotz bere çucena quitatcen çuela. Comunare othoitz-ac , eta se-meia ganaco amorioac anhitz go-goeta eraguiñ ceraucaten , baiña guehi ago leguearen hautsteac. Ceren iduritcen cei-can ecen etçuela bere coroa segur iğanen, baldin tripiençat beçala , handiençat ere iusticia eguiten ezpaçuen. Eta hala anhitz itçul inguru , pensu , eta gogoeta bere bai-than eguiñic , azquenean ediren çuen bide bat bere caltetacoa, baiña se-mearen gazti-guaren arinteclo ona. Okher hobe , itsu baiño. Ordenatu çuen, ecen halaz, eta leguea-

## 348 HARAGVIAREN BECCATVAC

ren arauaz, halaco hursic eguiten çuenari, bi beguiac iraci, eta athera behar ceitçanaz gue-rozitic, athera ciaçotela aitarri berari bere beguietaric bata, eta semeari beretaric bertcea. eta halatan, bien artean caltea iasanic, leguea beguiria cedilla. Eta hala ordenatu beçala complitu cen. Aitac, etasemeac bere beguietaric bana galdu çuten. Eta guero handic harat guelditu cen leguea confirmatua, semea gaztigatua, erresuma güztia iccaratua : eta halaco saltaran erortzen cenarençat, barcamendu erdiesteco, esperantçaren ahea, herria.

Laudatcecoa cen Erregue hura, eta bai ibeni çuen leguea ere : cereñ eritasunari cegocana baitzen. Halatan itsutasunaz itsutasuna, gorputzezcoaz arimaco a sendarceco, eta ait-cincrat guehi ago eritecic, eta halacoric guerthatcetic beguiratceco. Cereñ haur da haragiaren desira desordenatuac eguiten duen lehenbicioz caltea, eta colpea, adimen-duaren itsutcea, lilitrateca, nahiastea, eta çoraturic ibentcea.

*Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen bigarren, eta bisur garren calteaz, ez-tuela den ahaicoarič burcoenaz ere konjuric eguiten, eta ez hartsao iramenturic complitzen.*

### CAP. XXXII.



*Araguiaren amorio desordenatua hain da gauça itsua, eta itsugartia, non halaco amorioa duenac ez paitu batçutan ahaicoaz eta konturiceguiten.*

*Ingressus est Absalon ad concubinas patris sui, 2. Reg. 6  
coram uniuerso Israel. Sarilhucen Absalon mundunguztiac cecusala bere aitaren amo-  
ranterrara edo emaztētara, eta han hequin seguitu çuen, eta içan parte. Halatan me-  
hatzatuçitüen iondonne Pauloc ere Corin-  
tioacoac, ceren bere vgaçamarequin etçaten  
cenbat, bere artean sostengatzen çuten.  
Omnia anditur inter vos fornicatio, qualis nec  
inter fratres, ita ut uxorem patris suis aliquis  
 habeat.* t. Cor. 5.

Hafa erraiten da, Neron gaixto hatc ere,  
Erromacō andre presinen erdiac desohora-  
tuz guero, eta idusi onetaco muchil gazte

## 350 HARAGVIAREN BECCATVAC

bat,iccuisten queñean,harcquin ere,naturale-  
 ga bera ere narda den begala,legiturz guero,  
 azqueñean bere ama propioaz amuratu ce-  
 ja:bere ama bera, ceñien sabeletic ilgür  
 baitcen demandatu quela.Eta hartaraz guero  
 emaztea bera ere comunzqui airatcen,quili-  
 catcen,eta gogoetan lurrera beha iartcen da.  
 Ceren materia hunetaco pilori on hateg  
 dioen beçala. *Illa est casta, quam nemorega-  
 nus.* Nehorc orhoitu , era othoitzu eztuena,  
 Ouid.El.2. da casta,garbi, eta p'etu. Añhitzeian haz-  
 teintu ossoqui orloac , bere chito guziac,  
 mirua oldarci gabez. Anhitz egut eder gue-  
 ducen da oihanean eccarleric gabez. Iarrai-  
 tunic içan eztuena, mandaturic zdo talhoric  
 egun elçaicana; nehorc ernatu, orhoitu , era  
 behariu eztuena,erran ahal diteqüe segurqui  
 bere ohorean dagoela, eztela eiroti , eta cz  
 limburtu.Baifa demandatzu guero, oldartz  
 guero,bulccaturz guero,eta gai denac, gai de-  
 nari,bere moldean,paradan occasinoá, dem-  
 boran, eta sequereturu nabatbentciaric gabe  
 aditceria emanez guero,peril da,baldin choil  
 gogor ezpada,bera dadin,limbur dadin,aino-  
 radadin; Eta demandatua içaitchuria , harta-  
 coa dela , eta ederra dela ençute hura , eder  
 iduri daquion. Bada Neronec bere amari  
 mandatua egun cioen , eta ama ere ercen  
 munduko emazteric prestuena,beraz perile-  
 tan içan cieren.Eta bada erraiten duenle, biac

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 351

carroqan edo cotchean ibili cirela , eta han  
bere iocoa iocatu gutela.

Hala Henrico , icen hunetaco cortci gar-  
ren, Inglaterrako Erreguac ere, bere emaza-  
te prestua vticit , bere alaba bastarta, bert-  
ceren emaztea ganic eguna , hartu quen  
emazte. Eta handic bere burua , eta bere  
errefumaco guitistinotasun guztia, galdu  
cituen.

Bada berteeric ere hunelaco cafuric , eta  
exemploric anhitz , gaitz bailligateque ,  
laurdenen ere contatcea. Asco daiaquitea,  
behin behar ezten amorioa iaunduz guero  
eztela legueric beguiratzen , eta ez den ahai-  
coar e harcoenaz ere, conturic eguiten. Cein  
baita haraguiaren beccatuac eguiten duen  
bigarten caltea.

Hirurgaren caltea da. Ezta arneguric , iu-  
ramenturic, eta ez falseriaric , emazterian it-  
sutura dagoen batec eztaidiqueyenic , eta ez  
gueçuric ere erran ezteçaqueyenic. Han-  
dic harat hala itsutuz guero , lehen hitz  
onetaco , eta eguiati cirenac , egunteen dira  
gueçurti , arnegari , eta iuramentutsu.  
Ceren bere desiren hiztea gaitz prometat-  
zen dute anhitz , eguiten dute milla iura-  
mentu : baina guero nahi dutena , iragan  
dutenean , ezintze conturic eguiten , ezintze  
deus compliteen , guztiac hautsleintuzte.  
Eta hala etcen lehen agoco jentilén artean,

Perrus de  
Ribadenei.  
ca.lib.1.Hi.  
stor.Angli-  
ca.cap.7.

## 352 HARAGVIAREN BECCATVAC

Alexander ab Alexan-  
dro lib 5.  
cap 10.  
Plato.lib.5.  
de amore.

balaco, eta hartaco iuramentuez, conturic  
eguiten. Halaco moldez ecen ethorri bait-  
cen Platon erraitera, Iaincoec ere dissimu-  
lacen cituztela amurusen iuramentuac, eta  
promesac. Eta egungo egunean ere, ezta halac-  
o iuramentuetan cer sobera fidatutic. Ce-  
ren amurus jisatuac, bere placeren ondoan  
dabiltza, eta ez vere promesen edo iura-  
mentuen complimenduaren: Cein baita ha-  
raguiaren beccatuac eguiten duen hirurgar-  
ten caltea.

*Haraguiaren amorio desordenatuac egniten daen  
lanr garren caleak, amotsu, eta baquezko cire-  
nac, egusken basitutu cruel, eta querlati.*

## C A P. XXXIII.

 Morio desordenatuac hanbat calte  
eguitendu, non behin harc itsutz  
guero, amotsu, eta baquezko cire-  
nac ere, eguiten baititu anhitzetan  
bere desiren complitcea gatic, traidore, bi-  
hotz gogor, cruel, eta erhaile.

Erregue David lehen, hain saindu, bihotz-  
bera, eta inisericordios cena; eta bere et-  
saietere bethi ongi eguiten, eta barccatzen  
hari ceyena; egun cen azquenean hain dif-

## EGYITEN DITVAN CÄLTEZ 353

ferent non vriaz bere adisquide maitea , eta  
capitain ley la haren emazteaz goçaleca ga-  
tic , hil araci baltzuen.

Hala halaberfrai Joan Guerin, hain saindu Historia  
handi aren faman cegoen haic ere, Gulfrapc.<sup>in ontis ser</sup>  
los Barcelonaco Coudearts alaba, gomezol <sup>rap x</sup>  
otan etman ciotena , gorputz ez ican queanean  
hil araci quen. Hala guéchatu, ceicán iondone M. tephrae,  
Iacue penitentialea deitzen çuten hart ere, <sup>in via e-</sup>  
haubat demboraz etsai gaixioaien tentamen <sup>iusdem die</sup>  
duac, ichilic eta aguertriz garaituz guero, han-<sup>28 Januar.</sup>  
bat penitencia eginez guero azquenean hain  
itsusqui erori cen , non sendatceco eccarri ce-  
raucaten nescato batz bere ona galarraci baitce  
raucan , eta guero azquenean bere beccatu-  
aren estalceea gatic , yra bethera egocci bait-  
quen.

Hemen erran ahalditeque, gure salbatçail-  
leak bere passioneko egunean , Ierusalemeko  
alabey erran cerauens.

*Si in viridi lygno bac fium, in arido quid fiet?* Luc 13.  
Baldin Erregue David eta erranditugun bert-  
ce presuna saindu hec , hanbat demboraz, ha-  
raguiaren appetitien vençutzen , oracintonan  
contemplaciontan eta penitenciaran egon ci-  
ren hec , hain torpequi , haraguiac istuturic  
erori baciren; cer icanen da. Iaincoz, munduz  
eta concientziaz conturic eguin gabe laçoqui  
eta antisicabegut bat ere crinariaz gabe biciteen  
dizenez? Eta ate beccatu, eguiocco occasino  
öilha dabiltsa-nez.

## 354 HARAGVIAREN BECCATVAC

Aita batec bere semeari diaducon amorioa, delaric handia eta naturala, guztiarequin ere, amorio desordenatuac, hain flacatzen eta cordocatzen du amorio natural haur, non barcuetan etroetaric erauzten eta atheratzen baitu.

**Salust.** in  
vita Catil.

Catilina Erromaco guicon gaixto harc, et-  
quen seme bat baicen, eta hora ere ia adine-  
tara heldua, obedientia bere manucoa, eta as-  
co prestua, eta guztiarequin ere, bere desira  
desordenatuac, Aurelia ceritçan andre bate-  
quin complitcea gatic, hil araci quen bere se-  
me hora. Ceren hora bici ceinò, haren vel-  
durrez, ezpaiteican Aurchia behatu nahi. Ha-  
la esquiribatzen du Elianoc ere Lenilla cerit-  
çan andre handi batec, bere placerac, bere  
placerera, bere cerbitçari batequin iragaitea  
gatic accusatu cituela bere seme propioac Er-  
regueren aitcinean, erraiten ccla ecen traido-  
re cirela.

Eta hadic eguiaz edo gueçurrez frogatçac egui-  
nic gal araci cerauztela biciac. Eta guero neho-  
ren veldur gabe, guelditu cela, bere cerbit-  
çariarequin, bere amorio itsuan itsuna.

**Arist.** lib. 2  
Polit. cap. 1

Halatan erraitendu Aristotelec, ongi e-  
guin çutela lehen agoco Poete, Mars eta  
Venos elcarrequin ezcontceazt: Mars guer-  
la guionoa eta Venus amurusiaren patroina  
Guerla eta amurusia ezcondu cituzien elcar-  
requin,

## EGITEN DITVEN CALTEZ 355

Ceren cpmunz qui amuruhastic sortcen bai.  
tira gueriac eta differentiac Halaran haleber  
lehen agoco ientilec eracusteco, cer azura eta  
complecino quen emazie gaixtoac, pintatzen <sup>Wudicino</sup>  
çuten lehoin bat. emazie beguitatearequin.

Ceren emazie gaixtoac lehenbician lau-  
sengatzen eta balacaicen badu ere, ordea az-  
quenean, lehoin gosleac beçala larrutzen era  
deseguiten baitu. Hargatic erraiten du Spiritu  
sainduac *Fanns enim aifillans labia mercericis*  
*& nuditus oleo guttur eius, Nonissima autem il-* Proverb. 5  
*lus amara quasi Absynthii* Ez temoçula contu-  
tic emazieaten balacuari eta enganamendu-  
ari. Caren eztia daron berasea beçala dira  
haren ezpaibac eta olioia baiyo leunago haré  
leppoa, ordea ondorea azquen fina Abscintio  
belharra beçain min eta goço gabe.

Lehenbician amorio handia, azquenean  
gaitz erizcoa errabiarua. Lehenbicico egun-  
ean besarca, hurrencoan colpeca Adis-  
quidetasunetic etxalasuna, amoriotic desa-  
moria sortzen da.

Erran behar da handia dela Satan gaixto-  
aren artea, bi gauça hain differentiac,  
nola baitira amorioa eta desamorioa adisqui-  
detasuna eta etxalasuna elkarrequin iuntatze  
eta bara bertcea ganic atheratzen diruenean.

Haraguiaren placeretan ez ohi da dant-  
garic, eta irritic : baicen iateric edateric  
eta amorioric baicen, eta guztiatequin cre-

## 356 HARAGVIAREN BECCATVAC

ere etxai gaixtoac gauça hauc guztioc imprentsuaz beçala bertce alderia itzultceintu: Onherizcoatic gaitz erizcoa; baquetic guerla, irritic nigarra, eta dantzatic ( Herodes baithan egun çuen beçala ) heriotcea atheratzen du.

Hunelatan athera dadin eguiaten Salomonec dioena. *Extremo gaudi⁹ Indus occupas.* Atseguiñ dasunaren fina eta ondorea atsegabea da, eta dolua: Ezti- Berazcatic Ab-sintioa, placeretic desplacera sortzen da.

Amorio desordenatua, bereaz eguna duenean, des amorio bihurtzen da. Haurda, haci hunetaric sortzen den bihia, amo- río desordenatua eguiten duen laur garren caltea, baquezcoen guerlati, ora bihorz beren, era amoltsuen omorio gabe, era bihotz gogor eguitea, eta errendacea..

## EGVITEN DITVEN CAITEZ 357

*Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen  
borz garren calteaz : soseguric eta pan-  
furic gabe ibentceaz..*

## C A P . XXXIV.

  
Araguiaren appetitu desordenatua eguiten dituen, desordeauetz eta caltez mintxo garenaz gueroztic, goacin aizcinago, eta edireneng augu, ecen emazte guiza-coiac, eta emaza-coiac, presuna putaneraç eztuela deusezan ere soseguric, eta ez pausuric.

Noic erranen du, cenbat atlecabé, cebac gau eta egun gaixto iragaiten duen halacoac, halaguiçonic nola emazteac? Nola compaiñia prestuac yeciric, bere eguitecoey guibela emanic, loa galduric, bera baccarric itxal gaizca, aizatua, basatuera iduricotua ibiltzen den? Eta erráiten duen bere baithan? Iccussiorbe naure? Ceriothe diote niçaz? Eta deus ençuten badu, diotela, hassenrercen da, gaitzerizkoan batarequin eta bercearequin iartzen da. Ceren nahi luque, bura bera begala, bertceac ere itsu liren, eta nehorcezleran deus. Eta ala bainha ezta hartzko solha-

## 338 HARAGVIAREN BECCATVAC

sic baicen.

Guztiec, bárac alde batetic, eta bertceac bertcetic, saltla nahasten, eta iratioicen dute guzta ac hantçaz mintço dira. Bertceric ez paliz ere, bere amoranteac berac etcacceu diò berri franco: norc cer dioen, noi nola mintco den, direnac, eta ezrenac, garraistcen derautça. Ceren halacoac, hattaco dira on eta ez bertcetaco. Han da munduko el-habéti, etran-merran eta nahasteca guztia

Nic vitedut ecen emaztetaria emana den guionha hala deifio, oin dat- queycia ongi eta guztiz ere baldin ezcondua báda. Ezcondu gabe baten erotcea behar ezten emazte batequin seguitcea e zea ongi becaiu da. Bainha aldez ezta hain miretsko munduko arauaz.

Ordea ezcondu batec, emazte ederra, eta prestua duen batec, hura vicitic, har deçala itsusibar, begui-ceihar bat, ezquel bat, betheriasu bat, finean eztheus bat: eta harezquin iossia beçala egon dadilla.

Erran behar da adimendua itsutu çäicala memoria nahasi çäicala, eta vorondatea behar ezten aldera irçuli çäicala. Halacoaren erchean ezta guerlaric, liscarric, era bicitce gaixiotic baicen. Ceren emazte ezcôdua eztu deusec etc, hala guiharran vquitcen, crozcan erauzten, eta ez bere tentutic eta pacient ciatic atheratcen, nola bere senharra bertce-

EGUITEN DITVEN CALTEZ      359  
cequin diabilcola iaquiteac.

§ 1

**B**AÍNG guero nahi nuque iaquin :guiçon ezcondua bere emazte prestua vtciric, cerc hala, behar eztenaren hartcera itsutendu? cerc alda guratcen du? Hitz gutiz ihardesten du San Hieronimoc. *Quicquid non licet magis desideratur.* Hieron. in cap 13 osteg  
ça fori eztena desiratcen ago du, hartara lehi ago du. *Aqua furtiva dulciores sunt,* dio Salomonoc. Vr ebañiac ezti ago eta goço-ago dira.

Halatan Plautoc ere, hobequi ago saltcea gatic eguiten çuen oihu, emazte ebañiac ce-cazqueyela. eta Poeteç adulterioa deitcen çuten, epascoa ohoin queria. Haur da lehenbiscico arraçoiña, ceren guiçon ezconduac, berrea baitio bertceric nahi ago duen. Ceren berrea ezpaitu debecu eta bai bere eztuena, eta nehorç debecura lehi ago baitu. Halaberbi garren arraçoiña emaiteu du San Geronimoc berac leccu berean. *Quod varietate dulce est affiditatem vilescit.* Proverb. 9 Bethi ere coac, higuintza emaitendu, alda nahia eccarcen du. Nola guiçon ezcôduac bethi ere baitu bere emaztea bere estuko bereaz fráquia, eta bertcerenaz escasia eta escas dê gauça maitaro eta iarrailquiz

**360 HARAGVIAREN BECCATVAC**

icasiten dena , cesiratzen ago , eta goço ago i-  
quritzen baita , halatan presuna ezcondua be-  
rea vticinç , bertcerenera lehiatzen da , alda  
nahitzen da eta handic geltzen da.

Ceren amorantea egunvez guero , haren  
gana egoizten du bere gogoa harequin , ga-  
star ceintu bere onac:handic harat bere emaz-  
teari , eta haren ganic iagan diteuen haurrey,  
guibela emaitzen deraue. Eta baldin on han-  
diac ezpaitu , ecin dateque errumeztu gabe.  
Ceren amorantea , eta guztiz amorante mia-  
ña eta escalea , huntz adarra begala da.

Huntçac inguratzen du euhaitza , besarcat-  
zen du , edosquitzen du eta azquenean ihar-  
zen du. Hala bada amoranteac , bippiltzen du  
larrutce du , arinian eta gorputz can ihartce du

Vrricalquiçun da halacos : eta bai amoran-  
tea ganicaco haurra ere. Ceren nola ezpaita  
legitimo , nola baita , bastart , bort , ezcont-  
çaz campoan eguna , ecin mintza diteque li-  
brequi ien darteau , ecin bururic ailtcha deça-  
que : bere hala lehenbikico liscarrean , puta  
seme deitzen dute.

Eccles. 4. Hargatic erraiten du Salomonec , edo ha-  
ren ahotic Spiritu sainduac. *De patre impio  
queruntur filii , quoniam propter ipsum sunt in op-  
probrio.*

Aita gaixtoaz errecuratzen dira semiac ,  
ceren hora dela causa baitira dezohorezco  
Seme bastartac berac eztu hobenik , baita be-  
ie aitarena

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 361

re aitarena gatic , eccarri behar du burua bera  
hera. Solon handiac Ateniascoen maestru-  
ac umec bere aita ametara duten obligacino-  
az mintzoco dela , nola ohore eccarri behar de-  
raueçan , eta bere behar orduetá , eta gezuz ere  
çahartceá , behar diutzreo faboratu , atherat-  
ceintu obligacino hubetaric bañariac , ez contr-  
çaz landanea campoan eguinac legitimo ez-  
tirenac. Eta arraçoiha , ceren aita ama hec el  
carrequin batcean eta iuntarcean , intencione  
guchi ago içan baitüten bere placer desorde-  
natuen complitceco , sema era alaba içaitocco  
baño eta nola hequen voiondatearen contra  
eta hec nahi gaberic egninac baitira , hala du-  
tela mereci gaztigu hura era guehiago ere.

Iccusachu cein gaizqui den guijon ezcon-  
dua , bere emaztea viceric , behar ezte-  
narequin dabillana , eta bai hetaric içaiten  
den haurra ere.

Bada eritasun hunez cutesua guerthatzen  
den Eliça guijona are da gaizqui ago eta gal-  
du ago. Perida halsoac , alaide probe guri  
ezconduco duen erremusinac bakhan egui-  
nen diruen. Ceren amorantea eginez  
guero , bere gogoa eta bihotza , haren bait-  
han ibentzen baitu , eta bere onac ere hare-  
quin gastraceen eta hondatzen baititu.

Bi beccatu fuerte dira , beguiz begui , eta  
artezi Eliçaguijonari contra dagoçanac , Eli-  
çaguijonaren eisaiac eta galgatriac.

A a

## 362 HARAGVIAREN BECCATVAC

Bata da emaztequin seguitcea, eta bertcea eta saigoan egoitea. Nahi du laipcoac, haré etche-co cerbitçariac, appez ordenatuac dituen guztion gainetic bi abantail, baquea eta gárbita-funa. Ceren sagaramendu garbi bat, eta ba-quezco bat erabilten baietx escuen artean. Beraz hunelatan eta saigoan dagoena ere ez, baiña guztien gainetic emaztetan dabillana ezta appezetaco on. Eta hain da eguiak haun, non viste baitur ecen, emaztetan faltaric eztuen appeceri, bertceric anhitz falta içan agatic ere, hec guztiac hobequi barcca, estal eta dissimula daquidit çayola: eta bertce guztiac eztute-ja hala desuistatzen, eta ezbere ohorean no-thatzen, nola emaztequin ibiltceac, eta cu-fatceac. Emaztetan eztabillanappeça, ema-ççu sindutçar: eta dabillana, hala dabillañoi emaççu galduçar.

Beraz hunelatan, principalqui Eliça guigonac, eta presuna ezconduac, baiña guero beguita biteci bertce guztiac ere, haraguiaren lohian sartceric, eta hidioiztacetic. Ceren behin hidioiztatuz guero, iaquin ahal de-çaquete ecen caltiar, eta sosegua gabe içanen direla: eztirela vrriquj gabe guettharuco. Eta guero eta guero, cenbarenaz, eta guehi ago, egonen baitira, hanbatenaz barren ago sarttuco, eta ncquez ago ilquitco, eta gathis tuco direla.

363

*Haraguiaren beccatutic beguirarreco , eta han-  
dic heldu diren oalde erremediarreco , lehen  
bicico , erremedioa , eta bidea  
Oramoa.*

## CAT XXXV.

**H** Araguiaren placerey , desira desore denaturey , eta eguiten dituen caltey , erremedio emaiten hasi baino lehen , erran nahi dut gauça bat , eta ibeni eta pausatu eguiazco cimendu bat.

Emaztetatic escapatcea , castitatearen begiratcea , haraguiaren beccatuan erori gabe eta cursatu gabe egoitea , irautesa eta perseveratcea , Iaincoaren donua , dohaña , emaitza eta garacia dela . Eta garacia hura gabe , alfer direla , gure ahalia , nahia permatacea , eta enseñu guztiac . Non est Virgini- Ambros.  
tas que pratio emittur , non virtutis studio pos- lib ; ep.  
sideretur . Dio san Ambrosioc . Ezta ez Vir- 31 .  
ginitatea diruaren pisuz eta gure indarrez eta verthutez erdiesten den gauça , ceten haraguiac , haraguiaren vençutcea : naturaleğac naturaleğaren azpirateea , gaitz da . Hartacotçat berreceren faborea , naturaleğarea

Aa 2

## 364 HARAGVIAREN BECCATVATIC

gañean escu duenarena behar da. Eta hala  
 iaquin ahaldeçequ bat bederac, ezteçaque-  
 yela haraguiaren contra victoria ossoric er-  
 diets, bere ahalen fidatzen deiño, berac  
 eztuela deffendatceco indarric asco, etxita,  
 gogatua, eta errendatua iar arteño. Behar du  
 eçagutu, bere etxai haur garai çaicala eztirela  
 indarrez berdin. Eta hala dela eçaguturic,  
 behar du halaber lagun bilhatu, eta fabore  
 escatu baldin nahiez padu caltiat guertatu eta  
 vençutua guelditu. Haur da eguna haur eça-  
 guturic, erran çuen Salomonec. *Vt scius, quo-*  
*niam aluer, non possem, esse continens nisi deus de-*  
*& hoc ipsum erat summa sapientia, scire, cuius*  
*esse hoc donum, ady Dominum & deprecatus sum*  
*illum.* Iaquin nuenean, ecin nengoqueyela  
 erori gabe, Iaiucoac eduquitedezpaninduen  
 eta hunen jaquira ere Iaincoaren donua cela  
 ioau nintçican bere hala editeitera, eta e-  
 guin moen othoitz : bere elcutic eduqui nint-  
 çala, erortcetic beguira, nintçala, eta garaitia-  
 requin gnelditceco indar era antce eman cia-  
 çadala Halatan eguna hunen berri ciaquienac  
 beçala, eguin cioen othoitz San Augustinec  
 August. 10 ere Iaincoari, erraitencioela: *Continentiam*  
 conf. c. 24 *inbes. de quod inbes, & inbe quod vis.* Ma-  
 naten duçu, beguira deça gula castitatea,  
 emaçubada manaten duçuna, eta guero ma-  
 na eçacu placer duçuna: manna beçala, ema-  
 çu, manuaren complitceco eta beguiratceco

## BEGVIRACTCECO ERREMEDIOAC. 365

indarra ere ceren halatan bai, bañia bertcela  
ezta complitceric eta ez beguiratceric.

Bada haraguiaren beccatuan , lehen edo  
guero , aldez edo moldez , obraz edo gogoz ,  
cúlsatu gabe , edo limburtu gabe egoitea , eta  
irautea , Iaincoaren donua eta emaitça , gue-  
roc gueure indarrez , ecin erdiets deçaquegu-  
na , denaz gueroztic , erna gaitecin iratçar gai-  
tecin , eta erortceric beguiratceco , ahal dira-  
tequeyen habeac , sostenguac eta erremedioac  
bilha ditçagan.

Eta lehenbicico erremedioa eta sostengua  
da oracinoa , othoitza . Gucureaz denaz be-  
ğan batean , errendatuac iarritic , garaitia emai-  
nic , erauqui erranic , eztrugula indarric asco  
eçaguturic ; gueure Iaincoari heldaquinigula ,  
eta bere escutic eduqui gaitçala othoitza egui-  
tea . Eta othoitza hunequin batean ama Vir-  
ginaren , castitaren patroin beçala ararteco  
ibeotcea . Ceren baldin Eliçaco doctor bat-  
çuec dioten beçala , ama Virginac , are mundu  
hunetan cenean ere , nori ere , eta norc ere be-  
hatzen baitcioen , hari , haraguiaren desira de-  
fordenatuac eta gogoeta liçunac iraunguiric ,  
hequen leccuan gogoeta gaibi batçuc , eta Ambros  
garbi qui biciteco , nahicunde handi bat-  
çuc , pitzten eta emaiten bacerautçan : Cen-  
de institutie  
Vug c.7.  
batenaz orai han goiticic , loriatic , hanbat  
S Thom 3.  
credit eta escu duen leccutic , bere debotey ,  
Sentent.  
eguiazqui gomendatcen , çalzconey erditz-  
q.1.art.3.  
ad L

**366 HARAGVIAREN BECCATVTIC**

fico deraue , eta erdieñitic emanen deraue , haraguiaren tentamenduen haiçatceco eta vençutceco , indar , bothere eta garacia?

Beraz daguiogun Iaincoari othoitz eta oracino , emaiten diogula ararteko bere ama Virginia , beguire gaitçala . fabora gaitçala.

Ceren lehenbicico erremedioa eta erremediioric hoberena , haraguiaren lohian ez sartceco , eta sartuz guero ere , fitx ilquitceco , aratz eta garbi guelditceco eta egoiteco , haur edireneng dugu , Iaincoari gogoz eta bihorcez othoitz eguitrea , eta ama Virginianaren ararteko ibentcea eta emplegatcea.

*Haraguiaren beccatuic beguiratceco , bi gar-  
ren erremedioa ; hartaco gogo etey ,  
leccurricetz emaitza.*

## C A P. XXXVI.

**B**. I garren erremedioa, eta erreme-  
dio ona eta hautua, emaztequin  
eutsatu nahi eztuenatentçat, da,  
hartaco gogoetez beguiaren edu-  
quitcea ; heldu direla icusten direnean at-  
hearen herstea. Sua pitzen denean da er-  
raxenic iraungnitceco ; era bai landarea  
ere tripi denean bir landatceco eta atherat-  
ceco.

Gogo etetaric, pensatzen egoiteric heldu  
dira beccatu guztiak , eta guztiz ere haragui-  
renac : handic hasten dira , hec dira cherroac ,  
hec dira landareac era etroac. Hec beraz  
behar dira handitetic beguiratu. Soldaduac  
etchean barrena sarthuz guero , nahi duena  
eguiren du : hala eguiren du bada halaber na-  
hi duena gogoeta gaixtoac ere , gogorat olatu  
hartuz guero , han behin paulatzuz guero .

Suco inarra, suco chinda, bera ere bere bu-  
raz sile iraungittcenda ; ordea çuc an arte-  
raño iguri qui gabe , paulatcera ere vici gabe

**368 HARAGVIAREN BECCATUTIC**

bere hala poutu beraean , ceure ganic egotz ten duço. Hala bada emaztetaco gogoeta gaitxoare , bere hala aguerceen den beçain fitxaiçatu virundi , eta ceure ganic egocci behar duçu.

Egun batez galdeguin cerancaten frai Gil, San Fracilcoren lagun saindu haria, ea cer moldez , edo nola garaiten cituen haraguiaren tentamenduaç, guticiac, quilicadurac eta harraçaco gogoetac? Era ihardei si çuen. Ene vorondatearen atheac ioiten diruzteo gogo eta gaixtoey erraiten derauet. Ea tenta garriac, iragan aitcinat; ezta bemen çuentçat ostatturic era ez pauza leccuric. Ez tut erchean barrena sartceratztzen , ez terauer beguitarteric eguiten ez terauer ostatturic emaiten , ez naizhequin goçatcen , era ez folhasean iartzen , bere hala iauci eraguiten derauet : era halatan, ez hec ni , baitia nic hec garaitceintut.

Ehortzen çaitçu gogora behar ezten emaztes , eta hareqaico placera : era çuç gogoeta hora ceure ganic , bere hala , egotzi , behar bidean noia egotcico duçun ecen haitan çapoporatzen gara goçatzen çara , eta are obran baitcina beçala , anhitz etan ere , ceure googoan atieguin hartzen egoiten çara , eta hala egonez beccatu mortal handitan erortzen çara.

Ceren ez obratu agatic , obratzeoco googoan , eta are obratzeoco gogoric gabe ere,

## REGVIRATCECO ERREMEDITOAC. 369

gogoeta hartan atseguin hartcea , beccatu da. Hala erraiten dute Theologoec. Non solum consensus in alium , sed etiam consensus in Hieron. ad deletionem est peccatum. Hunen arauaz er- Paustur raiten du san Geronitoc ere.. Periu & monte Casiac l.b. virginitas. Galtcenda,gogoz ere, virginitatea. 6.cap.19. Eta badio Casiacoc ere. Mulierem ignoro, & virgo non sum. Eztaquit emazteren berritic, eta ala baiña eznaiz virginia.

Ceren san Matheoc dioen beçala. Qui vi- Matth.5. derit mulierem ad concupiscentiam eam , iam machatus est in corde suo. Emazteati, desiderat ceco , era desira hartan atseguin hartceco contuan , behartcen dioenac, egun duque ia bere gogoan , eta bihotzean beccatu pontu haur consideraturie, eta huni erremedio eman nahiz, erraiten quen san Gregorioc. Celer ergo & facilis vitoria contra libidinem est , circunspectio Gregor. in cogitationis, si quoties carnalia obuiam , ad aliquid cap.1. Reg. aliud recurravimus , quod libidinis incitamentum non sit. Haraguiari contra eguitceco , era haren ganic vitoria erdiesteco , bide ona da , eta lastetra , harraco gogoetey beguiaren eduquitcea , eta hequen leccuan berrce gogoetari lotcea.

Gure gogoa ecin dagoque gogoeta gabe ; ecin gauteque , cerbaiteran pensatu gabe. Pontua da ea certan pensacen dugun, nolako gogoeiac oirugun ; eta baldin gaixtoac badiugu, vtz hec , era har hequen leccuan onac.

## 370 HARAGVIAREN BECCATUTIC

Beguirauten, etçaudela emaztetan pensacen. Ceren pensatce hartaric erhortico çantzen atseguiñ hartcea : atseguiñ harcetic, desiratcea : desiratcetic bidén eguitea, eta obrarcea. Elaguztiac heldu dira, gogoaren lehenbicico orhoitçapenetik, eta orhoitçapen hari leccu, eta olatu emaitetic, erroen eguitera, eta handitecera vtzteric. Beraz hartaric beguiratu behar da. Ceren hura da emaztetaco beccatutan erortcetic beguiratceco bi garren erremedioia : hartaco gogetey leccuric ez emaitea, aguertcen direnean khentcea, baraceera ez vtzcea, eta ez solegatcerera : veltçuri bai, baishia beguitareric ez eguitea.

*Haragiaren beccatutic beguiratceco, birur  
garren erremedioia, vorondatearen  
deliberamendua.*

## C A P. XXXVII.

**D**ez erortceco, eta eroriz guero ere, iauquitceco, erremedio handia da, gogoa, vorondatearen deliberamendua : hain handia, non berce guzuac alfer baitira, deliberomendu hura ga-

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 371

bé. Iaincoaren, aldetic, behar da haren gara-  
cia, eta faborea, eta guretic, gure gogoa, eta  
vorondarea.

Emazte batequin beccatutan çaudenean,  
eta peril handian, hala çaudela, ceure az-  
quen egunac ediren çaitçan : cer bide iça-  
nenda, peril handi hartaric escapatceco?  
Emazte haren vtzeco? Cer? Gogoa, vo-  
rondarea, apartarcera deliberauqui deli-  
beratcea.

Ethorcenda Lubilio bat, edo besta- buru  
bar, edo gariçuma: Eta heraric batetan, ic-  
cussitic ecen bertcela galdua çocilla, egui-  
ten duçu vrriquimendu handi batequin co-  
fessione general bat, ceure mendean eguin  
ditutçun falta guztiez, harturic voron-  
date fin bat, ez guehi ago emazte haren ga-  
na, eta ez bertce halacotara bihurtceco. Eta  
handic harat bala complitcen duçu, et-  
çata guehi ago bihurtcen. Haur da erre-  
medio ona, eta hartu behar den bidea, itsu-  
tua, eta beretacotua gadutçan, emaztearen  
utzteco.

## §. 1.

**O**Rdea vtzte haur, amorantea ganic a-  
parratce haur, nola edo cer moldez  
eguinen duçu? Onez onerata, etsairu gabe,  
ala etsairuric? Baldin etsaitcen başara,

## 372 HARAGVIAREN BECCATVAC

Igulduro.

horra non duçun bere hala amorante haren  
 genic milla burho, eta maradicino: erran mer-  
 ran, eta desohore: erasico du oihn eguin en du,  
 ezru nehorc ichilduco. Bada etsaitu gabe,  
 eta gaitzera erhorri gabe, onez onetara apar-  
 tarcea ere, gaitz icanen da, eta perilos. Ce-  
 ren lehen trebatuac içan, etoriac içan: lehen  
 beçala elccarrequin egoiten, ibiltzen, min-  
 çatzen: occasinoac ere lehen beçala, edo  
 maiz ago presentatzcen, eta gueriharcen: go-  
 goa virri, aldatzen errak: eta emazteac ere be-  
 hin guerthatuz guero, ez falta equidin. Bada  
 eguiteco, bada certan pensa. Badirudi hobe  
 liçatequeyela, gaitz eraric, eta hasserreteric,  
 partitcea, era elccar vtztea.

Pontu hunen gañean bi gauça nahi nituz-  
 que erran. Lehenbicicoa. Baldin etsaitu gabe,  
 adisquideraluna hautsi gabe, ecin aparta ba-  
 çaitsezque, hauts eçaçu, etsai çaiteci. Eta or-  
 duan emazte hura hasserreterecen dela, edo gait-  
 cez iartzen dela icctissi agatik, eztaguiçula  
 conturik. Ceren hasserreccet hura, eta gait-  
 cez iartze hura ha en gañean icanen da, eta  
 ez çure. Eta halaber orduan, çutçaz gaizqui  
 erraiten badu ere, paira eçaçu, ceren ceure  
 merecia duçu. Halaco ezteyeran halaco Zó-  
 pac; halaco eguitecoec halaco ondorea, pla-  
 cer iraganec atsecaña ohi dute.

Bi garrena erran nahinuque. Baldin emaz-  
 te harri, ceure amoranteari; adisquidetasuna

## BEGVIRATCECO ERREMEDI OAC. 373

hauſi gabe, eſſaitu gabe, eta liscarru gabe, aparta ahal baçaquitça, hala egun çaquitça. Ordea nola apartatucco natçaica, eſſaitu gabe? Ezta gaitz, baldin partida bioc, gaixtaquerian içan çaretent beçata, ontasunean accort baçarete, nola iſgaiteco baituçue. Ceure gogoan deliberatu duçunean, debocinoan iartcera, beccatu suerte guzti etatic, eta guztiz ere, emazi etaco etaric camporatcera. Orduan emazte hari, ceñequin behar ezten eçagutça içatu baituçu, erran behar dioçú onez onetara.

Iaincoac daqui, nola nahia baicen ezpaliz, nahi nuqueyen, oraiño beçala, hemendic aitcina ere çurequin egon, ibili, bici, eta seguitu. Baña hunela iça itera baducusat ecen, çu, eta ni ere galduac goacilla, fin gaitz eguiteco bideangatela. Etahala gueure arteco eçagutça a gaixioari, alde egun behar diogu, apartatu behar gaitaitça : eta hemendic aitcina (gaiñeracoan adisquide guelditcen garela) halaco traturic gabe, garbiqüi, eta prestuqüi bici behar dugu. Nichala nahi nuque; hala deliberatu dut, gogo hartu dut, har eçaçu badaçuc ere. Eta laiquiçu ecen ez tela hemendic aitcina, halaco eguitecoz, enequin cer guehi ago mintçaturic : eta orai danic, nic hetçaz, adio erraiten deratçu dala. Eta orduan bertceac ere, çuc beçala erraiteco luque eta eguiteco. Eta yste dut gutic falta leça-

## 374 HARAGVIAREN BECCATUTIC

queyela, baldin alde baretic edo bertceric, hunelaco bideric, molde onez idequi baledi. Huna nonduçun erremedio ona, hala arimaco nola gorputz eco, eta bai munduco ere: elccarrequin accordaturic, eta mintçaturic, elccarganic apartatcea, eta bereztea.

Ordea lehen munduac daquiela beccatu-  
tan egon direnec, eta beccatuaz denaz leçan  
batean elccar vticí dutenec, ezture handic ha-  
rat, lehen beçala elccarrequin ibili, jan, edan,  
eta solhastatu behar: ezture, premiazco  
gauçétan baicen elccargana behar. Bataz  
occasinoac occasinoapitz ezteçan gatic; eta  
berriz bertcea escandaluric ezten gatic, eta  
munduari ere eztela ia hequen artean, lehen  
beçalaco heccaturic, adicera emaitca ga-  
tic. Ceren obligatu çara exemplo onaren  
emaitera, eta munduari ere guiristino be-  
çala bicicen çarela eracuñera: Halatan,  
ez çure saindutasuna aguer dadin, baiña  
Iaincoa lauda dadin amoreac gatic. Eta hala-  
ber baldin báda nehor, gü ceneunden be-  
çala, dagoenic, esportça dadin hura ere,  
çue hartu duçun gogoaren, eta vorondatea-  
ren hartcera, eta çuc, beçala beccatuaren  
vtzteria.

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 375

## §. 2.

**E**Maztétaric apartaturic egoiteco gogoa, hain ongi hartu behar da çahartcean, no-la gaztean. Ceren gogoaren aldetic denaz beçan batean, bada hurran, hurrat hanbat peril çahartcean nola gaztean. Presuna bat denean hordi, eta emaccoi, ian-edanera, eta emazièrara emana; erraiten ohi dacomunzqui halacoagatic, vtcico ditucladem-borarequin emazteac, bañia ez edatea. Ceren emaztétaco indarta flacatuco baitçaica, baiña ez edatecoa hala. Bada iaquiqu ecen guïçon putanera, gaztean bethi hala içatu dena, çahartcean ere comunzqui hala ohi dela; ez obraz, baiña bai gogoz. Ceren gogoa bethi da gazte; eta gaztetasuneco v-santcec çahartcean ere gogoa errequerit-cen dute. Çaharrac heccatu guti ago egui-ten badu ere obraz. Ordea guti liaren egui-teco, gogoa bethi hartan daduca. Eta haur da san Gregorioc dioen beçala, Deabruaren v-santça, obraz ecin eraguin deçaqueye-nean, gogoz bedere eraguitea. *Callidus puerarius noster, cum ab effectu operis ex-Illitur, secreta cogitatione polluere nititur.* Gregor. in  
Matt.

zahar içan agatic, gogoa emaziètan

## 376 HARAGVIAREN BECCATVATIC

badaduca vrrats guztiaz eronico da, edo ho-bequi minçatcera, bethi eroria egonen da. Eta hala beccatu hunetaric brguitatcea, eztago ez guzia adinean, eta ez indarrean, baiña bethi ere Iaincoaren faborea aitcinean hartzen dela, dago gogoan, era gogoaren deliberamenduan. Eta dohatzu da, emeztētaco indarra ioalten çaicanean, hartaco gogoa ere ioalten çajcana.

Eguia da, çahartuz guero, adin batera hel-duz guero, odola horzten da, naturaleça flaccenda. Eta hala çahartceco amurusia da gaixioena. *Senex amore captus ultimum malum.* Ceren hura baita gogoarena, naturaleça bort-chatu nahizco arena, occasiñ gabecoa, condonatececo feñalea; eta Spiritu sainduari, lehen erran den beçala, itsusi çazcon beccatuetaric bat.

Halacoari erran ahal daqui dicayo. Vdo ceritçan bat erran ceicana. *Impone finem ludo, quia sati insisti Vdo.* Asco iocatu çara, çahartu çara, ez guehi agobihur. Accaba iocoa, cerori accabatu gabe: viz çuc hura, harc çu vrci gabe. Baiña Vdo harc etçuen vrci: eta hala fin gaiz eguin çuen, era eguiñen duçu çuc ere, baldin çahartcean bedere gogoa hartatic al-daratecn ezipaduçu.

Eta gogoa diot. Ceren eguiçu milla erre-musina, eta obra on, eta çaren vrhez carga-tua. Baiña ezta probetchu, baldin bertce al-detec

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOS. 377

derie gogoa emazteran badaducau. Sinhetsecau ezen Iaincoarequin batean, guztia goan dagoela.

Haur de hirur garren etremedioa, emazteratice beguiratceco, hequin ez cutsatceco, eta cutsatuz guero ere, garbitceco, gogoaren deliberamendua, vorondatearen hertza aldera deliberatuqui itzulitic, iartcea, eta egoitea.

*Haragiaren beccatutic beguiratceco laur garren etremedioa, ez alfer egoitea.*

## C A P. XXXVIII.

 Rabaila çaita, eguirecotan ibil çaita, cerbaicetan emplega çaita, alfer egoitetic beguiratçaita, eta halatan beguiratuko çara, emaztequin huts eguitetic ere. Ceren alferqueriatric heldu da amurisia emazterako gogoa, orhoitça pena. Eta bai malicia penasita, eta nahastecamenduen eguitea ere. Halatan erraiteen du Aristotelec. Neccaçaleric, eta laborariric baicen ezten herria, dela herriric hoberena.

Ceren neccaçaleac, bere nequeaz, eta tra-

Arist. lib. 5.  
Politica,

bailluaz baitaduca contu, eta ez amurusiaz,

B b

## 378 HARAGVIAREN BECCATVTC

eta ez nehoren nahastecatceaz. Trabaillatcen dena,edo eguitecotan dabillana,eztu haraguiac tentatecen-handi. Aitcitic trabailluec,atsecabèc, eta eguitecoec , bertce eguitecoric emaiten diote.

Hieron. ad  
Rusticum.

Eguia hunen fragatceco contatcendu san Geronimoc : Egiptoco monasterio batean cela fraide gazte bat, haraguiac bortitzqui tentatcen çuena, bero hutsez bethi ciraquien,añain iraquin ecen barurtu agatic , disciplinatu agatic , eta bertce anhitz enseiu eguin agatic , ecin iraungui baitceça queyen su hura , eta ez egotz here ganic hartaco go-goaa. Monasterio hartaco Abadeac , eguiteco haren berri iaquin çuenean, iccussuric ecen fraide hora galtecoo periletan cela , eguin çuen gogoeta , cer moldez atheraco , eta libratuco çuen peril hattaric. Era idurituric ecen tentamendu hec guztiac,alferqueriatric, eguiteco gabe , aise , bere gogara, placerera, eta atsecaberic gabe egoitetic heldu çeitçala , erauzaraci ceraucan falso testimonio gaixto bat. Accusatu çuten bi leccucoc Abadearen aitcinean , Abadearequin berarequin adituric. Era baciharducaten elccarren at-tean. Accusatuac ykha,oihu, falso cela , gueçurra cela,ercela halacoric,etçuela hobenic. Baiña leccucoec , mantena , on eduqui , hala cela. Hunela cebiltçala, eta Abadea ere sentencia emaitetic berariaz guibelatcen cela,

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 379

Iragan cen vrthe bat. Era guero haren buruan, galdequin ceraucan Abadeac fraide harri, eta nola cihoacon bere haraguiarequin? eta lehen veçala tentatcen çuenz? Era ihardetsi cioen. *Papa, vinere non licet, & fornicari libeat?* Cer tenta? Eztaçusaçu certan naicen? Eztaçusaçu biciaz etsiu hyrran dudala? Loric ere ecin daidique dala? Ioan dira ioan leheneco gogoeta hec, orai bertceo deraut gogoeta, era eguiteco. Iccussaçu cein artez emancioen. Abade harc chedeari, eta nola atsecabearen emaitceaz, eta alferqueriazen, eta aisiaren quentceaz, quendu cerautçan haraguiaren tentamenduac ere.

*Amor est animis vacantis passio.* Amorio de-  
sordenatura, astia duena baithan, presuna  
alferrean edireiten, eta ostantacen da, hari  
dagocá arrotça, era viandada. Hargaric pin-  
tatcen çuten Venus iarriric. Ceren amorioa  
edo amurusia, alferqueriaz, aise, eta gueldi  
egoiteaz hazten, eta mantenatzen baita. Era  
badio Ouidioc ere. *Otia si rollas, perire cupidi  
nis arcu.* Baldin quen baitçatçu alferqueriac  
galdu dirataque Cupidoen arcuac, eztu ne-  
hor bere tragacéz çaurtuco?

Gedeari

Chrysoft.  
Hom. t. 4 in  
cap. 1. Mat.Ouid lib. 2.  
de remed.  
amoris.

## 380 HARAGVIAREN BECCATVTC

## §. I.

**C**omunzqui alferrac ian edanean , eta  
**Cafia lib.** *Cemazte tan ohi daduca gogoa. Hala er-*  
*10.cap.8.* *raitendu Cafianoc. Mens otiofa nibil alind*  
*nouie nisi de escis atque venire. Alferraren go-*  
*goetac , eta solhasac , ian-edanaz , eta sabelaz*  
*dira , eztu bertetan pensatzen ere. Hala-*  
*Hickon. ad* *tan erraiten cioen san Geronimoc Rusticori.*  
*Rusticum.* *Ama studia literarum & vicia carnis non*  
*amabis. Onhers eçaçu estudioa , eta eztuçu*  
*haraguiaren beccatuan atseguinic hartuko ,*  
*eta ez gogoric eduquico. Hartean baduçu*  
*estudioa fintqui , vteico duçu emaztea lacho-*  
*Lajoqui.* *Hac fuit iniquitas Sodome sororis tua, su-*  
*Ezech. 10. *perbia, sacuritas & otium. Ierusalem, çure aiz-**  
*pa. Sodomaren beccatua , eta galgarria , içan*  
*cen , vrguillutafuna , assea , eta alferqueria. Al-*  
*ferqueriarequin batean eguin cítu en Sodo-*  
*maco hiri harc hainhuts handiac , eta beccatu*  
*khiratsac , non igorri baitceraucan Iaincoac ,*  
*ez lur estaltceco , eta ez vr garbitceco , bai-*  
*fia bai su , eta khar erratceco , eta chispilt-*  
*ceco.*

Erregue Dauitec , trabaillatzen cenean  
 guerlan bere presonaz cebillanean , contu  
 guti eguiten quen emaz-éz. Baiña astiari , eta  
 astiari iarriric , mandatariz , eta bere ordainez

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 381

eguitecoen eguiten hasi cenean, atceman cen  
bere hala, eta erori bertceren emazteate-  
quin. Salomon ere temploaren eguiten hari  
cen bitarcean, eztugu editeiten enganatu çu-  
tela emaztec, baiña temploa accabaturic,  
alferqueriati emanccicanean, fice atrapatu  
cen.

Bada Sanson ere guerlan cebillaño, ecia  
egun daino garaitu çuten bere etsaiec, baiña  
eguitecoac, eta guerlac vtciric, emazte ba-  
ten alçoan bere placerera etçan cenean,  
emazte harc berac enganatu çuen, eta guero  
etsaiec hartçaz nahiçutena eguin çuten.

*Vigilate ergo fratres mei, quia nec sanctiores  
Dauide, nec fortiores Sansone, nec Sapientiores Sa- August. ad  
lomone vos esse video. Qaudete beraz iratçarti- fratres in  
ric ene anaia maiteac ( dio san Agustinec) 17.T.10.  
ceren eztacusat nic, çarerela quec, Dauid  
baiño saindu ago, Sanson baiño valent ago,  
eta ez Salomon baiño iaquinsun ago.*

*Quarierit, Aegistus quare sit factus adulter? Ouid.lib.r.  
in promiscua causa est, desidiosus erat. Galdegiu- de remedio  
tenda, cergicat eroricen Egisto adulterio- amoris.  
an? Prest da arraçoña; ceten alferra bait-  
cen. Bada molde berean errau ahal diteque,  
Dauitez, Sansonez, eta Salomonez ere. Ce-  
ren hec guztiac, bertceric anhitz beçala al-  
ferqueriac galdu cituen edo galtceco peri-  
lean ibeni cituen.*

Beraz hunelatan cerbaitetan emplega

B b 3

## 382 HARAGVIAREN BECCATUTIC

çaité rrabailla çaité, alferqueriatric beguira  
çaité. Ceren halatan emaztétaric ere begui-  
ratuco. cara.

---

*Haraguiaren beecatutie beguiratceco borz gar-  
ren erremedioa, consideratcea eñ ttipia, era la-  
burra den bartaco placera.*

## C A P. XXXIX.



Maztétaric beguiratceco,  
hetara ez hain isuria, ero-  
ria, eta gogoa egotzia e-  
goitecozon ligareque, cen-  
bait aldiz bedere, baccar-  
tic çaudenean, gogoera  
eguitea, eta ceure baithan  
consideratcea, ea nolacoa,  
bandia<sup>1</sup>, ala ttipia, lucea ala laburra den e-  
maztétaco placer hura. Ceren baldin ttipia,  
eta laburra baldin bada, erhoqueria handia  
da, hargatic presunac bere buruari, hanbat  
atsecabe, eta eguiteco, nola anhitzetan ere  
emaiten baitio, emaitea.

Bada frogatu duten guztiec baretan, eta  
boz batez, aizhortzen, erraiten, eta cof-

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 383

fessatcen dute , placer hura , placer ap-purra , eta laburra dela , hasi deneco accabatu dela : eta are batçutah hasi gabe ere , accabat-cen dela . Ceren placer hartan berean ere , co-munzqui , placer baiño , desplacer , guehi ago edireiten bajta . Vizten ditut placer haren aitcin-gübelac , an arteraiñoco , eta ondo-reco eguitocoac , eta aisecabeac , handiac baitira , baifia hartan çareneco bereco place-ras mintgo naiz : Era diot ecen orduan ere , hartan çarenean ere , cerbait escastasun , cer-bait descontentamendu içaiten duçula ; eta hura dela causa , orduan ere , guztiac ongui contracera , placer baiño desplacer guehi ago içaiten duçula . Hala erraitendu san Basí-lijoc .

*Oblectatio corporae voluptatis , plus doloris Basil. in.  
habet quam voluptatis.* Haraguiaren pla- Psal. 33.  
cer corporalac , dolore , eta desplacer  
guehi ago du , atsegui eta placer baiño . Ar-  
racoinequin galdeguitendu iondone Pauloc  
ere . *Quem fructum habuisti in iis in quibus nunc  
erubescisti ?* Cer fruitu , cer irabaci , eta pla-  
cerigan cenduten orduan , orai ahalquez ere  
bururic ere eciñ ailchatuz , çaudeten becca-tuhetan ? Are orduan ere ercenduten pla-  
cer osoñichartu , etcineten aspertu , eta ez  
asse . Eta ezta miresteco ez aspetcea . Ce-  
ren sua beçala da haraguiaren beccatua ; eta  
suac eztu behin ere erraiten also ducla

## 384 HARAGVIAREN BECCATVTC'

Prou. 30. *Ignis nunquam dicit, sufficit.* Ceren Glosac dio-  
 en beçala. *Voluptrates semper habent famem sui.*  
 Glos or-  
 din. in cap. Haraguiarem placerac, berhi dira, placet  
 7. Iuc. gosseac. Eta iduritcen başaitçu ere, baldin  
 behin ceure desira desordenatua compli ba-  
 ceneça, hain bertcez sosegä ciñdezqueycla,  
 Hieroni; ad enganartcen çara. Ceren san Geronomoc dio-  
 matteru.  
*Libido nunquam satiatur, & cum*  
*videtur extincta reaccenditur, usq[ue] crescit & de-*  
*ficit.* Haraguiaren placera, eztabehin ere  
 guztiz assecen, eta ez ossoqui iraunguitcen.  
 Eta batçutan assecen, eta iraunguitcenda  
 badirudi ere, berriz berehala gossecen, eta  
 pitztenda. Eta are dembora gutiren barre-  
 nean, lehen baiño biciqui ago iratçartcen da.  
 Glos Gyra- Hala erraitendu Glosac. *Luxuria et si ad ho-*  
 na in cap. 3. *ram satiatur, postmodum tamen ad appetendum ar-*  
 Prou. *titus inflamatur.* Nola guiconac emazteari  
 diaduconamorioa; bere egüitez baita, natu-  
 ral, amorio hura appurbat horzu agatic ere,  
 berehala naturaleçac berac berotçendu, iraun-  
 gi agatic, pitztendu.

## BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 385

## §. 2.

**E**rraitendu Alciatoc. *Hem miser in medijs Alciatus.  
fusiens, stat Tandalus vndis. Et poma esuriens  
proxima, habere neguit. Tandalus on-bebar hu-*  
Emblem.  
84.  
*ta gosse eta egarri cen : eta baçuen oñien az-  
pian ur franco , eta buruaren gainean çuhartz  
bat, fruituz bethea. Ordea edan nahi que.  
nean , vrac ihes eguiten cioen, eta iacetacoan,  
çuhartz adarrac goititcen eta guratzen cete-  
çan , ecin erdiets circaquyen Ianhariz eta  
edariz ioguratu cegoen, eta ala baiña gosseac  
eta egarniac hilcera ceraman. Hala da badi  
haraguiaren atleguinetan eta placeretan da-  
billana ere.*

Gosse da , egarri da , eta emoçu nahi duen  
beçanbar, sar bedi beguierajño , baiña eztite-  
que asse , eztiteque ossòqui compli eta ez  
contenta. *Libido lassari potest, satiari non potest.*  
Destru-  
ctor.  
*Vnde ahalditeque eta nehka , baiña ez asse.  
Hala erraitenda Erromaco andre batez , han-  
bat ibili cela guiconequin non hetaric partitu  
baitcen nekhaturie, baiña ez asseric. Et laf-  
sata viris , sed non satiata recessit. Aitcitic edan  
ago , egarri ago ; vslatu ago , nahi ago. Har-  
aguiaren desira desordenatua , avaricia beçalz  
da. *Crescit amor numi, quantum ipsa pecunia luuen.*  
Iuuen.  
Satis. 6.  
*erescit. Cenbazenaz diru guehi ago , hanba-  
tenaz guticios ago. Hala da badi haraguiaren**

## 386 HARAGVIAREN BECCATVITIC

beccatua are. Seguitu ago , nahi ago , vfatua-  
go barren ago ; asse ago , gosse ago :

Baldin vste baduçu, emaztetan anhitz vfat-  
ceaz , emaztētaco guticia , gutituco çaitçula,  
enganatcen çara. Aitcitic nola bat bedera an-  
hitz iateaz eta anhitz edateaz , iale ago eta  
edale-ago eguiten baita : hala emaztequin  
vfatceaz ere , eguiten da emaccoi ago , eta  
emaztētara eman ago.

Haraguiaren appetitua bobequi hilicenda  
ez vfatceaz , vfatceaz baiño . Vizten ditut bert-  
ce etremedioac , baiña erremedio naturalic ,  
haraguiaren tentamendu guti içaiteco , ezta  
halacoric , nola ez vfatcea . Ceren ez vfatceaz  
ançuccenda haraguia , ez ansiatua , eta shantzia  
iarcenda . Baiña vfatceaz berri ernatua , irat-  
çaria eta orhoitua egoitenda . Hala edirenен  
duçu , ecenguiçon bat alharguntcen denean ,  
bere hala , haraguiaren lehenbicico orhoitça-  
penean , ezcondu nahiz dabilalala , ecin dago-  
quycela . Ceren leheneco vasantçac erreque-  
rit cen baitu . Eta halacoac nola bera ecin bai-  
tagoque , vstedu ecen bertce guztiac ere hura  
beçala direla , hanc beçain iguritquitça eta  
pairn guti dutela . Baiña bere burruaren bai-  
cen , berritic ez taquienä beçala minicço  
da . Ceren vfatcen eztuenari , haraguia  
hildna , sosegatua , sorttua eta ez ansiatua da-  
goca .

Beraz ez vfatceaz , etxitua eta gogatua egoia

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 387

teaz, eta gurzien buruan haragaiaren placa, cein gauça appurra eta laburra den consideratceaz, eguiçu. Ceren halatan ceure buruari sosegamendu handi bat emanen dioçu eta haragiaren beccatutic beguiratceco ere borz garren erremedioa edirenene duçu.

---

*Haragiaren beccatutic beguiratceco sey garren erremedioa, hartao placerae cein ondore gaixtoa, bere ondotic vtzté duen, considerascea.*

## C A.P. X L.

 Araguiaren beccatutic beguiratceco, sey garren manamenduaren complitceco, erremedio handia badala ere, haragiaren placera cein gauça appurra eta laburra den consideratcea; ordea ezta tipi agoa, placer tripi labur harc, cein ondore gaixtoa bere ondotic vtzté duen, halaber consideratcea, eta ongi gogoan eduguitcea. Ceren placera iragan den beçain sile, han da desplacera, han da bere hala dama, vrtiquia, atsecabea eta egun ozpalu

## 388 HARAGVIAREN BECCATVTC

Aul. Ge.  
lits lib. 1.  
cap. 3.

nahia. Contaczen du Aulo Gelio Corintio. co herriān cela Lais ceritçan emazie eder bat, famatua, amolsua, placer eguilea, eta bere of- ficioaren valiacen ongi ciaquienā. Boda egun batez Demostenes Philosopho handi hora emazie haren aldetic iragaiten cela, qui- licatu cen, etnatu cen, limbuttcen hasti cen: era galdeguin cioen Lais berari, ez cebana saltcen cen fruitua, cer valio quen mercatal- goac? Eta alegueraric, vstez ecen ihicia sarean quen, escatu ceican suma handi baten, guchi ago botz chun ez cutoren baitio, handiari han- diqui. Demostenec aditu quenean ema-mu- thirizaten demanda, ihaiderli cioen, ez vste be-

Ulitare. in çala. *Ego penitere non tanti eme.* Ez tutnic vr- Aphobo- rriquitccā edo vrriquia horrein garastia eros- the.. ten. Erran baillio beçalā. Badaquit andrea ecen baldin nigorai iragan baneça çurequin neure appetitu desordenatua, vrriqui lequidi- que dala bere hala. Bada vrriquitccā hura, on- doroz dainu hora, eztut horrein cario erosken eta ez hargutic hanbat dītu emaiten. Escarnio egui vstea, guelditu cen escarniatua. Eta Demostenec eman quen hartan aditeera, bec- catuari bershiere bere ondotic vrriquia darrai- cala. Munduko placer desordenatu hauten, appetitus hillez gero, ailez guero, goçatuz guero higuintcenda vianda, ethortcenda vrr- quia. Ecien erran diteque ecien erhotua ibili cen Amnon Erregue Dauiken lehenbicico se-

## REGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 389

mea, bere arreba Thamarren ondoan, cenbat penlu, gogoeta eta irçul-inguru egunin çuen, haren erdiesteco. Bain a guero erdiesthi eta goçatu quenean, hain gaitz eisi çuen, ecen berea hala, iccussi ere nahi gabez, etchetic egotci baitçuen.

Erregue Lyfimacoc, egartsua Iaunduric, behin edatea gatic, errendatu cenean, errançuen, edan ondoan edanaz vrriquituric, tristura handi batequin. O dñs quam parua voluptraris causa, me ipsum ex Rege seruum effeci. Ha Iaincoac, ala ni placer appurra gatic, behingo vt-hoz edates gatic, Erregue eta libre nintcena, muchil eta gathibu egunin bainaiz. Hala erran ahal deçaque bada, haraguiaren placer appur baten gatic, deabruaren azpico era gathibu eguiten denac ere. Ala ni, deus gutigatic, bunetara bainaiz, Iaincoarequin adisquide nintcena, etlaitu baifiaiz.

Plutan. in Aphote.

## §. 3.

**H**Araguiaaren placeraç cein guti irauten duen gogoeta eguitera: Placer haren erdiesteco, cenbat trabaillu, gau eta egun gaixto iragan behar den pensatcera: eta guzti en gainetico, placer eztheus harc, hasi deneco,edo hasi gabe accabarten den harc, cenbat pena eta atsecabe emaiten duen; eta cein ondore gaixtoa bere ondotic vtzich duen considerat.

## 390 MARAGVIAREN BECCATUTIC

cera,eztut vste,liçatequeyela bat ere,eguiteco harten sar licequeyenic; ez behintçat adimenduan dagoenic , centçua buruan duenic , zoro eta itsu eztenic.

Eta harten dabiltsanec berèc ere eçaguccen dute,eçagutzen,hutz egunañ doacilla, anhitz calte handic errecibirzen dutela,bai concientzian,bai ohorean,bai ofasunau eta bai haciendan ere.

Eta hala vste dut ecen , eztela bat ere , bere desira iragan duenean, tristetzen eztenic, vrriquitzen erçai canic , eta bere baithan , eztuela guehi ago bihurtu behar , cebait gogoeta, eguiten eztuenic. Ceren orduan bere berri harten appur bat horz tua dateque,ematu da-teque. Ordea nola guero berriz bere leheneco appetitura bihurzen baita : hala bihurzen da halaber,bere leheneco toquira,tornura,eta lohira. Eta nola vli-farsailla,ezpaita,hegalac erra arteinio , candelaren ingurunetic vrruntzen : hala amurus itsutua ere,ezta,arima,gorputza eta hacienda honda arteinio cençatzen.

Eta hunen arracoia da. Ceren hala dabilanac , ezpaitu abreac bañio guehi ago , et horqui çunera behatzet : eta ez placer harcen ondore horza era atsecabetsua , bere ondotik vtzten duen behar beçala consideraten.